



***FAMILIEI LAGUNTZEKO ERAKUNDEEN
ARTEKO II. PLANAREN TARTEKO
EBALUAZIOA***

2006 - 2008

-Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila-

Sarrera.....	5
Ebaluazioaren gaia: Familiei Laguntzeko II. Plana	6
Ebaluazioaren xede zehatzak.	9
Metodologia.....	11
1. ildo estrategikoa: Araudia garatzea.....	13
1.1. Familiei Laguntzeko Legea	13
- Betetze-maila.....	13
- Aurrekontua gauzatzea	14
- Estaldura eta eragina	14
- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa	15
1.2. Familia Bitartekotzaren Legea.....	17
- Betetze-maila.....	17
- Aurrekontua gauzatzea	17
- Estaldura eta eragina	17
- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa	18
1.3. Familia Elkarguneak arautzen dituen Dekretua.....	20
- Betetze-maila.....	20
- Aurrekontua gauzatzea	20
- Estaldura eta eragina	20
- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa	21
1.4. Familiei Laguntzeko Prestazio Ekonomikoak arautzen dituzten Dekretuak	22
- Betetze-maila.....	22
- Aurrekontua gauzatzea	22
- Estaldura eta eragina	23
- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa	23
1.5. Familiaren Euskal Kontseilua arautzea	24
- Betetze-maila.....	24
- Aurrekontua gauzatzea	24
- Estaldura eta eragina	24
- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa	24
1.6. Familiaren Behatokia arautzea	25
- Betetze-maila.....	25
- Aurrekontua gauzatzea	25
- Estaldura eta eragina	25
- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa	25
2. ildo estrategikoa: Seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoa ematea.....	26
2.1. Familiaren ardurapean dauden seme-alabengatiko laguntza-programa. Aldizkako eta ezohiko laguntzak.	26
- Betetze-maila.....	27
- Aurrekontua gauzatzea	29
- Estaldura eta eragina	29
- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa	32
2.2. Hiru urtetik beherako haurrak dituzten familiei laguntzeko eta hiru urtetik beherako haurrentzako arreta-zentroen sarea sendotzeko diru-laguntzen programa.	34
- Betetze-maila.....	34

- Aurrekontua gauzatzea	34
- Estaldura eta eragina	35
- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa	36
3. ildo estrategikoa: Lana eta familia bateratzea	38
3.1 Seme-alabak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten besteren konturako langileentzako laguntza ekonomikoen programa	39
- Betetze-maila.....	39
- Aurrekontua gauzatzea	40
- Estaldura eta eragina	41
- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa	43
3.2 Inoren laguntza behar dutenak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten besteren konturako langileentzako laguntza ekonomikoen programa	45
- Betetze-maila.....	45
- Aurrekontua gauzatzea	46
- Estaldura eta eragina	47
- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa	48
3.3 Eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileen ordezkoiak kontratatuzko enpresentzako laguntza-programa	49
- Betetze-maila.....	49
- Aurrekontua gauzatzea	51
- Estaldura eta eragina	51
- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa	53
3.4. 3 urtetik beherako haurrak zaintzeko zaintzaileak kontratatuzko laguntza-programa	54
- Betetze-maila.....	54
- Aurrekontua gauzatzea	55
- Estaldura eta eragina	55
- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa	55
3.5. Besteren kontura lan egiten dutenentzat indarrean dauden eszedentzia edo lanaldi-murrizketagatiko laguntza ekonomikoak norberaren konturako jardura ekonomikoan diharduten pertsonentzat edo autonomoentzat ere hedatzea.	56
3.6. Familiari buruzko 2008ko Inkestaren emaitzak	57
4. ildo estrategikoa: Familiei Laguntzeko Zerbitzuak	59
1.1. Familiei Laguntzeko Legea	59
4.1. Familia	59
- Betetze-maila.....	59
- Aurrekontua gauzatzea	60
- Estaldura eta eragina	61
- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa	62
4.2. Hezkuntza	63
- Betetze-maila.....	63
- Aurrekontua gauzatzea	65
- Estaldura eta eragina	65
- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa	68
4.3. Etxebizitza	70
1.- Araudia:.....	70

2.- Esku-hartzeak:	70
4.4. Familiarentzako Gizarte Zerbitzuak	73
- Betetze-maila.....	74
- Aurrekontua gauzatzea	82
- Estaldura eta eragina	82
- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa	83
5. ildo estrategikoa: Zerga-politika eta errenta berriz banatzeko politika	85
- Betetze-maila.....	85
a) Adinarengatiko dedukzioa	88
b) Seme-alaben mantenuarengatiko dedukzioa.....	88
c) Ezintasunarengatiko dedukzioa.....	89
d) Ohiko etxebizitza erostegatiko dedukzioa.....	89
e) Ohiko etxebizitza alokatzegatiko dedukzioa.....	90
- Aurrekontua gauzatzea	92
6. ildo estrategikoa: Gizartea sentiberatzea	93
- Betetze-maila.....	93
- Aurrekontua gauzatzea	94
- Estaldura eta eragina	94
- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa	96
7. ildo estrategikoa: Elkartze-mugimendua eta herritarren parte-hartzea sustatzea	98
7.1. Familiaren eremuan aritzen diren erakundeak indartzea	98
- Betetze-maila / Aurrekontua gauzatzea.....	98
- Estaldura eta eragina	99
- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa	101
7.2. Herritarren parte-hartzea sustatzea	103
- Betetze-maila.....	103
- Aurrekontua gauzatzea	103
- Estaldura eta eragina	103
- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa	104
8. ildo estrategikoa: EAEn familia-errealitateari buruzko jakintza aztertzea eta zabaltzea	105
- Betetze-maila.....	105
- Aurrekontua gauzatzea	105
- Estaldura eta eragina	106
- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa	106
9. ildo estrategikoa: Planaren jarraipena eta ebaluazioa	107
- Betetze-maila.....	107
- Aurrekontua gauzatzea	107
- Estaldura eta eragina	107
- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa	108
Ondorioak	109

Sarrera.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko Gizarteratze eta Familia Sailburuordetzak, bere egitura organikoa eta funtzionala arautzen dituen urriaren 18ko 315/005 Dekretuak esleitutako funtzioen arabera, Familiei Laguntzeko Erakundearen arteko II. Plana onartu zuen 2006an. Plan horren helburua seme-alabak dituzten familiei laguntza ematea eta neurri horiek indartzea eta zabaltzea da, baita aurreko Planak aurreikusten ez zituen gastuei aurre egiteko laguntza berriak ezartzea ere.

Planean jasotako ekintza-ildoaren artean, 9. Ildo Estrategikoaren helburu zehatza Planaren Jarraipena eta Ebaluazioa egitea da, eta horretarako planifikatutako ekintzak ebaluatuko dituzten txostenak egingo eta ezagutaraziko direla dago ezarrita.

Saileko programen eta zerbitzuen Ebaluazio Zuzendaritzaren funtzioetako bat familientzako programa eta zerbitzuen ebaluaziorako ekintzak antolatzea eta garatzea da, eta horrexegatik, 2006-2008 indarraldian II. Planaren Tarteko Ebaluazioa egitea sustatu du.

Ebaluazioaren gaia: Familiei Laguntzeko II. Plana.

Familiei Laguntzeko II. Plana lehenengoak emaitza oso onak izan zituelako sortu da; hark hainbat lorpen aipagarri izan zituen:

- Unibertsaltasuna. Planaosatzen zuten zazpi neurrietatik bat izan ezik, beste guztiak ezarritako sarbide-baldintzak betetzen zituzten euskal familiei zuzendu zitzaizkien, errenta-maila edozein izanda ere.
- Diskriminaziorik eza. Planak ez zuen familia-lotura jakin bat lehenesten gainerakoek kaltetan, eta egungo familia-eredu guztiak hartzen zituen kontuan.
- Erakundeartekotasuna. Erakundeen –Aldundiak, Eusko Jaurlaritza, udalak– arteko lankidetzeta eta koordinazioa izan zen Planaren oinarri, baita irabazi-asmoa zuten eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuen artekoa era.
- Sendotu eta haztea. Iraun zuen lau urteetan, neurrien onuradun ziren familien kopurua ez ezik, familia horiei eskainitako baliabide ekonomikoak ere handitu egin ziren etengabe.
- Dibertsifikatze mailakatua. Erabilitako prestazio motak dibertsifikatu egin ziren: lehenengo urtean gehien eskatu ziren laguntzen garrantzi erlatiboa murriztu egin zen –jaiotzengatik jasotako laguntzak eta eskola-tokiak sortzeko jasotakoak–, eta lana eta familia bateratzeko prestazioena, aldiz, handitu.
- Neurri jakin batzuen estaldura handia. Planeko zenbait neurri onuradun izan zitezkeen ia guztiei heltzen zitzaizkien; gainerako neurrien estaldura handitu egin zen Plana sendotu ahala.

Hala ere, I. Plan horretan baziren hobetu beharreko hainbat alderdi:

- Ez zegoen helbururik ezta ebaluazio-adierazlerik ere.
- Kasu jakin batzuetara mugatzen zen: nolabaiteko desoreka antzeman genuen erditze eta adopzio anitzei ematen zaizkien laguntzekin alderatuta.
- Haur-eskolen sarea sendotzeko neurriak asko garatu ziren, baina hainbat gabezia antzeman genituen 0-2 urteko tartean.
- Gizon gutxiak eskatu zituzten bateratze-laguntzak.
- Bateratze-laguntzen aplikazio-eremuan langile autonomoak ez ziren sartzen.
- Familientzako laguntza ekonomiko zuzenek ez zituzten barne hartzen adopzio-aurreko familia-harreraren kasuak.
- Lana eta familia bateratzeko politikaren esparruan emandako laguntze ez zituzten barne hartzen familia-harrerak.
- Ez zegoen seme-alabak dituzten familiek seme-alaba horiek zaintzeko zaintzaileak kontratatuzeko laguntzarik.

Ebaluazioren gaia: Familiei Laguntzeko II. Plana.

- Ez zegoen, urteko lanaldiaren iraupenari eutsita, lan-ordutegia malguagoa izatearen aldeko neurriarik.
- Gizartea informatzeko eta sentiberatzeko kanpainak egin ziren arren, ez zen gauzatu kanpaina formal eta masiborik.

Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko II. Planaren bidez, aurreko etapako lorpenak sendotzeko konpromisoa hartu dute euskal administrazio publikoek. Horretaz gain, aldaketa, zabalkuntza eta hobekuntza egokiak ere egin nahi dituzte lehen etapan bete ez ziren premiei erantzutearren eta planaren diseinuan nahiz aplikazioan izandako disfuntzioak zuzentzearen.

II. Plana oinarrizko balioetan oinarritzen da: familiako kide guztien garapen pertsonalean, familia-proiektuari buruzko erabakiak hartzeko askatasunean, bi bikotekideen eskubide- eta betebeharr-berdintasunean, eta familiako kide guztien eskubideen errespetuan eta elkartasunean, kide horien adina eta autonomia-maila edozein izanda ere. Hauek dira Planaren oinarrizko printzipioak:

- Familiek **belaunaldien arteko eta belaunaldi bakoitzaren barneko elkartasunaren eragile nagusitzat** eta elkarbizitzarako oinarrizko **balioen igorletzat** duten zeregina sustatzea.
- Diskriminaziorik ezaren bidez, **familia-aniztasunaren errespetua** sustatzea: Autonomia Erkidegoko familia-politika era guztietako familiei zuzenduta dago.
- Familia ahulenetan gerta daitezkeen hainbat egoerari, hala nola **laguntzarik ezari edo babesgabetasunari**, eta **familia-harremanetan izan daitezkeen arazoei** aurre hartzea, haiek gutxitzea edo/eta bideratzea.
- **Gizarte-ekimenaren parte-hartze aktiboa** sustatzea, familiari dagozkion sustapeneko, arretako eta laguntzako plan eta programen aplikazioan.
- Familiek ardurapean dituzten pertsonak **zaintzeko nahiago dituzten formulak aukeratzea** sustatzea.
- **Familiei laguntza eta babesa emateko sistema integrala** osatzea, eta garrantzi berezia ematea ekipamendu eta zerbitzu soziokomunitarioak garatzeari.

Hori guztia lortzeko, Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko II. Planak 9 ildo estrategiko ditu, aurreko planak baino bi gehiago:

1. ildo estrategikoa.- Araudia garatzea.
2. ildo estrategikoa.- Seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoa ematea.

Ebaluazioren gaia: Familiei Laguntzeko II. Plana.

3. ildo estrategikoa.- Lana eta familia bateratzea.
4. ildo estrategikoa.- Familiei Laguntzeko Zerbitzuak.
5. ildo estrategikoa.- Zerga-politika eta errenta berriz banatzeko politika.
6. ildo estrategikoa.- Gizartea sentiberatzea.
7. ildo estrategikoa.- Elkartze-mugimendua eta herritarren parte-hartzea sustatzea.
8. ildo estrategikoa.- EAEn familia-errealitateari buruzko jakintza aztertzea eta zabaltzea.
9. ildo estrategikoa.- Planaren jarraipena eta ebaluazioa.

9 ildo horiek garatzeko 47 neurri proposatzen ditu Planak. Aurreko atalean aipatu dugu bederatzigarren ildoari loturik proposatutako neurri bat planaren jarraipena egitea dela. Horretarako, dokumentuak berak 178 ebaluazio-adierazle ematen ditu. Beraz, planaren diseinuan bertan ezarri zituzten nola edukiak hala diseinua eta kudeaketa hobetzeko neurriak.

Horretarako gutxi gorabeherako aurrekontua 2.781 milioi eurokoa da.

Ebaluazioaren xede zehatzak.

Txostenaren helburu orokorra ekimenak, programak eta zerbitzuak nola gauzatu eta abiarazi diren ebaluatzea da, baita onartu zirenetik 2008ko abendura arte izan duten garapena ebaluatzea ere. Horretarako, hainbat neurri gauzatzeko egindako ekintzak nahiz egiteko daudenak zehaztuko ditugu.

Era berean, programen eta zerbitzuen bilakaera ere aztertuko dugu, eta ekintza bakoitzak urteko izan dituen onuradunen edo erabiltzaileen kopurua, eta aurrekontu-gastua adieraziko ditugu.

Horretarako, planak proposatutako ekintza-ildo bakoitzari buruzko alderdi hauek ezagutzeko aukera emango digun informazioa bildu dugu:

- Betetze-maila: Garatutako ekintzen urteko analisia, haien egutegia eta Familiei Laguntzeko Erakundearen arteko II. Planean proposatutako adierazleei begira lortu dituzten emaitzak. Horretarako, egiteko dauden lanen kausazko analisia eta gutxi gorabeherako egutegia egingo ditugu, neurria zati batean edo osotasunean garatu ez den kasuetan.
- Urteko aurrekontua gauzatzeko: Neurri bakoitza garatzeko urteko gastuaren, urte bakoitzerako aurrekontuko partidaren gauzatze-mailaren eta kasuan-kasuan eskainitako zenbatekoaren analisia.
- Urtero onura jaso duten pertsona kopuruan izandako eragin-maila, pertsona onuradunen ezaugarriak (sexuari, adinari eta maila sozio-ekonomikoari dagokionez), neurriek eskaera potentzial osoari eman dioten estaldura eta estaldura-mailaren bilakaera.
- Tartean dauden sektore guztiek neurriaren diseinua eta kudeaketa ebaluatzen dituzte: plana diseinatzeaz eta gauzatzeaz arduratzen direnek, onuradunek eta gizarte eragileek. Ebaluazio horrek honako alderdi hauek hartzen ditu barne:
 - Planaren diseinuan eta kudeaketan erantzukizun politikoa eta teknikoa duten pertsonen lana ebaluatzen da: neurrien diseinua, erakunde erantzuleen inplikazio-eta betetze-maila, lortutako emaitzak, eta diseinuak nahiz kudeaketak izan dituzten indarguneak eta ahuleziak.
 - Erantzukizun politikoa eta teknikoa duten pertsonen erakunde erantzuleen lana ebaluatzen dute: betetze-

Ebaluazioaren xede zehatzak.

maila eta lortutako emaitzak, neurriaren kudeaketa, diseinuaren eta kudeaketaren erantzuleekin nahiz beste erakunde erantzule batzuekin koordinazioa -behar izanez gero-, lortutako emaitzen balorazioa, eta neurriaren diseinuaren nahiz kudeaketaren indarguneen eta ahulezien analisia.

- Pertsona onuradunek edo/eta erabiltzaileek laguntzak zenbateraino ezagutzen dituzten, haiei begira zer jarrera duten eta nola balioesten dituzten neurtzen duen analisi kuantitatibo eta kualitatiboa egiten da. Informazioari, kudeaketari, eskuratzeko bideari nahiz prestazioen ezaugarriei buruz iritzia ematen dute, baita behar zehatzei aurre egiteko duten egokitasunari eta jasotako laguntzaren gaineko gogobetetzeari buruzkoa ere.

Metodologia.

Ebaluazioa egiteko erabilitako metodologiak hiru fase osagarri izan ditu:

Lehenengo fasean erakunde eskudunek analisi kuantitatiboa egin dute neurriek urtero izandako betetze-maila, urteko aurrekontuaren gauzatzea, estaldura-maila eta talde onuradunen ezaugarriak aztertzeko. Horretarako honako ekintza hauek egin ditugu:

- Eusko Jaurlaritzako Saisetako datuak jaso eta aztertu.
- Hiru lurralde historikoetako Aldundietan datuak jaso (elkarrizketak eta galdeketak).
- 20.000 herritar baino gehiago dituzten udalerrietako udaletan datuak jaso (elkarrizketak eta galdeketak).

Bigarren fasean erakunde eskudunek planaren diseinua eta kudeaketa ebaluatu dituzte. Horretarako, plana ezartzeko erantzukizun politikoa eta teknikoa duten pertsonei elkarrizketa sakonak egin dizkiegu; Eusko Jaurlaritzako hainbat sailetako (Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila; Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila; eta Emakumearen Euskal Erakundea), Aldundietako eta udaletako arduradunak elkarrizketatu ditugu.

Hirugarren fasean onura jaso duten taldeek ebaluatu dute planaren diseinua eta kudeaketa, prozesu hauen bidez:

- Analisi kualitatiboa nahiz kuantitatiboa egin dugu laguntza ekonomikoari, bateratzeari, laguntza-zerbitzuei eta sentiberatzeari buruzko ildo estrategikoen gainean herritarrek zer iritzi duten aztertzeko. Analisi kuantitatiboa egiteko Familiari buruzko Inkestatik hartutako datuak aztertu ditugu; analisi kuantitatiboa, berriz, eztabaida-taldeen bidez egin dugu.
- Elkarrekin elkarte-mugimendua sustatzeko ildo estrategikoari lotuta garatutako ekintzei buruz zer iritzi duten aztertu dugu, eta horretarako elkarteak sustatzeko programaren onura jaso duten elkartei galdeketa bat egin diegu internet bidez, eta elkarrizketa sakonak ere izan ditugu haiekin.
- Azkenik, bateratze-neurrien aldeko programaren onura jaso duten enpresen balorazioa aztertu dugu. Ordezko langileak kontratatzeko diru-laguntzak jaso dituzten 151 enpresari telefono bidezko galdeketa

Metodologia.

egin diegu, balorazio kuantitatiboa jasotzeko, eta elkarrizketa sakonak ere egin ditugu.

Hortaz, ebaluazio-eredu honen bidez, bi informazio mota jaso ditugu: batetik, egindako lanari buruzko informazio zehatza jaso dugu, eta horri esker, ekintzen garapen-maila zehaztu ahal izan dugu; bestetik, analisi bikoitza egin dugu, kuantitatiboa eta kualitatiboa, erakunde erantzuleen nahiz talde onuradunen balorazioa eta analisisia eskuratzeko.

Analisi bikoitz horrek **parte-hartzea sustatzen duen ikuspegia** izan du oinarri, eta elkarrizketen eta eztabaida-taldeen bidez hainbat erakunderen nahiz kolektiboren iritzi eta balorazioetan sakondu dugu. **Analisi hedakorreko ikuspegian** ere oinarritu da ebaluazioa, hau da, barne dauden ahalik eta pertsona gehienen iritzia lortu nahi izan dugu galdeketen bidez.

1. ildo estrategikoa: Araudia garatzea.

Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko I. Planak lehen bultzada eman zien seme-alabak dituzten familiei laguntzeko ekimenei; lanean jarraitzeko beharrezkoa zen Familiei Laguntzeko II. Planean jasotako neurriak eta laguntzak babestuko, sendotuko eta iraunaraziko zituen oinarritzko marko juridikoa ezartzea, eta, hori dela eta, Erakundeen arteko II. Planaren indarraldian neurri horiek arautzeko eta ataletan banatzeko zenbait mugarri ezarri ziren:

1.1. Familiei Laguntzeko Legea

Familiei Laguntzeko Legea datozen urteotan Euskal Autonomia Erkidegoko familia-politikaren funtsezko euskarria izango da. Lege horrek familiei laguntzeko politikak barne hartzen dituen programen eta neurrien esparru juridikoa osatzen du, eta euskal administrazio publikoek autonomia-eremuan dagoeneko garatutako eskubide, onura, zerbitzu eta prestazio guztiak multzo koherente eta bakarrean biltzen ditu.

Planean ezarritako neurriak eta laguntzak aitortu eta iraunaraziko dituen legea da (*Familiei laguntzeko prestazio ekonomikoak; Familia eta lana bateratzeko neurriak, seme-alabak zaintzeko eszedentziarekin eta lanaldimurrizketarekin loturikoak; eta Jardun administratiboaren zenbait eremutan, familiari laguntzeko neurri sektorialak, hala nola zerga-neurriak eta etxebizitzaren, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen eremuetan garatutakoak*); eta, era berean, neurri horiek iraungo dutela eta zabalduko direla bermatuko du, eta horretarako neurriak betetzeko epe egokiak ezarriko ditu, eta ekintzen pluraltasuna helburu duten beste ekimen batzuk ere bermatuko ditu.

- Betetze-maila

Legearen aurreproiektu-testua 2007an egin zuten eta euskal administrazio hiru mailek nahiz hainbat gizarte eragilek hartu zuten parte horretarako osatu ziren batzordeetan, hau da, Erakundeen arteko Batzordean eta Familia Sektoreko Batzorde Iraunkorrean. Ondoren, 2008ko apirilaren 1ean, legearen proiektua eta behin betiko lege-proiektuaren aurreko zirriborro teknikoak onartu zituzten. Azkenik, aipatutako Familien Legea 2008ko abenduaren 12an onartu zuten Eusko Legebiltzarrean; EAJ, EA, PSE-EE, PP eta EB alderdi politikoen babesa izan zuen, eta EHAK eta Aralar alderdiek ez zuten bozkatu. Abenduaren 24an argitaratu zuten EHAA. Beraz, ezarritako epeak bete ziren.

Familiei Laguntzeko II. Planean ezarritakoaren arabera, Legeak familiei laguntzeko baliabide anitzak arautuko ditu, koherentzia emango die eta joera hori mantenduko duten eta ekintzen pluraltasuna osatuko duten neurri berriak indarrean jartzea bermatuko du.

- Aurrekontua gauzatzea

Araudiaren garapenari ez dagokio aurrekontu zehatzik, Eusko Jaurlaritzaren funtzioetako bat baita. Gaur arte Planaren neurriak eta programak garatzeko 1.543.713.394 € erabili dira eta Planaren bigarren fasean euskal administrazioek 1.154.537.923 € erabiliko dituztela aurreikusten dute. Aurrekontu horren %27,3 Eusko Jaurlaritzak jarriko du, %61,7 Foru Aldundiek, %10,8 udalek eta %0,1 Hezkuntza Ministerioak.

- Estaldura eta eragina

Legeak honako eremu hauek estaltzen ditu:

- 1) I. tituluak Legearen xedapen orokorrak eta helburua adierazten ditu, eta haren ekintza-eremua ezartzen du. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren familia-politikaren funtsezko balioak eta oinarriak azaltzen ditu; horretarako, lortu beharreko helburuak zehazten ditu eta erakundeen arteko koordinaziorako eta elkarlanerako arauak ezartzen ditu. Azkenik, eskuragarritasuna edo zenbatekoa familia-errentaren baitakoa duten laguntzetarako errenta-familia estandarra ezartzen du artikuluko batean. Hemendik aurrera, prestazio bat eskuratu nahi duten familien diru-sarrerak seme-alaba kopuruaren arabera haztatuko dira.
- 2) II. tituluak 5 atal ditu eta familiei laguntzeko neurriak eta zerbitzuak jasotzen ditu, ekintza-eremuaren araberrako ataletan sailkatuta:
 - I. atala: Seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoak eskubide subjektibotzat ezartzen ditu, eta ematen diren laguntzen tipologiak eta haiek eskuratzeko baldintzak zehazten ditu.
 - II. atala: Bizitza pertsonala nahiz familiarra eta lana bateratzeko laguntzak.
 - III. atala: Hainbat administrazio-eremutako Familiei Laguntzeko Zerbitzuak.
 - IV. atala: Familiei laguntzeko zerga-neurrien ardura duten organoek neurri horiek homogeen bihurtzea.
 - V. atala: Gizartea Planak oinarri dituen balioen gainean sentiberatzeko politika, eta gizarte eragileen parte-hartzea familiei laguntzeko ekimenen dinamizazioan.

- 3) III. tituluak familiaren gaiari dagozkion eskumenak administrazioko hiru mailetan (Eusko Jaurlaritza, Aldundiak eta udalak) nola banatu ezartzen du.
- 4) IV. tituluak legeari dagokion antolaketa instituzionala zehazten du; antolaketa hori bi erakunde hauetan oinarritzen da: Familiaren Euskal Kontseilua (hiru batzordek osatzen dute) eta Familiaren Behatokia; gizarte-ekimenari eta familia-arloan lan egiten duten erakundeen laguntzari ere egiten die erreferentzia.

Bestalde, Legearen Xedapen gehigarrien bidez, bizitza pertsonala nahiz familiarra eta lana bateratzeko laguntza ekonomikoak zuzeneko ekintzak izango direla adierazten du, baita Familiaren Euskal Kontseilua eta Familiaren Behatokia arautzeko eta sortzeko epe zehatzak ere (urtebete eta sei hilabete, hurrenez hurren).

Behin-behineko xedapenean Familiari laguntzeko Erakundeen Batzordea eta Familia Sektoreko Batzorde Iraunkorra Familiaren Euskal Kontseiluari atxikiko zaizkiola zehazten du.

Azken xedapenek ezartzen dituzte: Legearen Arau osagarriak (*Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa*), Erregelamendu bidezko garapena (Legea onartu eta hurrengo 12 hilabeteen barruan; epe horretan ezarriko da familia-errenten estandarizazioa) eta indarrean sartzea (EHAAan argitaratu eta 30 egunera). Era berean, eta Eusko Jaurlaritzak familiei laguntzeko politikekin jarraitzeko konpromiso sendoa duenez, laguntza zuzenetan zenbatekoak progresiboki igo egingo direla eta seme-alaben adina pixkanaka zabaldu egingo dela ezartzen du legeak; horren guztiaren xedea diru-laguntzak Europako parekoak izatea eta 18 urtera arte iristea da, eta horrela, 2020. urterako Europako Batasunarekin bat egitea lortzea, baita kudeaketa sistemari dagokion alderdian ere.

Legea orain gutxi jarri zenez indarrean, ezin dugu gizartean izan duen eragina ebaluatu, ezta legea onartzeak ekarri dituen ondorioak eta berrikuntza nagusiak ere.

- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa

Familiei Laguntzeko Legea onartzea Planaren lehentasuna zen, aurrerapauso nagusietako bat baita. Izan ere, indarrean dauden neurrien eta laguntzen esparru juridikoa izango da, eta haiek zabaltzeko aukera eskainiko du. Elkarriketa sakonen bidez gizarte-eragileek adierazi dutenaren arabera, laguntza zuzenen kasuan (zenbatekoak eta adin-estaldura) nahiz familia-

1. ildo estrategikoa: Araudia garatzea.

politiken kudeaketan 12 urteren buruan Europako Batasunarekin bat egiteko aurreikuspena euskal erakundeek familia-laguntzekin hartu duten konpromiso sendoa da. Bestalde, Lege berrian aipatzen den eskubide subjektibo izaerak jaiotzengatik eta seme-alabak zaintzeagatik jasotako laguntzak babesten ditu, eta laguntza horiek jasotzeko baldintzak betetzen dituen pertsona orok prestazio horiek eska ditzakeela zehazten du, eta dirua jaso ezean, auzitegietara jotzeko aukera ere izango duela. Beraz, gizarte-zerbitzuek, oinarrizko errentak, hezkuntzak, osasunak edo pentsioek duten lege-maila bera hartzen dute; herritar guztiek jaso ditzakete doan (oinarrizko errentaren kasuan, diru-sarrera kopuruaren baitan); prestazio horietako bat bera ere ez da egongo Gobernuaren funtsen baitan.

Legeak orain arte araubiderik ez zuena egituratu du: familia eta lana bateratzeko eskatutako eszedentzien edo lanaldi-murrizketen laguntzen arauak, eta mendeko pertsonak eta adingabeak zaintzeko laguntzak.

Legeak ez du zehazten gaur egun ematen diren laguntzak (lehen, bigarren eta hirugarren seme-alabarengatik) zabaltzeko epea, baina 2020. urterako 18 urtera arte hedatuko da laguntzen adin-tartea. Seme-alabak mendean izateagatik ematen diren laguntzak Eusko Jaurlaritzak 2011-2020 bitartean egingo dituen familiei laguntzeko hurrengo planetan zehaztuko dira.

Etorkizunean lana eta familia bateratzeko laguntza zuzenak baino erabilgarriagoak izango diren hainbat alderdi eta neurri ez ditu zehatz-mehatz garatzen Legeak; halakoak dira, adibidez, ikastetxeek eskola-orduetatik kanpo eta oporretan jarduerak egitea helburu duten neurriak.

1.2. Familia Bitartekotzaren Legea

Familia Bitartekotzaren Legearen ardatza hau da: bitartekotza arautzea, familia-unitatean sortzen diren gatazkak auzibidetik at konpontzeko formulatzen.

- Betetze-maila

2007ko maiatzaren 7an aurkeztu zuten Lege-proiektua Legebiltzarrean; maiatzaren 24an aztertu zuten Legebiltzarreko mahaiak, eta zuzenketak aurkezteko epea ireki zuten. 2007ko azaroaren 5ean osatu zuten Batzorde txostengileak 2007ko azaroaren 29an eman zuten bere txostena.

Aurreikusitako moduan, Familia Bitartekotzaren Legearen proiektua Eusko Legebiltzarrek eztabaidatu eta onartu egin zuten 2008ko otsailaren 8an eta 2008ko otsailaren 18an argitaratu zuten EHAAn.

Ezarrita zegoen moduan, legea egiteko eta aztertze bitartekotza gaietan diharduten hainbat gizarte eragileren laguntza izan zuten, hala nola profesionalen elkargoarena eta bitartekotzaren institutuarena.

- Aurrekontua gauzatzea

Familiei Laguntzeko Legearen kasuan bezalaxe, Familia Bitartekotzaren Legea garatzeko ez dago aurrekontu zehatzik, Eusko Jaurlaritzaren funtzioetako bat baita.

- Estaldura eta eragina

Familia Bitartekotzaren Legeak estaldura zabala du:

- 1) Bikotea hautsi delako, edo banatze-, dibortzio- nahiz baliogabetze-prozeduratan hartutako neurri judizialak gauzatzeagatik, edo hartutako akordioetatik eratorritako zirkunstantzia-aldaketen eraginez sortutako familia-gatazkak.
- 2) Bizikidetzakrisiak edo familian sor daitezkeen bestelako gatazka-egoerak; besteak beste, gurasoen eta seme-alaben arteko gatazkak, edo seme-alaben artekoak, edo elikagaien gainean senitartekoen artean sor daitezkeenak.

- 3) Adoptatuen edo harrera-egoeran daudenen eta adoptatu edo etxean hartu dituen familiaren edo/eta familia biologikoaren artean sortutako gatazkak.
- 4) Gurasoen eta aitona-amonen edo beste senitarteko edo hurbileko batzuen arteko gatazkak, azken horiei gurasoen seme-alabekin harreman normalizatuak izatea eragotzen zaienean.
- 5) Familia-enpresetan izaten diren gatazkak, betiere familia-harremanetan eragina badute.
- 6) Herentziak eta ondorengotzak eraginda familian sortzen diren gatazkak.

- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa

Gobernuaren programa-dokumentuak hainbat plan, programa eta ekintza esanguratsu ezartzen ditu sail bakoitzerako, hala nola legegintzaren garapena, indarrean dagoen legealdian. Programa-dokumentu horrek aurreikusitako arauen garapenaren barruan aipatzen ditu Familia Bitartekotza Legearen argitalpena eta onarpena. Lege hori Familiei Laguntzeko II. Planak ere jasotzen du, familia-eremuarentzako laguntza bat gehiago izango baita. Planak, beraz, aintzat hartzen ditu zuzenean Familia Zuzendaritzaren mende egon gabe, neurri batean edo bestean hari eragiten dioten legeak edo neurriak, eta Planaren esparruan biltzen eta itxuratzen ditu.

Hortaz, Bitartekotza Legea onartzeak Planaren helburuetako bat lortzea ekarri du, arauen garapenari buruzko ildo estrategikoari dagokionez. Hala ere, esparru orokor hori ezarrita, ondorengo arauzko garapena egiteko dago (argitalpena eta dagozkion dekretuak onartzea); horrek berekin dakar Bitartekarien Erregistroari edo Familia Bitartekaritzako Aholkularitza Kontseiluari begirako onarpena eta familia bitartekotzaren zerbitzu publiko nahiz pribatuen beste zenbait alderdi material eta funtzional (horiek urtebetean arautu behar dira).

Eragileen ustez, Familia Bitartekotzaren Legearen diseinuak ez du alderdi negatiborik. Familia gatazkak auzibidera iritsi aurretik bitartekarien bidez modu adiskidetsuan konpontzeak gizarte-gatazka murriztea dakar, eta hori legearen abantaila garbia da. Gainera, doan egiten du, bitartekotzako zerbitzu publikoak sustatzen baititu (oraindik arautu gabeak); hau da, herritarrek zerbitzu hori ordaindu gabe eskura dezakete, orain arte bezala, eta berme juridikoa eskaintzen du. Beraz, bitartekotzari irtenbidea emateko bide publikoa eta pribatua ditugu; horiek garatu egin behar dute eta profil profesional berriak sartuko dituzte.

1. ildo estrategikoa: Araudia garatzea.

Bi legeak onartzeak (Familiei Laguntzeko Legea eta Familia Bitartekotzaren Legea) orain arte Euskal Autonomia Erkidegoan definitu eta zehaztu ez zen esparrua arautzea ekarri du. Herritarrek aldarrika ditzaketen eskubideak sortu dituzte, eta horiek bermatzeko betebeharrak izango dituzte administrazioek.

1.3. Familia Elkarguneak arautzen dituen Dekretua

Legearen arabera, haurrak eta nerabeak gurasoekin bizi ez diren kasuetan eta haien arteko ulermena zailagoa izaten denetan harremanak errazteko, eta familia-gatazkak konpontzeko bide alternatibo bat eskaintzeko Eusko Jaurlaritzari dagokio: familia-bitartekotza arautuko duen araubide zehatza ezartzea (Familia Bitartekotzaren Legea), eta hura sustatzeko irtenbideak bilatzea, baita guraso eta seme-alaben arteko harremanari eustea ahalbidetuko duen elkarguneak sor daitezzen sustatzea ere, bisitaldiak gainbegiratzea komeni den kasuetan, edo elkargune neutroa harremanerako lagungarri izan daitekeela uste den kasuetan.

Horretarako, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila arduratuko da baliabide horiek arautzen hasteaz, garatutako Dekretu baten barruan.

- Betetze-maila

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak aipatutako Dekretuaren testua idatzi zuen 2007an, zegozkion batzordeetan eztabaidatu eta adostu ondoren. Alegaziok aurkezteko fasea gaindituta eta aldeko txostena jasota, Dekretua Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren osoko bilkuran aurkeztu zuen 2007ko urriaren 30ean.

Azkenik, Dekretuak (124/2008) aurreikusita zeuden izapide guztiak gainditu zituen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eta Aholku Batzorde Juridikoaren nahitaezko txostenak lortu zituen 2008ko lehen hiruhilekoan. Gobernu Kontseiluak 2008ko uztailaren 1ean onartu zuen eta 2008ko abuztuaren 7an argitaratu zuten EHAAn.

- Aurrekontua gauzatzea

Ez dagokio aurrekontu zehatzik, Eusko Jaurlaritzaren funtzioetako bat baita.

- Estaldura eta eragina

Arau horrek elkarguneak esku-hartzea eskaintzen duten zerbitzutzat definitzen ditu. Esku-hartzea aldi baterakoa izan ohi da, eta gurasoek erantzukizuna parteka dezatela lortu nahi duten familia-bitartekotzako teknikak ditu lagungarri; beraz, familiako harremanen autonomia eta normalizazioa lortu nahi ditu. Esleitutako jardueren artean, haurrak hartzeko eta uzteko uneak gainbegiratzeko zerbitzuak eskaini daitezke, eta bisitaldi gainbegiratuak edo gainbegiratu gabeak antolatu, egoera bakoitzaren premien eta ezaugarrien arabera.

1. ildo estrategikoa: Araudia garatzea.



- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa

Oraindik arautu gabe zegoen puntuetako bat da hau. Arau batzuen bidez, esparru arautzaile bat prestatu du dekretuak, eta zerbitzu honek berekin dakartzan herritarren hainbat eskubide eta administrazioen hainbat betebeharrak definitu ditu.

1.4. Familiei Laguntzeko Prestazio Ekonomikoak arautzen dituzten Dekretuak

Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko I. Planak 2002an araututako prestazio ekonomikoak izan arren, laguntza horiek barne hartzen dituen Familiei Laguntzeko Legea onartu eta behin betiko argitaratu aurretik, laguntza bakoitza zehazki arautzeko beharra sortu zen, II. Planaren diru-laguntzei dagozkien berrikuntza, hobekuntza eta zabalkuntzak sartzearen (*jaiotzengatik nahiz seme-alabak zaintzeko, eta bizitza pertsonala nahiz familiarra eta lana bateratzeko jasotakoak*).

- Betetze-maila

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak honako hauek arautu ditu: indarrean dagoen araudia egokitzea Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko II. Planak seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzei dagokionez egin dituen berrikuntzetara; mendekotasuna duten helduak zaintzeko eszedentzia eta lanaldi-murrizketa direla-eta eskainitako bateratze-neurri berriak gehitzea (seme-alabak zaintzeko dagoeneko bazirenaz gain). Honako Dekretu Arautzaile hauen bidez arautu zituzten, aurreikusitako epean:

- 1) 255/2006 Dekretuak, abenduaren 19koak, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen ditu.
- 2) 118/2007 Dekretuak, uztailaren 17koak, lana eta familia bateratzeko neurriak arautzen ditu.

Bestalde, orain arte indarrean egon diren diru-sarreraren tarteak egokitzearren, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hiru urtetik beherako haurrak dituzten familiei laguntzeko eta hiru urtetik beherako haurrentzako laguntza-zentroen sarea finkatzeko diru-laguntzen agindua egin eta onartu zuen, 2007ko abenduaren 13an.

- Aurrekontua gauzatzea

Arauen garapenari ez dagokio aurrekontu zehatzik, Eusko Jaurlaritzaren funtzioetako bat baita.

1. ildo estrategikoa: Araudia garatzea.



- Estaldura eta eragina

Familiei Laguntzeko Prestazio Ekonomikoak arautzen dituen Dekretuaren estaldura eta eragina 2. eta 3. ildo estrategikoetan aztertuko ditugu.

- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa

Familiei Laguntzeko Prestazio Ekonomikoak arautzen dituen Dekretuaren estaldura eta eragina 2. eta 3. ildo estrategikoetan aztertuko ditugu.

1.5. Familiaren Euskal Kontseilua arautzea

Familiei Laguntzeko Legeak Familiaren Euskal Kontseilua eta Familiaren Behatokia oinarri dituen Arauen Multzoa ezarri eta arautu du. Familiaren Euskal Kontseilua organo aholku-emailea da eta haren helburu nagusia familiak laguntzeko eta babesteko politika publikoen eremuan erakundeen arteko koordinazioa bermatzea da, baita herritarren parte-hartzea erraztea eta sustatzea ere. Era berean, Familiei Laguntzeko Legea onartzearen ondorioz, Kontseilu horri atxikiko zaizkio Familia Sektoreko Batzorde Iraunkorra eta Familiari laguntzeko Erakundeen Batzordea; orain arte, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren mendekoak ziren.

- Betetze-maila

Familiaren Euskal Kontseilua 2008ko abenduaren 12ko Familiei Laguntzeko Legea onartzearen ondorioz sortuko eta arautuko da, haren izatea, eraketa eta funtzionamendua arautuko dituen garapenerako arauaren bidez. Familiei Laguntzeko Legearen bigarren xedapen gehigarriak Familiaren Euskal Kontseilua arautzeko epe hau zehazten du: onartu ondoren urtebete, Legea indarrean sartzen denetik.

- Aurrekontua gauzatzea

Arauen garapenari ez dagokio aurrekontu zehatzik, Eusko Jaurlaritzaren funtzioetako bat baita.

- Estaldura eta eragina

Familiaren Euskal Kontseilua Familia Zuzendaritzari atxikitako organo aholku-emaile moduan sortuko da; Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta udalek ordezkariak izango dituzte bertan, baita irabazi asmorik gabeko elkarte pribatuak ere. Organoren ardura familiaren gaietan erakundeen arteko koordinazioa eta elkarlana bermatzea izango da.

- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa

Legeak Familiaren Euskal Kontseiluaren eraketa orokorra ezartzen du. Kontseilu horri atxikita daude eta berau osatzen dute: Familiaren Sailen arteko Batzordea, Familiari Laguntzeko Erakundeen Batzordea eta Familia Sektoreko Batzorde Iraunkorra; oraindik ez dira garatu eta arauz ezarri haien funtzioak, eraketa zehatza eta funtzionamendu araudia.

1.6. Familiaren Behatokia arautzea

Familiari arreta eta laguntza emateko arau multzoko bigarren organoa Familiaren Behatokia da. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko Gizarteratze eta Familia Sailburuordetzaren Familia Zuzendaritzari atxikita dago.

Euskal Autonomia Erkidegoan familien errealitatea, egoera eta arazoak etengabe aztertzea da haren egitekoa, baita euskal familia-politikaren eragina aztertzea ere.

- **Betetze-maila**

Familiaren Euskal Kontseilua bezala, Familiaren Behatokia nola sortu eta arautu Familiari Laguntzeko Legearen IV. kapituluan dago ezarrita (II. Kapituluak; 34. Artikulua). Legea indarrean jarri eta 6 hilabete izango ditu jarduerekin hasteko, aipatutako legearen Hirugarren Xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

- **Aurrekontua gauzatzea**

Arauen garapenari ez dagokio aurrekontu zehatzik, Eusko Jaurlaritzaren funtzioetako bat baita.

- **Estaldura eta eragina**

Familiaren Behatokiaren zeregin nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan familien errealitatea, egoera eta arazoak etengabe aztertzea da, baita Familiari Laguntzeko Legearen ondorioz garatutako politiken eragina ere.

- **Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa**

Legeak Familiaren Behatokiaren funtzioak zehazten ditu, baina haren osaketari, funtzionamendu araubideari eta beste alderdi batzuei buruzko zenbait alderdi zabaltzeko eta zehazteko daude oraindik; Legeak ezarritakoaren arabera, 6 hilabeteren buruan zehaztu beharko dituzte horiek guztiak.

2. ildo estrategikoa: Seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoa ematea.

Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko I. Planean lehentasunezko neurria izan zen seme-alabak zituzten familiei laguntza ekonomikoak ematea. Neurri horien helburu nagusia seme-alabak izan eta hazteak dakarren zama arintzea zen, batez ere, familiek oraindik egonkortasun ekonomikorik lortu ez zuten kasuetan.

Familientzako laguntzaren esparruan funtsezko zeregina bete zuten, eta aurreko etapan estaldura handia lortu zuten, II. Planarekin neurri horiek asko hedatu dira eta protagonismo berezia lortu dute. Neurri horien estaldurak gero eta handiagoa izan behar du, onartu berri den Familiaren Legeak 2020rako ezarritako bateratasun europarra lortu arte.

Seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoen artean, bi programa mota bereizten dira: familiaren ardurapean dauden seme-alabengatiko laguntza-programa, batetik; hiru urtetik beherako haurrak dituzten familiei laguntzeko eta hiru urtetik beherako haurrentzako arretazentroen sarea sendotzeko diru-laguntza programa, bestetik; lehena Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak garatzen du, eta bigarrena, aldiz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak. Bi programek hobekuntza nabarmenak izan dituzte bigarren Planean; jarraian zehaztuko ditugu bai hobekuntza horiek, bai programen estaldura eta betetze-maila.

2.1. Familiaren ardurapean dauden seme-alabengatiko laguntza-programa. Aldizkako eta ezohiko laguntzak.

Laguntzak unibertsalak izan daitezen, bigarren Planak hainbat aldaketa egin ditu programa horretan, besteak beste: seme-alaba guztiengatik jasoko dira (baita lehenengo seme edo alabagatik ere); laguntza guztiak berdinduko dira, lotura edozein izanda ere (laguntzek adopzioak eta adopzio-aurreko harrerak ere estaliko dituzte); eta laguntza puntualak aldizkako bilakatuko dira. Hortaz, laguntzen programa honelaxe geratu da bigarren Planarekin:

- Lehen semea edo alaba: Pertsona orok jaso dezakeen laguntza puntuala da; zenbatekoa diru-sarreraren araberakoa da, 400 eurotik (Lanbide arteko Gutxieneko Soldata 6 bider gainditzen duten familien kasuan) 900 eurora bitarte (errenta Lanbide arteko Gutxieneko Soldata baino 4 bider txikiagoa duten familien kasuan).

2. ildo estrategikoa: Seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoa ematea.

- Bigarren semea edo alaba: Laguntza puntuala izatetik aldizkakoa izatera pasatu da, urteko bakarretik bira. Lehenengo urtekoa 1.100 eurokoa da, eta bigarrena 400 eurokoa.

- Hirugarren semea edo alaba eta hurrengoak: Bost urteko jaso beharrean zazpi jasotzen dituzte. Lehen bostak 1.100 eurokoak, eta azken biak 400 eurokoak.

- Erditze, adopzio edo adopzio-aurreko harrera anitzak: Lehen Planeko aldizkako laguntzak desagertu egin dira, eta haien ordeztazio bikoitzeko sistema bat dago 2006tik aurrera: batetik, seme-alaben kargu egiteagatik laguntzen sistema orokorrak aurreikusten dituen laguntza orokorrak, eta bestetik, beste laguntza berezi eta puntual bat, erditze, adopzio edo harrera anitzak sortzen dituen aparteko gastuei aurre egiteko. Laguntza-prestazioa denez, zenbatekoa familia-errentaren arabera da.

- Betetze-maila

255/06 Dekretuak (*erditzea, adopzioa edo adopzio-aurreko harrera direla-eta seme-alabak dituzten familientzako laguntza berriak arautzen ditu; 2007ko urtarrilaren 1etik dago indarrean*) familia mota guztiak hartzen ditu kontuan eta guztiei eskaintzen dizkie diru-laguntzak. Dekretu horri esker, familiaren ardurapean dauden seme-alabengatik laguntza ekonomikoen izaera unibertsala sendotu egin da (familia-errentaren arabera zenbatekoa ematen duten laguntza puntualetan ere pertsona orok du prestazio ekonomikoren bat jasotzeko eskubidea, diru-sarreraren maila edozein izanda ere). Nabarmenezkoa da estaldura ia unibertsala dela, izan ere, eskaeren %1,4k bakarrik jaso dute ezezkoa, eta gehienetan, eskaerak epezkantop aurkezteagatik edo erroldatze-baldintzak ez betetzeagatik gertatu da hori.

Eskatutako laguntza motaren arabera, honako hau da 2008an aurkeztutako eskaeren egoera: guztira 29.145 espediente erregistratu eta grabatu ziren 2008ko abenduaren 31ra arte; haien %98 ebatziak daude eta espedienteen %2 oraindik ebatzteke zeuden 2009ko urtarrilaren 20an.


2008an aurkeztutako eskaeren egoera, eskatutako laguntza motaren arabera

Mota	Guztira 2008						
	Guztira	Ezezkoa jaso dutenak	Baiezkoa jaso dutenak	Ebatziak	Ukapenezkoak	Onartuak	Ebatzteke daudenak
1. semea/alaba	11.155	220	10.626	10.846	84	225	309
2. semea/alaba	14.324	131	14.017	14.148	56	120	176
3. semea/alaba	3.009	41	2.905	2.946	22	41	63
Anitzak	657	10	627	637	4	16	20
Guztira	29.145	402	28.175	28.577	166	402	568

2. ildo estrategikoa: Seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoa ematea.

Ebatzi ziren espedienteetatik 28.175ek laguntza jaso zuten. Hona hemen banaketa, emandako laguntza motaren arabera:

Baiezkoa jaso duten espedienteen banaketa, laguntza motaren arabera



Oinarria: 2008an baiezkoa jaso zuten espedienteak.

2002-2008 bitartean eman ziren laguntzak alderatzen dituen taulak erakusten digu azken bi urteetan aldaketarik gabe eta antzeko parametroetan mantendu direla lehen seme edo alabarengatik emandako laguntzak; hori aldaketa funtsezkoa eta kualitatiboa izan zen aurreko Planarekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, bigarren eta hirugarren seme edo alabarengatik emandako laguntzen gorakada ere esanguratsua da; 2008ko laguntzen kopuruak bikoiztu egin zuen 2007koa.

Gorakada hori Lehenengo Planaren indarraldiaren azken urteetan hasi zen, eta laguntza gehienak zenbait urtetarako direlako eta atzera eraginezko izaera dutelako gertatu da; izan ere, atzera eraginezko izaerari esker, etorkinen eta beste autonomia erkidego batzuetatik etorritako biztanleen seme-alabak programan sartzen dira, urtebeteko eroldaren baldintza bete ahala.

Emandako laguntzak

Mota	Emandako laguntzen kopurua							II. PLANA guztira
	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008 ¹	
1.	0	0	0	0	8.123	10.687	10.626	29.436
2.	5.359	5.962	6.081	6.301	6.948	7.392	14.017	28.357
3.	3.768	1.138	1.159	1.228	1.322	1.563	2.905	5.790
Anitzak	2.208	447	412	444	474	551	627	1.652
Guztira	11.335	7.547	7.652	7.973	16.867	20.193	28.175	65.235

Oharra* Urtero ebatzitako espedienteen datuak, eskaera aurkezteko unea kontuan hartu gabe.

¹ 2008ko datuak. 2009ko urtarrilaren 20an zegoen gauzatzea.

2. ildo estrategikoa: Seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoa ematea.

Programaren onura jasotzen duten familien kopuruak nabarmen egin du gora, batez ere, 2006tik aurrera, lehen semea edo alabagatik ematen dituzten laguntzen ondorioz.


Eskatutako, ukatutako eta emandako laguntza ekonomikoaren kopuruaren bilakaera 2002-2008

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Eskatutako laguntza ekonomikoak	11.335	8.231	7.868	8.120	17.040	20.675	28.577
Ukatutako laguntza ekonomikoak	0	684	216	147	173	482	402
Emandako laguntza ekonomikoak	11.335	7.547	7.652	7.973	16.867	20.193	28.175

- Aurrekontua gauzatzea

Seme-alabak dituzten familientzako laguntzen 255/06 Dekretuari dagokion aurrekontutik 24.762.200,00 euro erabili ditu gobernuek 2008an, Euskal Autonomia Erkidegoan; zenbateko horri 176/02 Dekretuaren arabeko zabalkuntzari eta elbarritasunak onartzeari dagokion aurrekontutik gastatutako 571.200 euroak gehitu behar zaizkio. Beraz, seme-alabak zaintzeagatik eman diren laguntzetan gastatutako guztizko aurrekontua 25.333.400 eurokoa izan da, eta horrela banatu da lurralde historiko bakoitzeko gastua:

2008an seme-alabak jaiotzeagatik laguntzetan erabilitako aurrekontuaren banaketa, lurralde historikoen arabera




- Estaldura eta eragina

Laguntza ekonomikoak zabaldu eta hedatu egin ditu Familiei Laguntzeko II. Planak, eta lehen semea edo alaba jaiotzeagatik ere eskaintzen ditu. 2008an jaiotako haurrak jaiotze-hurrenkeraren arabera banatuz gero, haietatik erdia baino gehiago (%56,4) lehen semea edo alaba dela ikusiko dugu. Hori guztia

2. ildo estrategikoa: Seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoa ematea.

delata-eta, Planak estaldura-maila altua (%97)² lortu du, eta indarrean daraman hiru urteetan egonkortu egin du maila hori.

Seme-alaben jaiotze-hurrenkera



Oinarria: 2008an jaiotakoak.

Iturria: Eustat (2008ko lehen hiruhilekoa eta 2007a oinarri hartuta egindako bigarren hiruhilekoaren ebaluazioa).

Bestalde, 2008an laguntza jaso duten espediente berriak jaiotzagatik edo adopzioagatik izan ziren bereiziz gero (hau da, laguntza berriak), jaiotzagatik emandako laguntzen nagusitasuna garbia da tipologia guztietan (emandako laguntza guztien %98,6):


Jaiotzen eta adopzioen banaketa, 2008an seme-alabak zaintzeagatik emandako laguntzen artean

Mota	Jaiotza	Adopzioa	Guztira
Anitzak	%95,2	%4,8	499
1.	%98,5	%1,5	10.626
2.	%98,9	%1,1	7.309
3.	%98,7	%1,3	1.437
Guztira	%98,6	%1,4	19.871

² Seme-alabak jaiotzeagatik laguntza ekonomikoen estaldura kalkulatzeko 2008an jaiotako haurren eta urte berean jaio eta laguntzak eskuratu dituztenei dagozkien espediente berrien arteko zatiketa egin dugu, eta erditze anitzen kasuan bi haur kontatu ditugu.

2. ildo estrategikoa: Seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoa ematea.


Jaiotzen eta adopzioen banaketa. 2008an seme-alabak zaintzeagatik emandako laguntza guztien artean



Oinarria: 2008an EAEn seme-alabak zaintzeagatik emandako 19.871 laguntzak berriak.

Era berean, adopzio moten xehatzeak nazioarteko adopzioak gehiago direla erakusten digu, eta halako adopzioen ehunekoak nazioartekoak baino handiagoak dira tipologia guztietan eta hiru lurralde historikoetan; ehuneko horrek zertxobait egiten du behera hirugarren semearen edo alabaren kasuan:

Nazioarteko eta nazioarteko adopzioen banaketa, 2008an emandako laguntza berrien artean



Oinarria: 2008an EAEn seme-alabak zaintzeagatik emandako 19.871 laguntza berriak.

2. ildo estrategikoa: Seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoa ematea.

ARABA			
	Naziokoak	Nazioartekoak	Guztira
ANITZAK	%0,0	%100,0	%100,0
LEHENENGOAK	%0,0	%100,0	%100,0
BIGARRENAK	%0,0	%100,0	%100,0
HIRUGARRENAK	%100,0	%0,0	%100,0
GUZTIRA	1	40	41
BIZKAIA			
	Naziokoak	Nazioartekoak	Guztira
ANITZAK	%0,0	%100,0	%100,0
LEHENENGOAK	%9,8	%90,2	%100,0
BIGARRENAK	%21,2	%78,8	%100,0
HIRUGARRENAK	%30,0	%70,0	%100,0
GUZTIRA	19	131	150
GIPUZKOA			
	Naziokoak	Nazioartekoak	Guztira
ANITZAK	%16,7	%83,3	%100,0
LEHENENGOAK	%4,3	%95,7	%100,0
BIGARRENAK	%3,2	%96,8	%100,0
HIRUGARRENAK	%12,5	%87,5	%100,0
GUZTIRA	5	86	91
EAE GUZTIRA			
	Naziokoak	Nazioartekoak	Guztira
ANITZAK	%4,2	%95,8	%100,0
LEHENENGOAK	%6,9	%93,1	%100,0
BIGARRENAK	%10,0	%90,0	%100,0
HIRUGARRENAK	%26,3	%73,7	%100,0
GUZTIRA	25	257	282

- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa

Seme-alabak jaiotzeagatik jasotzen diren laguntza ekonomikoaren diseinuari dagokionez, lehen seme edo alabaren jaiotza, adopzioa edo adopzio-aurreko harrera dela-eta jasotzen diren laguntza ekonomikoak dira alderdi aipagarri nagusiak, eta aldaketarik izan dezakete. Legeak ezarritako bateratze europarra lortzeko, funtsezkoa da lehenengo seme edo alabarengatik ematen den laguntza hori puntual izatetik hainbat urtetarako izatera pasatzea, eta gutxienez bigarren, hirugarren eta hurrengo seme-alabengatik jasotzen diren laguntzen pareko, edo baita handiagoa ere, izatea. Gainera, mota horretako jaiotzak urtean izandako guztien erdia baino gehiago direnez (%56 inguru), laguntza horiek zabaltzen eta hedatzen diren neurrian, handiagoa izango da programaren estaldura.

Europarekin bat egiteko funtsezkoa izango da, baita ere, diru-sarreraren baldintza jaso beharreko zenbatekoa neurtzeko baremo moduan erabiltzeari uztea, gaur egungo joera, bidezkoagotzat daukatena, errentarekin zerikusirik ez duen laguntza unibertsala ematea baita.

2. ildo estrategikoa: Seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoa ematea.

Era berean, hurrengo planek eta dekretuek laguntza jaso dezaketenen adin-tartea zabaldu beharko dute apurka-apurka, eta bitarteko helburuak finkatu beharko dituzte, 2020rako ezarrita dagoen azken helburua lortu arte: adin-tartea 18 urtera arte zabaltzea, alegia.

Laguntzen balorazioa oso positiboa da, baina zenbatekoa ez denez oso handia eta iraupen mugatua dutenez, ez dute biztanleen jaiotza-aurreikuspenetan aldaketarik eragiten.

Familien ustez, laguntzei buruzko informazioa jasotzeko guneak (osasun-zentroak, amatasun arloa, erregistroak) oso eraginkorrak eta aproposak dira; hala ere, bada oharririk langileen informazio gehiago emateko gaitasunari eta aurretiko joerari buruz, informazio-liburuxkak banatu besterik ez baitute egiten. Egokia izango litzateke udalen eta bitartekarien parte-hartzea eta elkarlana sustatzea, laguntzen nondik norakoa eta haiek eskuratzeko jarraibideak ulertzea errazteko, eta programaren onura jasotzen duten familien gogobetetzea areagotzeko.

Bestalde, laguntza horien onura jasotzen duten gurasoekin egindako hainbat eztabaida-taldek erakutsi dute haiei buruzko ezagutza oso zabala dela, baina bereziki komunikabide informalen bidez. Horrek zenbatekoen, epeen, baldintzen eta laguntzak eskaintzen dituzten erakundeen gaineko nahasteak eragiten ditu maiz.

2. ildo estrategikoa: Seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoa ematea.

2.2. Hiru urtetik beherako haurrak dituzten familiei laguntzeko eta hiru urtetik beherako haurrentzako arreta-zentroen sarea sendotzeko diru-laguntzen programa.

Programa hori helburu hauek dituzten diru-laguntzen osagarria da: batetik, errenta txikienak dituzten familientzat seme-alabak haur-eskoletan sartzeko eragindako kostuen zati bat estaltzea xede duten diru-laguntzena; eta bestetik, familia horiei hezkuntzako etapa horretarako sarbidea mugatzea saihesteko xedea duten diru-laguntzena (izan ere, 0-3 urte bitartekoa laguntzeko zerbitzua da, eta eragin handia du gurasoek lan-merkatuan aritzeko duten aukeran, baita lana eta familia bateratzeko aukeretan ere). Diru-laguntzen helburua desberdintasun ekonomikoak haur-eskoletara sartzeko oztopo ez izatea da.

- Betetze-maila

Joan den ikasturtean, 0-3 urteko haurrak eskolaratzeko laguntzak jasotzeko aurkeztutako eskaerak %4 egin zuten gora, eta 9.000 eskaera baino gehiago izan ziren. Haietatik guztietatik, erdiak baino zertxobait gehiagok jaso zuten baiezkoa, eskaeren %50,9k, hain zuzen ere; ehuneko hori aurreko bi ikasturteetako baino zerbait txikiagoa da. 4.517 eskaerak jaso zuten ezezkoa (%41,9k) eta hauek izan ziren arrazoi nagusiak: errentak gainditzea eta atzera egitea edo dokumentazioa ez aurkeztea.

0-3 urte bitarteko eskolaratzerako baiezkoa eta ezezkoa jaso zuten eskaeren bilakaera³

Azalpena	2005-2006		2006-2007		2007-2008		Urtetik urterako igoera	
	K	%	K	%	K	%	Urtetik urterako aldea 07/08-06/07	Urtetik urterako aldea 07/08-05/06
Baiezkoa jaso dutenak	4865	%55,4	5281	%59,7	4690	%50,9	%-11,19	%-3,60
Ezezkoa jaso dutenak	3917	%44,6	3567	%40,3	4517	%49,1	%26,63	%15,32
Egindako eskaerak	8782	%100,0	8848	%100,0	9207	%100,0	%4,06	%4,84

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Zuzendaritza.

- Aurrekontua gauzatzea

Guztira 4.690 diru-laguntza eman ziren haur-eskoletarako eta aurrekontuko 4.125.346,50 € erabili ziren 2008an 2007-2008 ikasturterako. Diru hori horrela banatu zen lurralde historiko bakoitzean:

³ Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak emandako datuak.


2. ildo estrategikoa: Seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoa ematea.

2008an lurralde historiko bakoitzean egindako eskaeren nahiz baiezkoa eta ezezkoa jaso zuten eskaeren kopurua, eta horretarako erabilitako dirua

2008	Baiezkoa	Ezezkoa	Eskatuak	Aurrekontu gauzatua
Araba	418	742	1160	259670,09
Bizkaia	2935	2584	5519	2.642.745,04
Gipuzkoa	1337	1191	2528	1.222.931,37
EAE guztira	4690	4517	9207	4.125.346,50 €

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Familia Zuzendaritza.

2007-2008 ikasturtean 0-3 urte bitarteko eskolaratzerako emandako diru-laguntzen banaketa, lurralde historikoen arabera



Familiei Laguntzeko II. Planaren indarraldiak iraungo dituen gainerako bi urteetan 0-3 urteko haurrak eskolaratzeko diru-laguntzen gastua urteko 4.200.000 €-koa izango dela aurreikusi dute. Baliabide ekonomiko horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Aurrekontu Orokorretan urtero helburu horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik aterako dira.

- Estaldura eta eragina

0-3 urteko haurrak eskolaratzeko diru-laguntzen estaldura kalkulatzeko asmoz, harremanetan jarriko ditugu xede horretarako eskainitako laguntzak, eta adin-tarte horretan beteta dauden eskola-plazen kopurua. Horri esker ikusten dugu 2006-2007 ikasturtean tarte horretako ikasle guztien %18,7k izan zituztela laguntzak, eta 2007-2008 ikasturtean, berriz, laguntzen estaldurak behera egin zuela beteta zeuden plazen %16,6ra.

Gehieneko familia-errenta gainditzea izaten da laguntzak ukatzeko arrazoi nagusietako bat. Muga horiek seme-alaba kopurura haztatuta egon arren, ez dira aldatu edo zabaldu azken urteotan. Hori dela eta, komenigarria litzateke familien diru-sarreraren tarteak eta baremoak zabaltzea laguntzak familia gehiagok eskuratu ahal izateko, eta estaldura handitzea; horrela, neurriak errenta txikiak dituzten kolektiboetara ez ezik, maila ertain baxuko

2. ildo estrategikoa: Seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoa ematea.

familietara ere iritsiko lirateke, haiek ere seme-alabak goiz eskolaratzeko nahiz lana eta familia bateratzeko arazoak izan ohi dituzte eta.

Neurriak eskura ditzakeen publikoa zabaltzeak berekin ekarriko luke neurri horien estaldurari begirako asmo handiak onartzea, hondar izaera izatetik orokorragoak izatera pasatuko bailirateke. Hortaz, gai horren gaineko kexei erantzuna emango litzaieke, horretarako ondorio kaltegarriak ezabatuz, hala nola gizarte-egoera ahuleko taldeek bakarrik izan ditzaketen laguntzak direlako ustea, eta iritzi horrek erdi-mailako gizarte taldeetan sortzen duen atsekabea.

Bestalde, nabarmentzekoa da laguntza ezaguna izan arren (aurkeztutako eskaera kopuru handia da horren adibide), ezezkoa jasotzen duten eskaeren ehuneko handiek adierazten dutela laguntza lortzeko beharrezko baldintzen gaineko ezjakintasuna badagoela; ezjakintasun horren ondorioz, askok eskaera aurkezten dute onuradun suertatzeko aukera oso gutxi dituztela jakin arren.

- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa

Laguntzak eskuratu ahal izateko baldintzatzat ezarritako errentak zabaltzeaz gain, eta azken lau urteotan zenbatekoari eta diru kopuruari begirako aldaketak KPIa eguneratzera mugatu direnez, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzari atxikita dagoen, eta laguntzak kudeatzeaz eta emateaz arduratzen den Balorazio Batzordeak laguntza ekonomikoak handitzeko beharra azpimarratu du; horretarako beharrezkoa da aurrekontu-sail handiagoa, helburua erraz lortzeko eta kreditua handitu behar ez izateko.

Laguntzak emateko barne-hobekuntzak egiten ari dira, hala nola Web aplikazioa haur-eskolen kudeaketarako; baina, hala ere, ebazpen-prozesua eta laguntzen ordainketak azkarrago egin daitezzen, Balorazio Batzordea giza baliabidez eta baliabide tekniko hornitzeko beharra ikusten dugu. Gaur egun, prozesu hori guztia asko luzatzen da: eskaera otsailean aurkezten dute familiek eta urte bukaeran ebatzen da. Horrek familiak nahasten ditu, eta batzuetan, denbora horretan familien egoera aldatu ere egiten da.

Haur-eskolen eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren arteko komunikazioak eta harremanak oparoagoa behar luke. Izapideak eta ordainketak eskolen bidez egiten direnez, oraindik ere hobetu egin behar du haien eta Gizarte Ongizateko Zuzendaritzari atxikita dagoen Balorazio Batzordearen arteko informazio trukeak. Kolektibo hori ez da batere homogeneoa (familia desegituratuak, tratu txarrak pairatu dituzten emakumeak); kasuistika zabala eta anitza aurkezten du, eta batzuetan zailtasun kulturalak, eta baita hizkuntza-zailtasunak ere, izaten dira; horregatik, batzordearentzat funtsezkoa da bitartekarien eta eragileen laguntza jasotzea.

3. ildo estrategikoa: Lana eta familia bateratzea.

Illoaren funtsezko helburua gurasoek lana eta familia batera dezatela erraztea da, eta, era berean, seme-alabak eta mendeen dituzten familiarrak zaintzeari dagozkion lanetan parekotasuna eta berdintasuna bultzatzea. Laguntza ekonomiko hauen xedea familia zaintzeko lanaldia murriztea aukeratzen duten familiek izaten dituzten ondorio ekonomikoak arintzea da, eta aukera horrek ez dezala jardunbide profesionala geldiarazi, batez ere emakumeen kasuan, batzuetan lan-merkatua utzi behar izan baitute familia-erantzukizunez arduratzeko (beren ardurapean adingabeak edo mendekotasuna duten helduak zituztelako).

3. ildoak jarraian aztertuko eta ebaluatuko ditugun neurri hauek garatzen ditu nagusiki:

- 1. Seme-alabak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten besteren konturako langileentzako laguntza ekonomikoen programa.*
- 2. Inoren laguntza behar dutenak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten besteren konturako langileentzako laguntza ekonomikoen programa.*
- 3. Eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileen ordezkioak kontratatzeako enpresentzako laguntza-programa.*
- 4. 3 urtetik beherako haurrak zaintzeko zaintzaileak kontratatzeako laguntza-programa.*
- 5. Besteren kontura lan egiten dutenentzat indarrean dauden eszedentzia edo lanaldi-murrizketagatiko laguntza ekonomikoak norberaren konturako jarduera ekonomikoan diharduten pertsonentzat edo autonomoentzat ere hedatzea.*

3.1 Seme-alabak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten besteren konturako langileentzako laguntza ekonomikoen programa

- Betetze-maila

Programa 2002ko abuztuan jarri zuen martxan Familiei Laguntzeko Lehenengo Planak, eta aldaketa kuantitatibo handia izan du 329/03 Dekretua indargabetu eta 118/07 Dekretu berria indarrean dagoenetik. Dekretu berriak ezarritako prozedurak eta eskaerak aurkezteko moduak (eszedentzien eta lanaldi-murrizketen kasuan, espedienteak hiru hilez behin irekitzea eta ondoren ordaintzea) eragotzi egiten dute espedienteen guztizko kopurua aurreko urteetako kopuruarekin alderatzea. 2008ko ekitaldian lehen aldiz egon da dekretua indarrean urte osoz; guztira 26.933 eskaera izan dira eta 26.570 laguntza eman dira. Emandako laguntzen %40 espediente berriei dagozkie eta gainerakoak espedienteen hiru hilez behingo berritzeei.

188/07 Dekretu berriarekin, 2007-2008 ikasturteko eskaeren, emandako laguntzen eta ukatzeen kopurua.

	2007 ⁴	2008
Eskaerak	467	26.933
Emandako laguntzak	371	26.570
Ukatzeak	96	363
Ukatze-indizea	0,21	0,01

Erregistratutako ukatze-indize txikiak (dekretua indarrean dagoenetik, 0,21 2007ko azken epean, eta 0,01 2008an) adierazten dute laguntzak jasotzeko eskubidea duten langileek programa ezagutzen dutela. Hala ere, eskaerei ezezkoa emateko arrazoi nagusietako bat eszedentziaz edo murrizketaz gutxienez 59 egun jarraian baliatu izana eskatzen duen baldintza ez betetzea izaten da; beraz, laguntza jaso dezaketen onuradunek badute oraindik nolabaiteko nahastea aurreko dekretuarekin. Era berean, epez kanpo aurkezteagatik edo gutxieneko lanaldi-murrizketa (%33) ez eskatzeagatik ukatu dituzte espediente asko.

2007an eta 2008an programan sartu ziren egiazko onuradunak kalkulatzeko, beharrezkoa da eskaera berriak bakarrik hartzea, eta laguntzen hiru hilez behingo berritzeak bazter uztea.

2007aren amaieran eszedentziagatik eta lanaldi-murrizketagatik jasotako laguntza kopuruak nabarmen egin zuen behera, arauen aldaketa eta araudi

⁴ 118/07 Dekretua indarrean jarri ondoren aurkeztutako espedienteak bakarrik hartu ditugu kontuan.


3. ildo estrategikoa: Lana eta familia bateratzea.

berriak berekin zekarren laguntzak eskuratzeko sistema berria zirela-eta (eskaerak aurkeztean eszedentziaz edo lanaldi-murrizketaz gutxienez 59 egun baliatu izana eskatzen duen baldintza bete behar zuten eskatzaileek, eta, horren ondorioz, eszedentzia edo murrizketa 2007ko abuztuaren 4aren eta urriaren 1aren bitartean hasi zutenek bakarrik eskura zezaketen laguntza hori); 2008ko ekitaldia zenbatuta, honako hau ikusten dugu: dekretua urte osoz indarrean egon den lehenengo urtean 2006an emandako laguntzen kopurua mantendu egin dela; beraz, programa eta laguntzak sendotu egin dira.

Eskaeren, emandako laguntzen eta ukatzeen kopuruen bilakaera 2002-2008

	2002	2003	2004	2005	2005-2006	2006	2007 ⁵	2008 ⁶	2006-2008
Eskaerak	2.739	6.860	8.118	9.721	27.438	10.948	7.891	10.957	29.796
Emandako laguntzak	2.620	6.748	7.990	9.571	26.929	10.689	7.541	10.651	28.881
Ukatzeak	119	112	128	150	509	259	350	302	911
Ukatze-indizea	0,04	0,02	0,02	0,02	0,02	0,02	0,04	0,03	0,03

Bateratzeari eskainitako laguntzen bilakaera Eszedentziak eta lanaldi-murrizketak



- Aurrekontua gauzatzea

118/07 Dekretua indarrean sartu zenetik Familia Zuzendaritza da laguntza-programa horren arduraduna. Familia Zuzendaritzak 105.917 €-ko guztizko aurrekontua erabili zuen 2007ko ekitaldian, lehenago zehaztutako espedientei laguntza emateko; 2008an, berriz, gauzatutako gastua 11.161.762,30 €-koa izan zen, eta horrela banatu zen lurralde historiko bakoitzean: 2.476.830,48 € Araban, 3.336.665,64 € Gipuzkoan eta 5.348.266,18 € Bizkaian.

⁵ 329/03 Dekretuari eta 118/08 Dekretua indarrean sartzeari (2008ko uztailaren 1ean) dagozkien espedienteak zenbatu ditugu, hortaz, urteko hirugarren hiruhilekoko kontratatzeengatik laugarren hiruhilekoan emandako laguntzak bakarrik zenbatu daitezke.

⁶ Alderatu ahal izateko, bateratze espediente berriak bakarrik hartu ditugu.

3. ildo estrategikoa: Lana eta familia bateratzea.

Baina 118/07 Dekretuaren arabera Familia Zuzendaritzak gauzatu duen aurrekontuaz gain, Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzak ere erabili du bere dirua; izan ere, dekretu horretako behin-behineko xedapenak aitortzen du 329/03 Dekretuaren indarraldian aurkeztutako eta hitzartutako eskaerak ordaindu egin behar direla, eta horretarako Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzak 15.159.268 € erabili zituen 2006an, 17.181.426 € 2007an eta 3.352.606 € 2008an langileei bateratze-laguntzak emateko. Beraz, honako hau da langileentzako bateratze-laguntzen programarako erabili duten gastu guztia:


Familiei Laguntzeko Planaren lehen fasean (2006-2008) langileentzako bateratze-programan gauzaturako aurrekontua

	2006	2007	2008	Guztira
329/03 Dekretua (Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza)	15.159.268 €	17.181.426 €	3.352.606 €	35.693.299 €
118/ 07 Dekretua (Familia Zuzendaritza)		105.917 €	11.161.762 €	11.267.680 €
Langileentzako bateratze-programa guztira	15.159.268 €	17.287.343 €	14.514.368 €	46.960.979 €

- Estaldura eta eragina


Programaren onuradunek nahiago dute lanaldi-murrizketa, eta lehentasun hori nabarmen mantendu da azken bi urteetan, dekretu berriaren indarraldiarekin ere, lurralde historiko guztietan. Bi laguntza moten banaketaren ehunekoak xehatuz gero, ikus dezakegu emandako 10 laguntzetatik 8 lanaldi-murrizketei dagozkiela, eta, batez ere, %33-%40 bitarteko murrizketei (emandako 10 murrizketetatik 6 halakoak dira).

**Eszedentzien eta lanaldi-murrizketen banaketa, 2008an
baiezkoa jaso zuten espedienteen artean**



3. ildo estrategikoa: Lana eta familia bateratzea.

Adingabeak zaintzeko hartutako lanaldi-murrizketa motak, 2008an



Joera hori antzekoa da hiru lurralde historikoetan eta, oro har, ez dago ia desberdintasunik ez eszedentzien ehunekoetan ezta lanaldi-murrizketen ehunekoetan ere (azken horiena %80 ingurukoa da hiru lurraldeetan); aukeratutako murrizketetan, ordea, bada alderik.

Eszedentzien eta murrizketen banaketa, lurralde historikoaren arabera


	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira
ESZEDENTZIAK	%18,5	%19,6	%18,0	%18,6
MURRIZKETAK	%81,5	%80,4	%82,0	%81,4
Murrizketa %33-40	%44,6	%46,6	%50,8	%48,2
Murrizketa %40-44	%3,3	%4,5	%4,1	%4,1
Murrizketa >= %45	%33,6	%29,3	%27,1	%29,1
LANGILEAK GUZTIRA	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0

Lehenengo Planak abiarazi zuen Programa eta orduan, dagoeneko, antzeman genuen langileek eszedentzia baino nahiago zutela lanaldi-murrizketa. Lehtasun horrek programak berak eta, oro har, Plan guztiak lortu nahi duten helburua hurbilago izatea dakar. Murrizketa bizitza pertsonala nahiz familiarra eta lana bateratzea errazteko aukera eraginkorrena dela uste da, langileak lan-merkatua uztea eragozten baitu eta norberak nahi duen aukera erabakitzea ahalbidetzen baitu. Hala eta guztiz ere, lanaldi-murrizketen arrakasta erlatiboa da; hau da, langileek murrizketa aukeratzen dute eszedentzian daudenei programak ematen dien diru kopurua nahikoa ez dela uste dutelako (laguntzak jasotzen dituzten gurasoekin egindako eztabaida-taldeetan ateratako iritziak).

Programaren estaldura sexuaren arabera aztertuz gero, ikusiko dugu bateratze-laguntzen onura jasotzen duten gizonak oso gutxi direla, nahiz eta berdintasuna eta familia-eginkizunen bidezko banaketa sustatzeko ahaleginak egin eta neurriak hartu diren (lanaldia murriztea edo eszedentzia hartzea erabaki duten gizonen diru kopuru handiagoa eman zaie).

3. ildo estrategikoa: Lana eta familia bateratzea.

2008an baiezkkoa jaso zuten eszedentzia- eta murrizketa- espedienteak, sexuaren arabera



Eszedentzia eskatzen duten gizonen ehunekoa are txikiagoa da; Araban zertxobait handiagoa da, baina emakumeak dira, argi eta garbi, lana eta familia bateratzen dituztenak.

Eszedentzien eta murrizketen banaketa, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera

Tipologia	ARABA		GIPUZKOA		BIZKAIA		EAE GUZTIRA	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
ESZEDENTZIAK	%4,0	%96,0	%3,5	%96,5	%2,2	%97,8	%3,0	%97,0
MURRIZKETAK	%10,2	%89,8	%6,0	%94,0	%5,4	%94,6	%6,6	%93,4
Mur. %33-40	%10,9	%89,1	%6,7	%93,3	%5,9	%94,1	%7,1	%92,9
Mur. %40-44	%10,5	%89,5	%5,6	%94,4	%4,0	%96,0	%5,7	%94,3
Mur. >= %45	%9,4	%90,6	%4,7	%95,3	%4,6	%95,4	%5,8	%94,2
LANGILEAK GUZTIRA	%9,1	%90,9	%5,5	%94,5	%4,8	%95,2	%5,9	%94,1

- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa

Dekretu berriari esker ustez finkatu eta sendotu egin den programa den arren, Planak ez du konparaziozko parametririk, ezta zenbatu daitekeen helbururik ere, eta, hortaz, ezin da estaldura neurtu, ez laguntza motaren arabera ezta onuradunen sexuaren arabera ere; sexuaren araberrako neurketa funtsezkoa da etxeko lanen bidezko banaketa eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko. Komenigarria litzateke bete beharreko estaldura-mailak konpromisotzat hartzen dituen adierazle kuantitatiboen taula bat ezartzea. Horretarako, beharrezkoa litzateke, era berean, sail eskudunari dagozkion informazioaren bilketa eta espedienteen erregistroa egokitzea, bateratze-neurriak eskuratu dituzten familia moten arabera xehatze handiagoa egin ahal izateko, eta familien errealitatearen irudi garbiagoa lortzeko.

3. ildo estrategikoa: Lana eta familia bateratzea.

Dekretu berriak funtsezko aldaketa ekarri du diru-laguntzak estaltzen duen egoeraz 59 egunez baliatu izana eskatzen duen baldintzari dagokionez. Ebazpena eta laguntzaren ematea atzeratzeak eragindako zailtasunak eta gorabeherak (aurretik emandako eszedentziagatiko edo murrizketagatiko laguntzak itzultzea) konpontzen badituzte ere, eskaerak aldi behin berri beharrak nolabaiteko nahasketa eta nahigabea eragiten du laguntzen onuradun izan daitezkeenengan, lana eta familia bateratzeko aukeren oztopotzat baitituzte aldaketa administratibo horiek.

Laguntzen onuradun izan daitezkeen ustez, jasotzen diren laguntzen zenbatekoaren egokitasuna da, zalantzarik gabe, hutsune gehien dituen alderdia. Haien iritziz, zenbatekoa ez da nahikoa, eta ez du, inolaz ere, berez eragiten edo sustatzen jendea programaz baliatzea. Alderdi horri dagokionez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Planaren indarraldian pilatu den inflazio-tasari erreparatuz, badirudi beharrezkoa dela laguntza ekonomikoen zenbatekoa modu koherentean eta etengabe handitzea.

Gizonek familiako eginbeharretan parte har dezatela indartzea eta sustatzea helburu duen diskriminazio positiboak, hau da, egoera horiez gizonak balia daitezela erabakitzen duten familia-unitateei laguntza ekonomiko handiagoak emateak, ondorio baztergarriak ditu, etxeko lanen bidezko banaketa lortzeko neurri bakan bat dela eta sexuen arteko desberdintasuna agerian uzten duela uste baitu jendeak (laguntzak jasotzen dituzten gurasoekin egindako eztabaida-taldeetan ateratako iritziak).

3.2 Inoren laguntza behar dutenak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten besteren konturako langileentzako laguntza ekonomikoen programa.

- Betetze-maila

Bateratze-laguntzak arautzen dituen 118/07 Dekretuak aurkeztu duen beste berrikuntza nagusietako bat hauxe da: mendeko adingabeak zaintzeko eszedentzia eta lan-murrizketa hartzen dituzten langileei ematen zaizkien laguntza ekonomikoak eskaintzea mendeko heldu bat zaintzeak sortutako bateratze-zailtasunak gutxitzearren bi aukera horietako bat aukeratzen duten langileei ere. Neurri horri esker, Planaren onura familia-egoera anitzak dituztenek jasoko dute, langileek mendeko familia zaintzeko nola antolatu erabakitzeko aukera izango baitute.

Mendekotasun egoeran dauden Pertsonen Autonomia eta Laguntza Sustatzeko 39/2006 Legeak, abenduaren 14koak, lana eta familia bateratzeko aipatutako laguntza ekonomikoak jaso ditzaketen langileek mendean dituzten pertsonen mendekotasun-mailak ezartzen ditu.

Legeak ezarritakoaren arabera, familiek eskaera egiten dutenean mendekotasun-mailaren diagnostika eta balorazioa egitea Foru Aldundien ardura da. 118/07 Dekretua indarrean sartu zenetik, 2007ko uztailaren 30etik, hasi ziren haiek balorazio hori egiten. Gainera, adingabeak zaintzeagatiko laguntzetan bezala, diru-laguntza jaso dezakeen egoeraz (mendeko familia zaintzeko hartutako eszedentzia edo lanaldi-murrizketa) 59 egun baliatu izana eskatzen duen baldintza ere bete behar dute. Baldintza horren eta balorazioaren ondorioz, 2007an lau eskaerek bakarrik jaso zuten baiezkoa, hirugarren hiruhilekoan eszedentzian edo murrizketarekin zeuden langileek bakarrik izan zutelako laugarren hiruhilekoan laguntza eskuratzeko aukera, baldin eta zaindu behar zituzten familiarren mendekotasunaren balorazioa aurretik eginga bazuten.


3. ildo estrategikoa: Lana eta familia bateratzea.

Eskaerak, emandako laguntzak eta ukatzeak 2007-2008

	2007 ⁷	2008
Eskaerak	5	279
Emandako laguntzak	4	245
Ukatzeak	1	34
Ukatze-indizea	0,20	0,12

Horregatik, 2008a da programaren garapenari buruzko datuak eskaintzen dizkigun lehen urte osoa. Guztira aurkeztutako 279 eskaeretatik 245ek jaso zuten baiezkoa eta 34k ezezkoa, beraz, ukatze-indizea %12koa izan zen. Laguntzak ukatzeko arrazoi ohikoenak hauek izan ziren: eszedentziaz edo murrizketaz gutxienez 59 egun jarraian baliatu izana eskatzen duen baldintza ez betetzea, eskaerak epez kanpo aurkeztea edo zaindu beharreko familiarraren mendekotasun-mailaren ziurtagiririk ez izatea. Espediente berrien eta mantentze-espedienteen banaketari dagokionez, 10 espedientetik 4 izan ziren berriak, hau da, programaren onurak lehen aldiz jasotzen zituzten langileenak.

Mendeko pertsonak zaintzeko 2008an balezkoa jaso zuten espediente berriak eta mantentze-espedienteak



- Aurrekontua gauzatzea

2007a bukatzean erregistratutako eskaera kopurua oso txikia izan zenez, epe horretan Euskal Autonomia Erkidego osoan gauzatutako aurrekontua 1.122 €-koa izan zen; 2008an, berriz, zenbatekoa 106.018,44 €-koa izan zen Autonomia Erkidego osoan. Lurralde historikoen arabera xehatzeak honako hau erakusten digu: Araban 32.105,41 € erabili zituztela, Gipuzkoan 38.945,05 € eta Bizkaian 34.967,98 €.

⁷ 118/2008 Dekretua urte horretako uztailaren 1ean sartu zen indarrean, beraz, urteko hirugarren hiruhilekoko kontratatzeengatik laugarren hiruhilekoko emandako laguntzak bakarrik zenbatu daitezke.


3. ildo estrategikoa: Lana eta familia bateratzea.

- Estaldura eta eragina


Adinekoak zaintzeko bateratze-laguntzen estaldurari dagokionez, 2008an (programa indarrean egon den lehen urte osoan) laguntzen hiru laurden lanaldi-murrizketak izan dira eta lurralde historiko guztietan antzera banatu dira (Araba %32,4, Gipuzkoa %35,7 eta Bizkaia %32); lurralde historikoen populazioen arteko desberdintasuna kontuan hartuta, programa Araban Bizkaian baino bizkorrago ezartzen ari dela esan dezakegu.

Bestalde, 2008ko ekitaldian ere lanaldi-murrizketa izan da aukera nagusia (lau langiletik hiruk irtenbide hori aukeratu dute lana eta mendeko familiarrak zaintzea bateratzeko); murrizketen artean, %33 eta %40 bitartekoa izan da ohikoena.

Mendeko familiarrak zaintzeko eszedentzien eta lanaldi-murrizketen banaketa, 2008an baiezkoa jaso zuten espedienteen artean



Mendeko familiarrak zaintzeko lanaldi-murrizketa motak 2008an



Era berean, programa indarrean egon den lehen urte osoan laguntzek lurralde historikoen arabera izan duten banaketak honako hau erakusten digu: Bizkaian mendeko familiarrak zaintzeko eszedentzien ehunekoa handiagoa izan da EAEko batez bestekoa baino, eta lanaldi-murrizketei dagokienez, Araba izan da laguntza horiek hedatuenak izan dituen lurralde historikoa.

3. ildo estrategikoa: Lana eta familia bateratzea.

Eszedentzien eta murrizketen banaketa lurralde historiko bakoitzean

Tipologia	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	EAE GUZTIRA
ESZEDENTZIAK	%5,1	%31,0	%39,7	%25,4
MURRIZKETAK	%94,9	%69,0	%60,3	%74,6
Murrizketa %33-40	%50,6	%33,3	%33,3	%52,2
Murrizketa %40-44	%0,0	%5,7	%6,4	%5,5
Murrizketa >= %45	%44,3	%29,9	%20,5	%42,3
LANGILEAK GUZTIRA	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0

- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa

Mendekotasun Legea nahiz mendeko adinekoak zaintzeko bateratze-laguntzen programaren beraren berritasuna, eta Familien Plana hedatzeko kanpainen programan parte hartzeko berezitasunak eta baldintzak era bateratuan txertatzeko eta zabaltzeko zailtasunak direla eta, gaur arte, familien artean gainerako bateratze-neurriek baino ospe txikiagoa izan du programa horrek. Garbi geratzen da hori Familiari buruzko Inkesten bidez (%30 inguruk ezagutzen dute), baita modu kualitatiboan ere, neurrien onuradunei egindako elkarrizketa sakonen nahiz onuradun izan daitezkeen pertsonekin egindako eztabaida-taldeen bidez.


Onuradunen ustez, seme-alabak zaintzeko bateratze-laguntzak gurasoen lana erraztea helburu duten baliabide multzo baten barruan daude (haur-eskolak, eskolaratzeko diru-laguntzak, seme-alabak jaiotzeagatiko laguntza ekonomikoak, etab.), eta familiar helduak edo adinekoak zaintzeko, berriz, bateratze-neurriak ez dakar beste mota bateko laguntza ekonomiko zuzenik, edo talde horien arretan espezializatuta dauden zerbitzuen estaldura ziurtatuko duen laguntzarik. Hala ere, nabarmentzekoa da laguntza, neurri eta baliabide horiek izan badirela, baina ez direla Familiei Laguntzeko Planaren ardura, Mendekotasun Legeak edo Gizarte Zerbitzuen Legeak arautzen dituzten beste eremu batzuetan kokatuta baitaude.

3.3 Eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileen ordezkako kontratatzeako enpresentzako laguntza-programa.

Familiei Laguntzeko Erakundearen arteko I. Planean ere agertu zen eszedentziaz nahiz lanaldi-murrizketaz baliatzen diren langileak ordezkatzeko langabetuak kontrata ditzaten enpresek jasotzen dituzten laguntzen programa. Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzaren mende dago, eta hari esker, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duen langilearen ordezkako Gizarte Segurantzaren kotizatzen duenaren %100eko diru-laguntza jasotzen dute enpresek. Programa horrek bateratzea errazten du, adingabeak edo mendekotasuna duten helduak zaintzeko neurriez baliatzen diren langileak dituzten enpresei laguntza ematen baitie; hortaz, langileen bateratze-neurrien osagarritzat har daiteke.

- Betetze-maila:

Azken urtean, zertxobait behera egin dute enpresei emandako laguntza ekonomikoek; Planak indarrean daraman hiru urteetan langabetuak kontratatzeako 339 laguntza eman dira guztira.



Enpresei ematen zaizkien laguntza ekonomikoaren helburu nagusia lanaldi-murrizketa duten langileak ordezkatzeko da, eta horixe ikusten dugu hainbat urtetan baiezkoa jaso duten espeditentak diruz lagundutako egoeraren arabera nola banatzen diren aztertuz gero. Ehuneko hori espeditenteen erdia baino gehiago da kasu guztietan.⁸

⁸ Ezin dugu eszedentziaz edo lanaldi murrizketaz baliatzen diren langileen ordezkapen-indizearen estimaziorik egin, Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzako espediente bakoitza denbora jakin baterako kontratatutako edo berritutako langile bati baitagokio, eta horrek aldi berean bi langile ordezkari baititzake.

3. ildo estrategikoa: Lana eta familia bateratzea.

Eszedentziaz edo lanaldi-murrizketaz baliatzen diren langileak ordezkatzeko enpresei emandako laguntzen banaketa 2006-2008

Gauzatutako espedienteak	EAE GUZTIRA		
	2006	2007	2008
Eszedentzia	%43,5	%45,3	%37,2
Murrizketa	%56,5	%54,7	%62,8
Guztira	%100,0	%100,0	%100,0

Espediente motak lurralde historikoen arabera xehatuz gero, 2006 eta 2008 urteetan Gipuzkoan neurrien betetze-maila handiago izan zela ikus dezakegu, eta 2007an gauzatu ziren 10 laguntzako 4 Bizkaian jazo zirela:

Eszedentziaz edo lanaldi-murrizketaz baliatzen diren langileak ordezkatzeko enpresei emandako laguntzen banaketa, lurralde historikoen arabera, 2006-2008

		2006				
		ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	EAE GUZTIRA	
Guztira 2006	Eskatutako espedienteak	%22,0	%34,0	%44,0	%100,0	259
	Baiezkoa jaso zuten espedienteak	%18,0	%34,4	%47,7	%100,0	128
	Ezezkoa jaso zuten espedienteak	%26,0	%33,6	%40,5	%100,0	131
	Gauzatutako espedienteak 06	%15,9	%45,9	%38,2	%100,0	872
		2007				
		ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	EAE GUZTIRA	
Guztira 2007	Eskatutako espedienteak	%11,5	%44,4	%44,1	%100,0	322
	Baiezkoa jaso zuten espedienteak	%10,3	%48,1	%41,6	%100,0	233
	Ezezkoa jaso zuten espedienteak	%14,6	%34,8	%50,6	%100,0	89
	Gauzatutako espedienteak 07	%17,0	%38,4	%44,6	%100,0	453
		2008				
		ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	EAE GUZTIRA	
Guztira 2008	Eskatutako espedienteak	%11,9	%40,9	%47,2	%100,0	159
	Baiezkoa jaso zuten espedienteak	%15,8	%23,7	%60,5	%100,0	38
	Ezezkoa jaso zuten espedienteak	%10,7	%46,3	%43,0	%100,0	121
	Gauzatutako espedienteak 08	%22,0	%39,2	%38,8	%100,0	510

Oharra: aurreko urteetan hitzartutako espedienteen gauzatzea ere barne hartzen du.

3. ildo estrategikoa: Lana eta familia bateratzea.

- Aurrekontua gauzatzea

Familiei Laguntzeko II. Planaren lehen zatian 11.874.348,68 €-ko aurrekontua gauzatu da, guztira, aipatutako planean, eta datozen urteetarako (2008-2010) 6.000.000 €-ko ordainketa aurreikusten dute.


Eszedentziaz edo lanaldi-murrizketaz baliatzen diren langileak ordezkatzeko enpresei emandako laguntzen gastuaren bilakaera

	2006	2007	2008	Erabilitakoa 2002-2008
Bateratze-laguntzak Enpresak	2.283.782 €	2.324.743 €	1.311.227 €	11.874.349 €
329/03 Dekretua (2002 aurretik hitzartuak)				611.482 €
329/03 Dekretua (2003 aurretik hitzartuak)	63.879 €			1.809.666 €
329/03 Dekretua (2004 aurretik hitzartuak)	62.357 €	61.197 €		2.424.083 €
329/03 Dekretua (2005 aurretik hitzartuak)	579.598 €	36.937 €	52.708 €	1.966.042 €
I. Planean hitzartutako kredituak	705.834 €	98.134 €	52.708 €	6.811.273 €
329/03 Dekretua (2006 aurretik hitzartuak)	1.577.948 €	379.387 €	53.978 €	2.011.313 €
329/03 Dekretua (2007 aurretik hitzartuak)		1.847.222 €	379.417 €	2.226.639 €
II. Planaren gastua 2006-2007	1.577.948 €	2.226.609 €	433.395 €	4.237.952 €
329/03 Dekretua (2008)			825.124 €	825.124 €

- Estaldura eta eragina

Laguntza ekonomikoak enpresaren jardura-sektore nagusiaren arabera banatuz gero, alde nabariak antzematen ditugu: zerbitzu-enpresek jasotzen dituzte diru-laguntzen erdia baino gehiago; garraioan edo eraikuntzan diharduten sektoreek jasotzen dute, ordea, laguntza gutxien, batez ere, emakume gutxiago izaten dituztelako lanean eta, hain zuzen ere, emakumeak gehiago baliatzen direlako eszedentziaz eta, bereziki, lanaldi-murrizketaz (eskaeren %98 dira emakumeenak). Seme-alabak edo mendeko pertsonak zaintzeko eszedentziak eta lanaldi-murrizketak zenbatuta ikusiko dugu langile gutxik egiten duela aukera hori, eta hala egiten duten gehienak emakumeak direla.

3. ildo estrategikoa: Lana eta familia bateratzea.



Oinarria: 151 enpresa.

Emakumea lan-merkatuan sartu zenetik bere presentzia sustatzea helburu izan duten fase ugari eta aurrerapauso etengabeak etorri dira ondotik. Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa gehienetan emakumeek baino gizon gehiagok egiten du lana, bereziki Zuzendaritzako lanpostuetan, baita erdi-mailakoetan ere; gehienetan, postu horietan emakumearen presentzia ez da ia sumatu ere egiten. Jarduera-sektoreari erreparatuz gero, ostalaritzan, txikizkako merkataritzan edo zerbitzuetan diharduten enpresek, oro har, emakume gehiago izan ohi dute lanean.


Beren jardueraren garapenerako interesgarriak izan daitezkeen Laguntzen Programak ezagutzeko bide ofizialak erabiltzen dituzte, gehienbat, enpresek, hala nola aholkularitza, Web orria edo Eusko Jaurlaritzak enpresei egiten dien komunikazio ofiziala, eta gutxiagotan Agintaritzaren Aldizkaria. Prentsa eta enpresako langileak ere aipatu dituzte laguntzak ezagutzeko bideen artean.

Lanpostu-erreserba duten eszedentzia edo lan-murrizketa hartu dutenen ordeko langileak kontratatzeko laguntzen eskaera aurkezteko erabilitako bideei dagokienez, enpresa gehienek nahiago dute bide inbertsonal bat, adibidez, Eusko Jaurlaritzak Interneten daukan Web orria (%41,7). Bestalde, enpresen ehuneko txikiago baina garrantzitsu batek bide zuzena aukeratzen du eta nahiago du aholkularitza batera (%28,5) edo Eusko Jaurlaritzaren ordezkarietara (%24,5) jo.

Seme-alabak edo mendekotasun-egoeran dauden familiarrak zaintzeko eszedentziaz edo lanaldi-murrizketaz baliatu diren langileak ordezkatzeko Enplegu Zuzendaritzaren diru-laguntza jaso duten enpresek adierazitako balorazioa aztertuta, 10 puntutik 6,51 puntuko gogobetetze-maila ondorioztatu dugu. Hortaz, emaitza positiboa izan da, baina badago zer hobetu, esaterako, diru kopuruari edo ebazteko epeei dagokienez.

3. ildo estrategikoa: Lana eta familia bateratzea.

Enpresen batez besteko gogobetetze-maila, alderdi hauei dagokienez



Oinarria: 151 enpresa.

- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa

Enpresei laguntza ekonomikoak emateko programak aurre egiten die eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duenaren lanpostua denbora batez beteko duen langabetua kontratatzeak dakartzan Gizarte Segurantzako gastuei. Enpresek laguntza hori oso positiboa dela uste duten arren, diru kopurua ez dela nahikoa adierazten dute, ez baititu estaltzen kontratatutako pertsonak ordezkatuko duen lanpostuaren gaineko prestakuntza jasotzeak eta postu berrira egokitzeak sortzen dituen gastuak. Datu horrek eta erregistratutako ordezkapen-indize txikiek adierazten digute programak ez dituela kontratazio berriak bultzatzen.

Bestalde, enpresetan, diru-laguntzen programarekin batera, bateratze-neurriek, ordutegi-malgutasunerako formulek eta enpresak berak helburu horiek lortzeko irtenbideak langileen eskura jartzeak duten garrantzia nabarmentzea xede duten berriazko sentiberatze-programarik ez dagoela azpimarratu behar dugu. Enpresek administrazio publikoen ardurak bakarrik dela uste dutenez, haien inplikazioa oso txikia da, eta, hori dela eta, komenigarria litzateke mota horretako neurriak garatzen dituzten enpresak *saritu* edo diruz lagunduko dituzten programa zehatzak ezartzea.

3.4. 3 urtetik beherako haurrak zaintzeko zaintzaileak kontratatzeako laguntza-programa.

Eskolara joaten ez diren 3 urtetik beherako haurrak zaintzeko zaintzaileak kontratatzea erabakitzen duten familiei laguntza ekonomikoak ematea izan da Familiei Laguntzeko II. Planaren beste neurri berrietako bat. Zenbatekoa kontratatutako pertsonak Gizarte Segurantzaren kotizatzen duena ordaintzeko erabiltzen da eta familia-errentaren arabera modulatu da; laguntza hori gutxienez hiru hilabeterako eskatu ahal izango dute familiek, haurrek eskolara joateko adina izan arte (aurreko abuztua barne). Zenbatekoa Gizarte Segurantzaren kuotaren %50-%100 bitartekoa izaten da, familia-errentaren arabera.

- Betetze-maila

118/2007 Dekretua indarrean sartu zenean abiarazi zuten, programa oso berria da, eta gainera, bateratze-laguntzen kasuan bezalaxe, eskaerak aurkezteko epearen lehenengo eguna baino lehen (2007ko urriaren 1a), zaintzailea gutxienez 59 egunez kontratatu izana eskatzen duen baldintza dauka; hori guztia dela-eta, 2007an ia ez zen eskaerarik jaso eta eman. 2008ko eskaerei esker, berriz, programaren betetze-mailari dagokion balorazioa egin dezakegu: 2008an 435 laguntza eman ziren; horien %28 zaintzaileen kontratazio berriak izan ziren eta gainerakoak mantentze-eskaerak (berritzeak), beraz, programaren hedapena oraindik urria dela esan dezakegu.

Zaintzaileak kontratatzeako eskaeren, emandako laguntzen eta ukatzeen kopurua 2007-2008

	2007 ⁹	2008
Eskaerak	39	487
Emandako laguntzak	34	448
Ukatzeak	5	39
Ukatze-indizea	0,87	0,92

Laguntzak lurralde historikoen arabera banatzean ikusten dugu programak ezarpen handiagoa duela Bizkaian, bertakoak baitira zaintzaileak kontratatzeako emandako espedienteen erdia baino gehiago; datu hori bat dator lurraldearen populazio-tasarekin:

⁹ 2008ko uztailearen 1ean 118/2008 Dekretua indarrean sartu zen; hortaz, urteko hirugarren hiruhilekoko kontratatzeengatik laugarren hiruhilekoko emandako laguntzak bakarrik zenbatu daitezke.

3. ildo estrategikoa: Lana eta familia bateratzea.

Lurralde historiko bakoitzean zaintzaileak kontratatzeko emandako laguntzak

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	GUZTIRA
2007	%14,7	%35,3	%50,0	34
2008	%15,7	%25,7	%58,6	452

- Aurrekontua gauzatzea

Planaren indarraldiaren lehen fasean 108.574 € erabili dituzte programa hori gauzatzeko, eta zenbateko hori honela xehatzen da lurralde historikoen eta urteen arabera:

Lurralde historiko bakoitzean gauzatutako aurrekontua

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	GUZTIRA
2007	656 €	1.631 €	1.917 €	4.204 €
2008	14.099 €	21.938 €	46.857 €	82.893 €

- Estaldura eta eragina

EAEn bizi diren 0-2 urte bitarteko haur kopurua eta 2007an nahiz 2008an kontratatutako zaintzaileak kontuan hartuta, zaintzaileen estaldura %0,1 izan zen 2007an eta %0,2 2008an; beraz, gutxi dira lana eta familia bateratzeko irtenbide hau aukeratzen duten familiak.

- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa

Zaintzaileak kontratatzeko laguntza adingabeak zaintzeko eszedentzia nahiz lanaldi-murrizketa edo haurra haur-eskolara joatea moduko beste neurri batzuekin bateraezina izateak, baita zaintzaile lanetan diharduten langile asko Gizarte Segurantzaren erregistratuak ez egoteak ere, hein handi batean eragozten dute programaren hedapena.

Bestalde, 0-3 urte bitarteko haur-eskolen estaldurari zegozkion hutsuneak betetzeko asmoz sortutako programa osagarria denez, haren ezarpen-mailek lotura zuzena dute adin-tarte horretako eskolen arrakastarekin eta estalduraren areagotzearekin.

3.5. Besteren kontura lan egiten dutenentzat indarrean dauden eszedentzia edo lanaldi-murrizketagatiko laguntza ekonomikoak norberaren konturako jarduera ekonomikoan diharduten pertsonentzat edo autonomoentzat ere hedatzea.

Beren lanposturako beste pertsona bat kontratatzea eskatzen dien baldintza betetzen duten langile autonomoek bateratze-laguntzak jaso ahal izatea xede duen neurria ezin izan da gauzatu oraindik, lan autonomoari buruzko Estatutuaren 20/2007 Legearen arauzko garapena eta zehaztapena egiteke baitaude. Hain zuzen ere, Estatutu horrek zenbait irtenbide eskainiko ditu laguntzak norberaren konturako jarduera ekonomikoan diharduten langileentzat nahiz enpresa txikietako titularrentzat hedatzeko, eta horretarako langile horiek besteren kontura lan egiten dutenekin nahiz kooperatiba elkarreetako langile bazkideekin edo lan-bazkideekin parekatuko ditu, horiek dagoeneko neurriez baliatzen baitira.

Oro har, bai familiek bai sindikatu eta enpresetako ordezkariak egindako ekarpen kualitatiboek adierazten dute hedapena egokitzea dutela, betiere langile horiek laguntzak jaso ahal izateko baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko oinarriak eta kontrolerako tresnak erabat finkatuta badaude.

3.6. Familiari buruzko 2008ko Inkestaren emaitzak

Familiaren Behatokia sortu arte, Familiari buruzko 2008ko inkesta izan da euskal familien errealitatea ezagutzeko bidea. Inkesta 4.880 etxetan egin da eta II. Planak jasotzen dituen adingabeak zaintzeko nahiz lana eta familia bateratzeko laguntzen ospeari, erabilerari eta balorazioari buruzko galderak izan ditu. Hona hemen emaitza nagusiak:

Oro har, laguntzen berri dutenen kopuruak ez du inolaz ere gainditzen inkestari erantzun diotenen erdia, eta neurri ezezagunena 3 urtetik beherako haurrak zaintzeko zaintzaileak kontratatzekeo diru-laguntzena da.

Laguntza horiek ezagutzen dituzten familiek gehien eskatzen duten laguntza ekonomikoa seme-alabak izateagatik ematen dena da (%18,8); gainerako laguntzek, bereziki kontratazioarako diru-laguntzak eta mendeko familiarrak zaintzeko eszedentziak nahiko erabilera xumea islatzen dute.

Balorazioei dagokienez, inkestari erantzun diotenen ustez laguntza horiek ez dira izan zitezkeen bezain positiboak; hala ere, kontuan hartu behar dugu taulan agertzen diren azken 3 laguntzen oinarriak nahiko txikiagoak direla (6,9 eta 14 hurrenez hurren), hortaz, balorazioak ez dira eztaba daezinak.

Familiaren Planaren laguntzak	Laguntzaren berri dute	Laguntza erabiltzen dute	Gogobetetzetik eza
Seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoa	%39,1	%18,8	%45,3
3 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko eszedentzia	%40,7	%4,4	%34,5
6 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa	%41,4	%7,4	%29,5
3 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko zaintzailea kontratatzekeo diru-laguntza	%19,4	%0,6	%50,0
Mendeko familiarrak zaintzeko eszedentzia	%31,1	%0,6	%33,3
Mendeko familiarrak zaintzeko lanaldi-murrizketa	%30,7	%0,9	%21,4

Ohar metodologikoa: laguntzaren berri dutenen oinarria 4.880; laguntzak erabiltzen dituztenen oinarria, haien berri dutenak.

Gogobetetzetik eza zutabeko ehunekoek laguntzaren berri duten, laguntza jaso duten eta hura “urria” dela edo “gutxi lagundu diela edo ez diela batere lagundu” erantzun duten pertsonen erantzunak islatzen dituzte.

3. ildo estrategikoa: Lana eta familia bateratzea.

Laguntzen onura jaso duten familien ezaugarriak kontuan hartuta ondoriozta dezakegu onura gehien jaso dutenak guraso bakarrekoak, gurasodunak, nukleo anitzekoak eta zenbait kasutan ezkontza ondokoak izan direla. Taula honetan informazio horren xehetasunak ageri dira:

Erabiltzaileak	Laguntza ekonomikoak	Seme-alabak zaintzeko eszedentzia	Seme-alabak zaintzeko murrizketa	Kontratazioarako diru laguntza	Mendekoak zaintzeko eszedentzia	Mendekoak zaintzeko murrizketa
Persona bakarreko etxea	%0,4	-	-	-	%0,5	%0,5
Familiaz kanpoko bizikidetz-unitatea	-	-	-	-	-	-
Familia-gunerik gabeko ahaideak	-	-	-	-	-	-
Gurasotasun aurreko familiak	-	-	-	-	-	-
Mendeko seme-alabak dituzten guraso-familiak	%38,9	9,0%	14,5%	1,3%	%0,5	%1,1
Mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso-familiak	-	0,6%	-	-	%1,4	%0,7
Gurasotasun ondoko familiak	%1,2	-	0,4%	-	%0,4	%1,7
Mendeko seme-alabak dituzten ezkontza ondoko familiak	%14,5	3,1%	7,6%	2,3%	-	-
Mendekoak ez diren seme-alabak dituzten ezkontza ondoko familiak	%2,4	-	-	-	%2,8	-
Mendeko seme-alabak dituzten ezkontzaz kanpoko ama- edo aita-familiak	-	-	40,0%	-	-	%33,3
Mendekoak ez diren seme-alabak dituzten ezkontzaz kanpoko ama- edo aita-familiak	%50,0	-	-	-	-	-
Familia polinuklearrak	%30,8	3,7%	21,4%	-	-	-
Guztira	%18,8	4,4%	7,4%	0,6%	%0,6	%0,9
Oinarria	1.910	1.986	2.019	948	1.518	1.498

4. ildo estrategikoa: Familiei Laguntzeko Zerbitzuak.

Ildo estrategiko honek familiei laguntzeko neurri eta zerbitzu guztiak bateratzea du helburu, neurriak eta zerbitzuak finantzatzen eta kudeatzen dituzten erakundeak eta neurrien eta zerbitzuen bidez asetzen diren beharrianak edozein direla ere. Administrazioaren esku-hartze guztiek eragin zuzena edo zeharkakoa dute pertsonengan, eta azken batean, familia-unitateetan, baina ildo honetan familien beharrianak asetzea helburu duten zerbitzuak bakarrik hartuko ditugu kontuan. Beraz, familiako kide zehatz bati laguntzeko zerbitzuak alde batera utziko ditugu, banakako beharrianak asetzen dituztelako.

Familiei laguntzeko zerbitzuak lau arlo hauetan bana daitezke: Familia, Hezkuntza, Etxebizitza, eta Familiarentzako Gizarte Zerbitzuak. Jarraian, Familiei Laguntzeko II. Planaren indarraldian arlo bakoitzean egin diren aurrerapauso nagusiak berrikusiko eta zehaztuko ditugu.

1.1. Familiei Laguntzeko Legea


4.1. Familia

- Betetze-maila

1. Familia Ugariaren Tituluak:

Euskal Autonomia Erkidegoan familia ugariaren 15.560 titulu daude gaur egun, eta beraz, kopurua %9 handitu da 2007az geroztik. Ia titulu guztiak kategoria orokorreko familia ugarienak dira; hots, 3 edo 4 seme-alaba dituzten familienak. Tituluen %5, berriz, kategoria bereziko familia ugarienak dira (5 seme-alaba edo gehiago dituzten familiak).

Familia ugariaren tituluen banaketa, kategoriaren arabera
(2008)



4. ildo estrategikoa: Familiei Laguntzeko Zerbitzuak

Bestalde, familia ugariaren titulua duten pertsonen legez dagozkien deskontuak eskatu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzak familia ugariaren txartelak egiten ditu. 2007ko apirilaz geroztik familiako kide bakoitzak eska ditzakeen ziurtagiriak dira, hain zuzen.

2. Izatezko Bikoteen Erregistroa:

Izatezko Bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legea indarrean sartu zenetik gaur egunera arte, Euskal Autonomia Erkidegoan 13.929 bikote erregistratu dira. Gainera, 386 espediente izapidetze-fasean daude; 160 espediente ez dira onartu, baldintzak betetzen ez zituztelako (lehendik ezkondua egotea edo adingabea izatea); 843 espediente artxibatu egin dira, agiriak epearen baitan ez aurkezteagatik; 34 atzera bota dira, bikoteek hala eskatu dutelako; eta 1.402 baliogabetu egin dira.

	Kasuak	Ehunekoak
Onartu	13.929	%83,1
Izapidetze fasean	386	%2,3
Ezeztatu	160	%1,0
Artxibatu	843	%5,0
Atzera bota	34	%0,2
Baliogabetu	1.403	%8,4
Eskari guztiak	16.755	%100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

3. Familia Ugarietzako Gida:

2008ko apirilean, 2007ko ebaluazioan aurreikusitako moduan, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak “Familia Ugarietzako Gida, 2008-2009” argitaratu zuen (20.000 ale), Hirukideren laguntzarekin. Bertan, Euskadiko familia ugari guztien esku dauden neurriak eta tresnak zehaztu dira, eta gainera, familia ugarietako kide direla egiaztatzen duten pertsonen produktuen edo zerbitzuen prezioetan deskontuak egiten dizkieten enpresak eta entitateak (%5 eta %20, gutxi gorabehera) zerrendatu dira. Gidaliburua sarean dago (www.euskadi.net/familia), eta bertako edukiak eguneratuta daude. Gainera, bertan adierazita dauden deskontuak gidaliburua indarrean dagoen bitartean egingo dira (2009).

- Aurrekontua gauzatzea

Planaren indarraldiko lehenengo hiru urteetan, Eusko Jaurlaritzak 109.439 €-ko gastua egin du familia ugariaren txartelak egiteko. Familia ugariaren tituluak, berriz, Foru Aldundiek ematen dituzte, eta dagokion aurrekontu-kostua kalkulatu gabe dago; izan ere, kostu hori Foru Aldundietako gastu orokorretan sartuta dago. Gauza bera gertatzen da Izatezko Bikoteen

4. ildo estrategikoa: Familiei Laguntzeko Zerbitzuak


Erregistroarekin, eta bertako aurrekontu-zuzkidura Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko gastu orokorretan sartuta dago.

- Estaldura eta eragina

Kalkuluen arabera, familien %10 familia ugariak dira (10etik 1), eta beraz, guztira 20.000 bat familia ugari daude. Gainera, familia ugarien %22, gutxi gorabehera, erregistratu gabe daude, eta ondorioz, dagozkien abantailak ez dituzte aprobetxatzen.

Bestalde, familia ugariaren titulua duten familia gehienak Bizkaikoak dira (%45). Hori guztiz logikoa da, Bizkaia baita biztanle gehien dituen lurralde historikoa.

Familia ugariaren tituluen banaketa. lurralde historikoaren arabera (2008)



Era berean, gero eta gehiago dira familientzako baliabideen gidaliburuan adierazita dauden deskontuak eskaintzen dituzten enpresak eta entitateak, eta beraz, deskontuok indartzen ari direla eta familia ugari askok erabiltzen dituztela esan dezakegu.

4. ildo estrategikoa: Familiei Laguntzeko Zerbitzuak

Izatezko bikoteei dagokienez, erregistratu diren bikoteen %8 baliogabetu egin dira. Dena den, kontuan hartu behar dugu kasu batzuetan ezkondu ahal izateko baliogabetzen direla izatezko bikoteak. Izatezko bikoteak honela banatuta daude, lurralde historikoaren arabera: 7.504, Bizkaian; 4.153, Gipuzkoan; eta 2.272, Araban.

	Kasuak	Ehunekoa
Araba	2.272	%16,3
Bizkaia	7.504	%53,9
Gipuzkoa	4.153	%29,8
Erregistratutako izatezko bikoteak	13.929	%100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa

Familia-eredu guztiak ordezkatzeko dituzten elkarteak nabarmen konprometitu dira Familia Zuzendaritzarekin eta Familiei Laguntzeko II. Planarekin, nola programa espezifikoak gauzatzeko, hala Plana dinamizatzeko bileretan beste gizarte eragile batzuekin batera modu aktiboan parte hartzeko.

4.2. Hezkuntza

- Betetze-maila

Familiei laguntzeko baliabideen ildoan, 0-2 urteko haurrentzako hezkuntza funtsezko arloa da. Etapa horretan hezkuntza eta artapena uztartzen dira, eta familiei nabarmen laguntzen zaie, familia eta lana bateragarri egin ahal izateko.

Hala, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Planaren esparruan hartu duen konpromisoa argia da: urtero 1.000 plaza sortzea sare publikoan, eta 2008-2009 ikasturtean 1.160 plaza gehiago eskaintzea.

Aurreikusitako plaza kopurua eta hazkundera

	Plaza Publikoak 2007-2008	Plaza Publikoak 2008-2009	Aurreikusitako hazkundera
0 urte	1920	2320	400
1 urte	2782	3380	598
2 urte	10890	11052	162
Guztira	15592	16752	1160

Ikasturtean zehar plaza kopurua pixkanaka handitzea aurreikusten bada ere, egiazko hazkundera 1.090 plazakoa izan da. Nabarmentzekoa da, bereziki, urte 1eko eta 2 urteko haurrei begira egindako ahalegina, Planean aurreikusita zegoen moduan.

Egiazko plaza kopurua eta hazkundera

	Plaza Publikoak 2007-2008	Plaza Publikoak 2008-2009	Egiazko hazkundera
0 urte	1694	1920	226
1 urte	2596	3132	536
2 urte	10998	11326	328
Guztira	15288	16378	1090

Hurrengo taulan ikus dezakegun moduan, aurreikusita zeuden plazak eta egiaz sortu direnak ez datoz guztiz bat, batik bat 0 urteko haurren kasuan. Hala ere, 2 urteko haurrentzat plaza gehiago sortu dira, eta ondorioz, hezkuntza-etapa guztiak batera hartuz gero, aldea ez da hain handia. Are gehiago kontuan hartzen badugu ikasturtean zehar beste ikastetxe batzuk irekitzea

4. ildo estrategikoa: Familiei Laguntzeko Zerbitzuak

aurreikusten dela (haur-eskolen partzuergoaren baitan). Hala, ikasturtean zehar ere plaza kopurua handitu egingo da.

Aurreikusitako eta egiazko hazkundearen arteko aldea

	Aurreikusitako hazkundera	Egiazko hazkundera	Aldea
0 urte	400	226	-174
1 urte	598	536	-62
2 urte	162	328	166
Guztira	1160	1090	-70

Hurrengo taulan 2008-2009 ikasturterako plaza kopurua adierazi dugu (Planak aurreikusten zuen kopurua eta egiazkoa), ikastetxe motaren arabera (publikoak -hiru mota- eta pribatuak) eta hezkuntza-etaparen arabera. Era berean, eskolatu daitezkeen haur kopurua ere adierazi dugu (2008ko, 2007ko eta 2006ko lehenengo 8 hilabeteetan jaiotako haurrak).

Aurreikusi, eskaini eta okupatu diren plazak, eta eskolatu daitezkeen haurrak (2008)¹⁰

		AURREIKUSITAKO PLAZAK	EGIAZKO PLAZAK	OKUPAZIOA	Eskolatu daitezkeen haurrak
PARTZUERGOA	0 urte	2.304	1.904	956	-
	1 urte	3.354	3.106	2.492	-
	2 urte	198	166	152	-
UDAL-ESKOLAK	0 urte	552	480	497	-
	1 urte	1.352	1.352	1.299	-
	2 urte	1.566	1.314	1.136	-
PUBLIKOAK	0 urte	16	16	12	-
	1 urte	26	26	22	-
	2 urte	10.854	11.160	9.355	-
PUBLIKOAK GUZTIRA	0 urte	2.872	2.400	1.465	-
	1 urte	4.732	4.484	3.813	-
	2 urte	12.618	12.640	10.643	-
ETAPA GUZTIAK (PUBLIKOA)		20.222	19.524	15.921	
PRIBATUAK GUZTIRA	0 urte	1.536	1.928	1.853	-
	1 urte	3.370	4.394	4.191	-
	2 urte	8.316	8.676	7.962	-
ETAPA GUZTIAK (PRIBATUA)		13.222	14.998	14.006	-
GUZTIRA	0 urte	4.408	4.328	3.318	13.697
	1 urte	8.102	8.878	8.004	20.546
	2 urte	20.934	21.316	18.605	20.023
ETAPA GUZTIAK		33.444	34.522	29.927	54.266

Taulan ikus daitezkeenez, 0-2 urteko balizko eskaria 54.000 plazakoa da¹¹. Egiazko eskaintza, berriz, 34.000 plazatik gorakoa da, eta 2008an ia 30.000 plaza okupatu ziren.

¹⁰ 0-1 tartean urteko azkeneko 8 hilabeteetako jaiotzak bakarrik hartuko ditugu kontuan.

¹¹ 2007ko eta 2008ko jaiotzak Eustateko behin-behineko datuetan oinarrituta kalkulatu ditugu.

- Aurrekontua gauzatzea

Hezkuntza Sailak 171.159.966 €-ko guztizko gastua egin du EAEko haur-
eskolen sarea indartzeko, eta Planaren indarraldiko gainerako bi urteetarako
156.083.904 €-ko gastua aurreikusten du. Zenbateko horren bidez honako
hauek egingo dira: gelak sortu eta haur-eskolen partzuergoan sartu, eta udal-
eskoletarako eta eskola pribatuetarako diru-laguntzak eman.

	2006	2007	2008
Haur-eskolen partzuergoa	15.568.022 €	20.761.456 €	28.053.956 €
Udal haur-eskolak	10.141.994 €	9.962.175 €	10.610.306 €
Ikastetxe pribatuak	20.110.417 €	24756859 €	31.194.781 €
Haur-eskola guztiak	45.820.433 €	55.480.490 €	69.859.043 €

- Estaldura eta eragina

Aurreikusitako plazak, egiazko plazak, eta eskolatu daitezkeen haurrak kontuan hartuta, honako indize hauek ezar daitezke, adierazle gisa:

- Aurreikuspenekiko egokitzapen-indizea: Plazen egiazko eskaintza eta Familiei Laguntzeko Planean 2008-2009 ikasturterako egindako aurreikuspenak erlazionatzen ditu. Aurreko urtean bezalaxe, indizea 1etik gorakoa da, eta beraz, aurreikuspenak bete direla esan daiteke; hala, eskainitako plaza kopurua aurreikusitakoa baino handixeagoa da.
- Plazen okupazio-indizea. Egiazko plaza kopurua eta ikasturte hasierako okupazio-maila erlazionatzen ditu. Sare pribatuko okupazio-indizea 0,81ekoa da, eta indize orokorra, berriz, 0,86koa da; hala, indizeak aurreko ikasturtekoen antzekoak dira, edo handixeagoak. Guztizko plaza kopuruaren %86 okupatu da, eta beraz, badirudi eskainitako plaza kopurua nahikoa dela. Dena den, zona batzuetan eskaintzaren eta eskariaren arteko aldea handiagoa da, aurrerago ikusiko dugun moduan.
- Balizko eskariaren estaldura-indizea. Eskainitako plaza kopurua eta eskolatu daitezkeen haur kopurua erlazionatzen ditu, etapa bakoitzean eta oro har. Ikus dezakegunez, 64 plaza eskaintzen dira eskolatu daitezkeen 100 haurreko, eta oraindik ere zenbait desberdintasun daude adinaren arabera. Hala ere, 2-3 urteko haurren kasuan estaldura erabatekoa da (edo baita balizko eskaria baino handiagoa ere). Aldiz,

4. ildo estrategikoa: Familiei Laguntzeko Zerbitzuak

1-2 urteko eta 0-1 urteko haurren kasuan, estaldura txikiagoa da; %43 eta %32, hurrenez hurren. Dena den, 1-2 urteko eta 0-1 urteko estaldurak aurreko ikasturtekoak baino hobeak dira, Planean ezarrita dauden helburuei jarraiki.

Sare publikoa eta pribatua banaka aztertuz gero, sare publikoak adin-tarte guztietan pisu handiagoa duela ikus dezakegu. Beraz, esan dezakegu sare publikoa dela eskaria asetzen gehien laguntzen duena.

- Eskolatzetasa. Eskolatutako haurren proportzioa. Adierazle honek ere eskariaren estaldura-maila neurtzea ahalbidetzen du, baina dena den, ezin da jakin 0-3 urteko zenbat haur eskolatzeko eskaria egin den. Eskolatu daitezkeen haurren %50 bat eskolatzeko direla kontuan hartuta, balizko eskariaren estaldura-indizea %56tik gorakoa dela kontuan hartuta, eta okupazio-indizea (%86) aurreko ikasturtekoaren antzekoa dela kontuan hartuta (%100ekoa balitz eskaintza eskaria baino txikiagoa dela esan nahiko luke), hezkuntza- eta artapen-eskaintza egokia dela eta Europar Batasunak eta bertako kide diren herrialdeek gomendatzen dituzten parametroen baitan dagoela esan dezakegu.

4. ildo estrategikoa: Familiei Laguntzeko Zerbitzuak

Aurreikuspenekiko egokitzapen-indizea, okupazio-indizea, estaldura-indizea, eta eskolatzeta-tasa

		Aurreikuspenekiko egokitzapen-indizea	Plazen okupazio-indizea	Balitzko eskariaren estaldura-indizea	Eskolatzeta-tasa
PARTZUERGOA	0 urte	1,210	0,502	0,093	0,047
	1 urte	1,080	0,802	0,151	0,121
	2 urte	1,193	0,916	0,008	0,008
UDAL-ESKOLAK	0 urte	1,150	1,035	0,023	0,024
	1 urte	1,000	0,961	0,066	0,063
	2 urte	1,192	0,865	0,066	0,057
PUBLIKOAK	0 urte	1,000	0,750	0,001	0,001
	1 urte	1,000	0,846	0,001	0,001
	2 año	0,973	0,838	0,557	0,467
PUBLIKOAK GUZTIRA	0 urte	1,197	0,610	0,117	0,071
	1 urte	1,055	0,850	0,218	0,186
	2 urte	0,998	0,842	0,615	0,532
ETAPA GUZTIAK (PUBLIKOA)		0,965	0,815	0,360	0,293
PRIBATUAK GUZTIRA	0 urte	0,797	0,961	0,094	0,090
	1 urte	0,767	0,954	0,214	0,204
	2 urte	0,959	0,918	0,433	0,398
ETAPA GUZTIAK (PRIBATUA)		1,134	0,934	0,276	0,258
GUZTIRA	0 urte	1,018	0,767	0,316	0,242
	1 urte	0,913	0,902	0,432	0,390
	2 urte	0,982	0,873	1,065	0,929
ETAPA GUZTIAK		1,032	0,867	0,636	0,551

4. ildo estrategikoa: Familiei Laguntzeko Zerbitzuak

Lurralde historikoetako haur-eskolen arteko estaldura-desberdintasunak aztertzeko, plazen okupazio-indizea, balizko eskariaren estaldura-indizea, eta eskolatzeko-tasa (2008-2009) lurralde historikoaren eta adin-tartearen arabera banatu ditugu. Hiru kasuetan, 2 urteko geletako estaldura erabatekoa da, eta baita %100etik gorakoa ere, Bizkaian izan ezik (%97). Gainerako bi tarteei dagokienez, estaldura-maila altuenak dituen lurraldea Gipuzkoa da.

Plazen okupazio-indizea, balizko eskariaren estaldura-indizea, eta eskolatzeko-tasa, lurralde historikoaren eta adin-tartearen arabera (2008-2009)

4 hilabete - urte 1	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Okupazio-indizea	%77,5	%79,0	%74,4	%76,7
Estaldura-indizea	%23,2	%26,7	%42,2	%31,6
Eskolatzeko-tasa	%18,0	%21,1	%31,4	%24,2

1- 2 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Okupazio-indizea	%96,5	%90,2	%87,6	%90,2
Estaldura-indizea	%44,4	%39,5	%48,1	%43,2
Eskolatzeko-tasa	%42,8	%35,6	%42,1	%39,0

2 - 3 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Okupazio-indizea	%85,9	%93,7	%80,2	%87,3
Estaldura-indizea	%110,0	%97,1	%118,4	%106,5
Eskolatzeko-tasa	%94,5	%91,0	%95,0	%92,9

Etaparen osoa (0-2 urte)	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Okupazio-indizea	%88,0	%91,1	%81,2	%86,7
Estaldura-indizea	%63,2	%57,5	%72,7	%63,6
Eskolatzeko-tasa	%55,6	%52,3	%59,0	%55,1

- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ahalegin handia egin du haur-eskolen partzuergoaren baitan gela berriak sor daitezen eta plaza kopurua handitu dadin bultzatzeko eta sustatzeko. Dena den, lurralde historikoen eta udalerrien artean desberdintasunak egon badaude, oraindik ere, eta

4. ildo estrategikoa: Familiei Laguntzeko Zerbitzuak

eztabaida-taldeetan parte hartu duten gurasoek zentzu horretan lan egiten jarraitzeko eskatu dute.

Bestalde, batzuetan gurasoek eskola pribatuak nahiago izaten dituzte, familiaren ordutegietara egokitzeko malgutasun handiagoa dutelako, eta beraz, beharrezkotzat jotzen dugu haur-eskolaren osteko baliabide eta tresna osagarriak eskaintzea, familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko (ludotekak, aisialdi-guneak, aisialdiko hezkuntza-programak...).

4.3. Etxebizitza

Jarraian, Familiei Laguntzeko Planaren baitan Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eskumenekoak diren neurriak zehaztuko ditugu. Hasteko, neurri on arau-esparruaren berri emango dugu, eta ondoren, Planaren indarraldiko lehenengo 3 urteetan (2006-2008) zer esku-hartze egin diren adieraziko dugu.

1.- Araudia:

Azkeneko urteetan BOE etxebizitzaren araubide juridikoa eta finantzaketa-neurriak aldatu egin dira, eta baita etxebizitzaren erregistroa, esleipen-prozedurak, eta etxebizitza-premiak ere. Aldaketa guztiok kontuan hartuta, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eskumeneko neurrien arau-esparrua honako hau da:

1. 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantzaketa-neurriei buruzkoa. 59. EHA, 2008ko martxoaren 28koa.
2. 2008ko apirilaren 16ko AGINDUA, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuarena, Etxebizitza-Eskatzaileen Erregistroa arautzen duena.
3. 2008ko apirilaren 16ko AGINDUA, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuarena, etxebizitza-premiei buruzkoa.
4. 2008ko apirilaren 16ko AGINDUA, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren esleipen-prozedurei buruzkoa.

2.- Esku-hartzeak:

Babes ofizialeko etxebizitza-sustapenetan etxebizitza batzuk derrigorrez gorde behar izaten dira guraso bakarreko familientzat, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat, bananduta eta dibortziatuta dauden pertsonentzat, 70 urtetik gorakoentzat, eta ezindu psikikoentzat (kupo soziala).

- Ezarpena:

Neurri hau ezartzen da, eta honako esku-hartze hauek egin dira:

2006an, 136 etxebizitza gorde ziren; 2007an, 5 etxebizitza gorde ziren; eta 2008an, 91 etxebizitza gorde ziren (alokatzeko).

- Aurrekontu-kostua:

Neurri honek ez du zuzeneko eta bistako aurrekontu-kosturik.

Gainera, babes ofizialeko etxebizitza-sustapenetan etxebizitza gehiago gordetzeko agindua ere eman dezake Etxebizitza sailburuak, sustapenaren ezaugarri berezien, kasuan kasuko udalerriko eskariaren, edo dagokion eremuaren arabera.

- Ezarpena:

Neurri hau ere ezartzen da, baina ez da esku-hartzerik egin.

- Aurrekontu-kostua:

Neurri honek ez du zuzeneko eta bistako aurrekontu-kosturik.

Babes ofizialeko etxebizitzetan, sustapen bakoitzeko etxebizitzaren %3 soilik izan daitezke 90 m²tik gorakoak (edo frakzioa, kopurua bat baino txikiagoa izanez gero), eta betiere, 120 m²tik beherakoak izan behar dute. Etxebizitzok bost kide edo gehiago dituzten bizikidetzak unitateetarako izaten dira, ezinbestean.

- Ezarpena:

2006an, 3 etxebizitza gorde ziren bost kide edo gehiagoko bizikidetzak unitateetarako, eta 2008an, berriz, 6. Gainera, etxebizitza handienak (90 m²koak) familia ugarietara esleitzen zaizkie beti, araudiari jarraiki.

- Aurrekontu-kostua:

Neurri honek ez du zuzeneko eta bistako aurrekontu-kosturik.

Etxebizitza Sailak etxebizitza libre erabiliak erosteko ematen duen itzuli beharrik gabeko diru-laguntza puntu 1 handitu da, %5etik %6ra, baldin eta onuraduna familia ugaria bada. Gainera, hirugarren seme-alabarengatik eta hurrengoengatik 600 € gehiago emango dira.

- Ezarpena:

Gaur egunera arte, ez dago daturik.

- Aurrekontu-kostua:

Neurri honek zuzeneko aurrekontu-kostua du.

Babes ofizialeko etxebizitzaren esleipena arautzen duen araudiaren esparruan, familia ugarietara ez dute baldintza hau bete behar: aurreko bi

4. ildo estrategikoa: Familiei Laguntzeko Zerbitzuak

urteetan etxebizitzarik ez izatea jabetzan, jabetza soilean, edo azalera-edo gozamen-eskubidean, baldin eta etxebizitzak gutxienez 36 m² eta gehienez 75 m² baditu, eta pertsona bakoitzeko gehieneko ratioa 15 m²koa bada.

- Ezarpena:

Neurri hau ezartzen da, eta 2006an, familia ugariak 54 eskari egin zituzten etxebizitza-eskatzaileen erregistroan. 2007an, berriz, 46; eta 2008an, 212.

- Aurrekontu-kostua:

Neurri honek ez du zuzeneko eta bistako aurrekontu-kosturik.

Aurreikuspenen arabera, bost kide edo gehiagoko bizikidetzak-unitateetako edo familia ugarietako kideak etxebizitza baten titular badira eta esleitutako etxebizitzari uko egiten badiote, babes ofizialeko etxebizitza-eskatzaileen erregistroan ez zaie baja emango, baldin eta esleitutako etxebizitza 15 m²/pertsona ratioetik behera badago. Prozedura orokorrean ez da halakorik egingo.

- Ezarpena:

Neurri hau ezartzen da, baina uko-egiteak ez dira erregistratzen; beraz, ezin dugu jakin zenbat kasu egon diren (kudeaketa-unitateetan adierazten denez, oso gutxi dira).

- Aurrekontu-kostua:

Neurri honek ez du zuzeneko eta bistako aurrekontu-kosturik.

Etxebizitzak birgaitzeko laguntzen zenbatekoa handitu egin da bost kide edo gehiagoko bizikidetzak-unitateentzat eta familia ugariarentzat (zerga-arinketa, mailegu kualifikatua eta itzuli beharrik gabeko diru-laguntza).

- Ezarpena:

Laguntzak kalkulatzeko, bizikidetzak-unitatearen diru-sarreraren eta egin beharreko lan motaren araberako ehuneko jakin batzuk aplikatzen dira. Birgaitze integratuetarako, gehieneko diru-laguntza 5.400 €-koa da, eta birgaitze bakanduetarako, berriz, 3.800 €-koa; bestalde, familia ugariarentzat %5eko igoera aurreikusten da.

4.4. Familiarentzako Gizarte Zerbitzuak

Askotan, esku-hartze arlo honetako zerbitzu bat emanda, hartzaile nagusiari ez ezik, haren familia-inguruneari ere mesede egiten zaio, eta ondorioz, Aldundiek eta udalek familiei laguntzeko erabiltzen dituzten zerbitzuak eta baliabideak bildu dira Familiei Laguntzeko Erakundearen Arteko II. Planean, eta batik bat familia osoaren beharrianak asetzeko diseinatzen eta aplikatzen direnak.

Euskal gizartearen testuingurua eta egoera nabarmen aldatu dira azkeneko hamarkadan, eta ondorioz, EAEko gizarte-zerbitzuen arau-esparrua aldatu egin behar izan da. Hala, 2008ko abenduaren 5ean Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea onartu zen (2008ko abenduaren 24an argitaratu zen).

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak sortu duen arau-esparruaren osagai nagusia honako hau da: gizarte-zerbitzuetarako eskubidea eskubide subjektibo gisa aldarrikatzea, herritartasunari dagokion eskubidea den aldetik. Eskubide subjektibo horren erabilera bermatuko bada, erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen sistema sortu beharko da, eta sistema hori kudeaketa- eta koordinazio-tresna batzuek hornitu beharko da, gizarte-zerbitzuen arloko eskumenak dituzten hiru administrazio-mailak egituratzeko (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta udalak).

Legeak, hasteko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak eskainiko dituen Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoa aurreikusten du, eta hala, eskubide subjektiboaren irismena zehazten du; gainera, eskubide unibertsala dela kontuan hartuta, katalogoa Autonomia Erkidego osoan garatuko eta ezarriko dela bermatzen du. Horrez gain, katalogoa Prestazioen eta Zerbitzuen Zorro baten barruan arautuko dela aurreikusten du. Zorroan katalogoaren ezaugarri nagusiak zehaztuko dira, eta baita honako alderdi hauek ere: prestazioak eta zerbitzuak erabiltzeko bete beharreko baldintzak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema kudeatzeko informazio-sistema integrala (haren diseinua eta abiaraztea), Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa (hura lantzea eta onartzea), eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapa (Plan Estrategikoaren barruan). Legeak, era berean, erakundeak elkarren artean koordinatzeko tresnak indartzen ditu; izan ere, bermatu egin nahi du, batetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema koherentea eta orekatua izango dela eta, bestetik, sistema hori, bere baitan dauden prestazioak eta zerbitzuak, eta beste sistema eta politika publiko batzuk hobeto koordinatuko direla.

Gizartearen ongizatea xede duten beste sistema eta politika publiko batzuekiko lankidetzari eta koordinazioari buruz, honako hau aurreikusten du legeak: herri-administrazioek lankidetzaren eta koordinazioaren arloetan dituzten betebeharren esparruan, lankidetzarako bide formalak eta jarduteko tresna eta protokolo bateratuak ezartzea, jardueren koherentzia bermatzeko eta baliabideak, informazioa eta ezaguerak modu arrazionalen eta eraginkorrean aprobetxatuko direla bermatzeko.

4. ildo estrategikoa: Familiei Laguntzeko Zerbitzuak

Era berean, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak hiru administrazioen eskumenak ezartzen ditu, eta funtsean, Gizarte Zerbitzuen arloko eskumenak honela banatzen dira:

- Eusko Jaurlaritza: gizarte-zerbitzuen arloko arauak ezartzea, gizarte-zerbitzuak antolatzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroa egitea eta onartzea, parte hartzeko irizpide orokorrak arautzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioak eta zerbitzuak erabili ahal izateko baldintzak betetzen ote diren jakiteko baliabide teknikoak egitea, eta zehatzago, Eusko Jaurlaritzari zuzenean dagozkion prestazioak eta zerbitzuak eskaintzea (telelaguntza-zerbitzua, informazio- eta orientazio-zerbitzuak, familiarentzako elkargunea -ebazitako kasuetarako-, eta familia-bitartekotzarako zerbitzu osoa).
- Foru Aldundiak: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoko bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuak eskaintzea, zuzenean Eusko Jaurlaritzaren esku dauden zerbitzuak izan ezik (Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeko 22. artikuluko 2. paragrafoa), eta babesgabetasun-egoera larrian dauden adingabeei laguntzea.
- Udalak: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoko lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak eskaintzea (Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeko 22. artikuluko 1. paragrafoa).
- Betetze-maila

Erakunde publiko bakoitzaren eskumenak zein diren zehaztu ondoren, eta EAEko udaletako eta Foru Aldundietako gizarte-zerbitzuen arduradunei familientzako baliabideen gidaliburuaren gainean egindako kontsultan oinarrituta, udalek eta Foru Aldundiek familiei eskaintzen dizkieten gizarte-zerbitzuak zein diren adieraziko dugu segidan, EAEko familientzako gizarte-zerbitzuen ikuspegia marrazte aldera.

Udalerrietako oinarritzko gizarte-zerbitzuek Gizarte Zerbitzuen Sistemako oinarritzko unitatea eta sisteman sartzeko lehenbiziko atea osatzen dute. Oinarritzko gizarte-zerbitzuetatik abiatuta, familiei laguntzeko baliabideen aukera zabala dago, eta jarraian, baliabideok zein diren zehaztuko dugu, zer talde zehatzi begira eskaintzen diren kontuan hartuta.

a) FAMILIARI ARRETA EMATEKO ZERBITZUAK

1. ZERBITZU OROKORRAK:

Batik bat FAMILIARENTZAT eta HAURRENTZAT eskaintzen diren zerbitzuak dira. Hain zuzen ere, honako hauek bereiz daitezke: udaletan, orientazio-

4. ildo estrategikoa: Familiei Laguntzeko Zerbitzuak

baliabideak, prebentzio-baliabideak eta lehen mailako esku-hartzeetarako baliabideak; eta Foru Aldundietan, babesgabetasun-egoera larrietarako bigarren mailako arreta-baliabideak.

UDALAK:

- Gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko zerbitzua (EISE), haurrentzat, familiarentzat, eta gazteentzat
- Familiarentzako orientazio-, bitartekotza- eta terapia-zerbitzua
- Familia zaintzeko eta trebatzeko zerbitzuak eta programak
- Orientazio juridikoko zerbitzua
- Haurrentzako etxez etxeko laguntza-zerbitzua (SADI)
- Droga-mendekotasunerako zerbitzua
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza programa, familiarentzat
- Eguneko zentroak, adingabeentzat
- Orientazio psikologikoa, adingabeentzat
- Larrialdiko etxebizitzak
- Arrisku-egoeran dauden seme-alaba adingabeak dituzten familietan esku hartzeko programak
- Seme-alaba ezinduak dituzten familiei laguntzeko programak
- Kaleko hezkuntza-programak / Ingurune irekiko hezkuntza-programak
- Familiarentzako elkarguneak/ adingabeen bisita-zerbitzua
- Diagnostika eta esku-hartzea, adingabeekin eta familiarekin

FORU ALDUNDIAK:

- Laguntza psikologikoa eta pedagogikoa, adingabeentzat
- Familiarentzako elkarguneak
- Bisita-unitatea
- Babesgabetasun-egoera larrien balorazio psiko-soziala
- Familia-harrerarako zerbitzua/ babesgabetasun-egoeran dauden haurren familia-harrera sustatzeko programa
- Arreta psikologikorako programak, familian bertan sexu-gehiegikeriak gertatu direnean

Era berean, GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI laguntzeko zerbitzuak nabarmen ari dira indartzen eta bultzatzen, biktimen eskariak eta arazoak gizartean duen oihartzuna areagotzen ari delako.

UDALAK

- Arreta-zerbitzua, genero-indarkeriaren biktimentzat
- Arreta psikologikorako zerbitzua, genero-indarkeriaren biktimentzat
- Genero-indarkeriaren biktimentzako etxebizitzak
- Doako telelaguntza mugikorra (24 ordu)
- Beste zerbitzu batzuk, genero-indarkeriaren biktimentzat: larrialdiko laguntza ekonomikoak, informazio-hitzaldiak (bizikidetza, banantzea,

4. ildo estrategikoa: Familiei Laguntzeko Zerbitzuak

tratu txarrak), gizarte-hezkuntzako programa (gizarte-larrialdiko etxebizitzetarako), edo genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei konpainia egiteko programa

FORU ALDUNDIAK:

- Doako aholkularitza juridikoa, genero-indarkeriaren biktimentzat / orientazio juridikorako zerbitzua, emakumeentzat
- Arreta psikologikorako zerbitzua, genero-indarkeriaren biktimentzat, eta familiako esku-hartzea, tratu txarrak, sexu-erasoak eta arazo psikologikoak (harremana etetearen ondorioz) jasan dituztenentzat
- Erasotzaileei arreta eskaintzeko zerbitzua
- Egonaldi ertain-luzeko harrera-zentroa, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat eta beren seme-alabentzat / egoitza-harrerako zerbitzua, tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzat eta beren kargura dauden seme-alabentzat

2. OSTATU EMATEA

Udalek eta Foru Aldundiek ostatu emateko baliabideak dituzte, taldearen eta beharrian sozialen arabera. Berriro ere, genero-indarkeriaren biktimei ostatu emateko aukerak azpimarra daitezke.

UDALAK:

- Larrialdiko harrera-zerbitzuak
- Gizarte-larrialdietarako etxebizitza balioaniztunak
- Genero-indarkeriaren biktimentzako etxebizitzak
- Etxebizitzarik ez dutenentzako ostatua (berehala eta aldi baterako)
- Adinekoentzako etxebizitzak
- Arazo espezifikoak dituzten familientzako etxebizitzak (adibidez, bakarrik dauden eta seme-alabak dituzten edo haurdun dauden emakumeak)
- Neguko ostatua

FORU ALDUNDIAK:

- Haurdun dauden emakumeentzako zentroa
- Harrera- eta larrialdi-zentroak
- Etxeak eta egoitzak
- Larrialdiko harrera-zerbitzuak
- Larrialdi-zentroak
- Genero-indarkeriaren biktimentzako etxebizitzak
- Egoitza- eta familia-harreraren ondoren bizimodu autonomoa izateko jarraipen- eta prestaketa-programa
- Familiako harrera-zerbitzua

3. BESTE ZERBITZU ETA PROGRAMA BATZUK

Familiei arreta eskaintzeko bi baliabide-mota horiez gain, beste zerbitzu eta programa batzuk ere badaude: haurrentzako arreta psiko-soziala, prebentzioa, haurren parte-hartzea, genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko taldeak... Atal honetan udalek zein Foru Aldundiek lana eta familia bateragarri egiten laguntzeko eskaintzen dituzten zerbitzuak azpimarratu behar dira (umezain-programak, edo adingabeentzako aisialdi-baliabideak).

UDALAK:

- Familia zaintzeko eta trebatzeko zerbitzuak eta programak
- Eguneko zentroak
- Gizarte- eta hezkuntza-arloan garaiz esku hartzeko programa, ama edota aita gazteentzat
- Berriz eratu diren familientzako arreta-zerbitzua
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuak, seme-alaba adingabeak dituzten familientzat
- Familia-harrerarako eta harrera osteko zerbitzuak eta programak
- Haurrek parte hartzeko programak: postontzi laguna, foro laguna, haurren batzarra
- Arreta psiko-sozialerako programak, haurrentzat, gazteentzat eta familiarentzat
- Aholkularitza psikologikorako zerbitzua, laguntza teknikoa eta arreta psiko-soziala
- Lehen eta bigarren mailako prebentzio-programa
- Loturak hausteko programa
- Egoitza-harrera: etxeak / etxe funtzionala
- Ezinduentzako udalekuak
- Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko taldeak
- Guraso bakarreko familiei laguntzeko programak
- Guraso bakarreko familietako buru diren emakumeentzako umezainak

FORU ALDUNDIAK

- Arreta psiko-soziala, babesik gabe gelditzeko arriskuan dauden haurrentzat
- Ijitoen gutxiengo etnikoko hurrekin eta familiekin esku hartzeko programak
- Eguneko zentroa, adingabeentzat
- Aldi baterako harrera-programa, atzerritar adingabeentzat
- Arreta psikologikorako programak, familian bertan sexu-gehiegikeriak gertatu direnean
- Guraso bakarreko familietako buru diren eta arazo sozialak dituzten emakumeentzako autonomia-etxebizitzak
- Haurdun dauden edo guraso bakarreko familietako buru diren eta arazo sozialak dituzten emakumeen egoitza-harrerarako zerbitzua, autonomia-etxebizitzetan

4. ildo estrategikoa: Familiei Laguntzeko Zerbitzuak

- Egoitza-harrerako programa (etxeak eta zentroak)
- Aisialdiko egonaldi-programa, bakarrik dauden eta beren kargura seme-alabak dituzten emakumeentzat
- Lana eta familia bateragarri egiten laguntzeko neurriak / “Kanguras” programa

b) NORBAITEN LAGUNTZA BEHAR DUTEN PERTSONAK ZAINTZEN LAGUNTZEKO ZERBITZUAK

Familiei laguntzeko gizarte-baliabideen baitan, norbaiten laguntza behar duten pertsonak zaintzeko zerbitzuak ere badaude. Foru Aldundiak eta udalak koordinatu egiten dira, norbaiten laguntza behar duten pertsonak zaintzeko irtenbideak emateko, batik bat etxez etxeko laguntza-programen bidez edo zentro espezializatuen bidez (eguneko zentroak eta egoitzak). Dena den, zuzenean zaintzaileei laguntzeko baliaibideak gero eta ugariagoak dira, eta ahaideen mendekotasun-egoerak dituen ondorioak arintzea dute helburu.

1. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUAK

UDALAK

- Etxebizitza partekatuetan bizitzeko laguntza ekonomikoak
- Apartamentu babestuak
- Taldeko etxebizitzetan, apartamentu balioaniztunetan eta apartamentu sozialetan ostatu ematea
- Etxez etxeko otordu-zerbitzua
- Etxez etxeko laguntzarako laguntza ekonomikoak
- Osatzen ari diren pertsonentzako zentroak

FORU ALDUNDIAK

- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuak 3.500 erabiltzaile ditu, batez beste, 3 lurralde historikoetan. Norbaiten laguntza behar duten helduek eta ezinduek erabiltzen duten zerbitzua da, hain zuzen.

2. EGUNEKO ZENTROA

UDALAK

- Eguneko zentroa, adinekoentzat
- Eguneko zentroa, norbaiten laguntza behar duten pertsonentzat
- Banakako laguntza ekonomikoak, adinekoei eguneko zentroetan sartzen laguntzeko
- Integrazio soziokulturalerako zentroa
- Eguneko arreta-zerbitzua

4. ildo estrategikoa: Familiei Laguntzeko Zerbitzuak

FORU ALDUNDIAK

- Eguneko zentroak eta psiko-geriatrikoak, norbaiten laguntza behar duten adinekoentzat
- Eguneko zentroak, norbaiten laguntza behar duten ezinduentzat / norbere autonomiarako zentroa

3. ALDI BATERAKO EGONALDIAK EGOITZETAN

UDALAK

- Aldi baterako egonaldiak egoitzetan
- Atsedeen hartzeko zentroak

FORU ALDUNDIAK

- Aldi baterako egonaldiak: egonaldi laburrak norbaiten laguntza behar duten adinekoentzako egoitzetan
- Norbaiten laguntza behar duten ezinduentzako programak eta atsedeen hartzeko zentroak
- Aldi baterako egoitza-zerbitzua norbaiten laguntza behar duten adinekoentzako zentroetan
- Gizarte- eta osasun-arloko egoitza-zerbitzua, norbaiten laguntza behar duten adinekoentzat

4. BESTE ZERBITZU ETA PROGRAMA BATZUK

Norbaiten laguntza behar duten pertsonentzako oinarrizko zerbitzuez gain, beste programa batzuk ere badaude udalerrietan. Programok estaldura eta ezarpen txikiagoa dute, baina hala ere, norbaiten laguntza behar duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dute, eta baita pertsonok zaintzen dituzten ahaideen bizi-kalitatea hobetzen ere.

UDALAK:

- Familia zaintzaileentzako laguntza / adinekoak zaintzen dituzten familiei laguntzeko programa
- Adinekoentzako aisialdi-programak
- Adinekoentzako dinamizazio-programak
- Gizarte- eta osasun-arloko baliabideak
- Adinekoei edo beste talde batzuei konpainia egiteko zerbitzua
- Materiala maileguan uzteko zerbitzua
- Egoitzak: autonomoak, norbaiten laguntza behar dutenak
- Apartamentu eta etxebizitza babestuenak
- Atsedeen hartzeko programak
- Adinekoentzako jantokiak
- Laguntza teknikoa

FORU ALDUNDIAK

- Zainduz programa
- “Zaintzeko zaindu” programa
- Emakume zaintzaileei laneratzen laguntzeko neurriak
- Eguneko arreta-zerbitzuak: lanerako zentroak eta gizarte- eta hezkuntza-arloko zentroak
- Adinekoentzako bidaiak
- Norbere autonomia eta norbaiten laguntza behar duten pertsonentzako arreta bultzatzeko prestazio ekonomikoak

c) BESTE PROGRAMA ETA ZERBITZU BATZUK, FAMILIEI LAGUNTZEKO

Familiari laguntzeko eta norbaiten laguntza behar duten pertsoneri laguntzeko zerbitzu espezializatuez gain, udalek beste programa gehigarri batzuk ere gauzatzen dituzte, honako arlo hauetan: esku-hartzea eta prebentzioa, hezkuntza, kultura eta aisialdia, eta gazteria eta kirola. Izan ere, programok garrantzi handia dute familiaren zati baten garapenari eta lana eta familia-bizitza bateragarri egiteko aukerei begira.

UDALAK

1. ESKU-HARTZEA

- Familiarentzako prebentzio-programak
- Prebentzio- eta sentiberatze-programak: haurren babesgabetasuna eta beste batzuk
- Komunitatean esku-hartzeko zerbitzua
- Osasunerako hezkuntza-programak, haur-hezkuntzan eta lehen hezkuntzan
- Osasunerako hezkuntza-programak, derrigorrezko bigarren hezkuntzan eta lanbide-heziketako ikastetxeetan
- Droga-mendekotasunari aurrea hartzeko programa
- Aisialdiko prebentzio-programa

2. HEZKUNTZA

- Hezkuntza osagarria
- Hezkuntza ingurune irekian
- Balioetan oinarritutako hezkuntza.
- Hezkuntza sexuala eta afektibitatea
- Esku-hartzea, arrisku-egoeran dauden nerabeekin
- Informazio-kanpainak: adingabeak eta Interneteko arriskuak
- Trebakuntza-programak: lantegiak, guraso-elkarteak...
- Droga-mendekotasunari aurrea hartzeko programak, eskola-komunitateko kideentzat

4. ildo estrategikoa: Familiei Laguntzeko Zerbitzuak

- Programak: eskolatu gabeak eta eskola-absentismoa
- Programak: eskolako higiena, ingurumen-hezkuntza, etab. / Eskolako Agenda 21, droga-mendekotasunaren prebentzioa eskolan
- Harreman-psikomotrizitatea
- Gazteentzako informazio-zerbitzua
- Ludoteka-zerbitzua
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko lantegiak, ikasten laguntzeko
- Lantegi didaktikoak
- Guraso-eskolak
- Goizeko antzerki-emankizunak
- Prestazioak: eskolako materiala, eskolako jantokiak / eskolako jantokietara joateko eta eskolako liburuak eta materiala erosteko laguntza ekonomikoak

3. KULTURA ETA AISIALDIA

- Udalekuak eta udako eskolak
- Hiriko udalekuak
- Trebakuntza, aisialdiko bitartekarientzat
- Baserri-eskolak
- Haurrentzako ludotekak
- Eskola-egunetatik kanpoko jarduerak, 3-11 urteko haurrentzat
- Familia-bizitza eta lana bateragarri egiten laguntzeko jarduerak
- Eguberrietako haur-parkea
- Irakurzaletasuna bultzatzeko programak
- Erakusketak eta liburuen aurkezpenak
- Ipuin-kontalaria
- Bisitak liburutegira

4. GAZTERIA ETA KIROLA

- Kirol-txartel soziala
- Bonobus soziala
- Programak: trebakuntza-jarduerak, gazte-ekimenetarako laguntza, eta gazteen aisialdia
- Gazteria- eta kirol-programak, familiarentzako laguntzaren baitan
- Gazteentzako lokalak
- “Bidaiak familian” programa
- Topaketa-aretoak
- Gazteentzako informazio-zerbitzua

- Aurrekontua gauzatzea

Udalerrietako gizarte-zerbitzuek 174.427.879 €-ko gastua egin dute, eta aurreikuspenen arabera, 2009an eta 2010ean 125.181.069 €-ko gastua egingo dute. Foru Aldundietako gizarte-zerbitzuek, berriz, 309.641.871 €-ko gastua egin dute Planaren lehenengo zatian, eta aurreikuspenen arabera, 2009an eta 2010ean 222.219.640 €-ko gastua egingo dute.

- Estaldura eta eragina

Zerbitzuen zorroa hitzartuta dago, eta bertako mugak behar bezala ezarrita daude; gainera, beharrezkoak diren koordinazio-plataformak ere badaude, eta hori guztia ona da erabiltzaileentzat. Izan ere, erabiltzaileek baliabideen eskaintza zabala daukate, familiari laguntzeko.

Hala ere, familia-eredua aldatzen ari da, eta ondorioz, gizarte-zerbitzuek oraingoz ezin dituzte guztiz ase talde eta familia mota berri batzuen beharrianak. Adibidez, guraso bakarreko familiek edo etorkin-familiek inguruan ez dute sostengu sozial nahikorik izaten, eta ondorioz, arazoak izaten dituzte, etxebizitzaren eta lanaren arloetan ez ezik, baita seme-alabak hazteko ere. Horrela bada, gizarte-zerbitzuek familien eskakizun berrietara egokitu behar dute, baina batzuetan egokitzapen-prozesua motela izaten da, eta funtzionamenduko zailtasunak izaten ditu. Immigrazioaren eta familietan gertatzen ari diren aldaketen ondorioz familia-eredua aldatzen ari da, eta hala, gizarte-zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen eskaria handitzen ari da (udal batzuetan 2 hilabeteko itxarote-zerrendak daude oinarrizko gizarte-zerbitzuetarako). Beraz, familiei laguntzeko zerbitzuak indartuko badira, beharrezkoa da baliabide gehiago, langile gehiago eta aurrekontu handiagoa izatea. Kontsultatu diren gizarte-zerbitzuetako arduradunen arabera, gaur egungo baliabideak ez dira nahikoak, eta beharrezkotzat jotzen dute aisialdiaren arloan lan egitea eta baliabide gehiago eskaintzea, bereziki honako arlo hauetan: haurren babesa, gizarte- eta hezkuntza-arloa, arrisku-egoera arinean edo larrian dauden adingabeentzako arreta-baliabideak, edo aisialdia. Izan ere, gabeziarik handienak arlo horietan daude.

Era berean, administrazio guztiek ahaleginak egin beharko dituzte familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko. Horretarako, sortu berri diren baina udaletan oso hedatuta ez dauden programak sustatu beharko dituzte, hala nola umezain-zerbitzuak, euren kargura adingabeak dauzkaten eta gizarteratze- eta laneratze-prozesu bat habiatu duten pertsonentzat.

Gizarte-zerbitzuen arloko laguntzak eta prestazio ekonomikoak oso hedatuta daude, baina programa eta baliabide batzuk ez dira oso ezagunak (batik bat haurrentzako arreta-zerbitzuak, esku hartzeko gizarte-zerbitzuak, eta prebentzio-programak). Tradizio falta dela-eta, familiek ez diete balio handiegirik ematen adingabeei laguntzeko zerbitzuoi. Gainera, zerbitzuok nolabaiteko mesfidantza eragiten dute; izan ere, ezezagunak dira, eta

4. ildo estrategikoa: Familiei Laguntzeko Zerbitzuak

zerbitzuok erabiliz gero badirudi gurasoen lana edo gaitasunak zalantzan jar daitezkeela. Beraz, arlo horretan aurrerapauso asko daude egiteko, eta besteak beste, herritarrak sentsibilizatu beharko dira, familiek mesfidantza alde batera utz dezaten, eta zerbitzuok euren eskura dauzkaten ekarpen, baliabide eta laguntza gisa ikus ditzaten.

Beraz, hurrei laguntzeko baliabideak ugaritu eta indartu beharko dira eta izen ona eman beharko zaie. Horretarako, zuzkidurak eta aurrekontuak handitu beharko dira, sentiberatze-kanpainak egin beharko dira, eta profesionalen laguntza eskatu beharko da, hezkuntzaren zein gizarte-zerbitzuen arloetan.

- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa

Familiei laguntzeko baliabide sozialetan hainbat eragilek parte hartzen dute, eta ondorioz, funtsezkoa da jakitea gizarte-zerbitzuen arloko eskumenak dituzten erakundeetako arduradunek zer iritzi duten erakundeen arteko koordinazioari buruz. Hala, koordinazioa erraztea ahalbidetzen duten sistema informatikoak egonagatik, eta Aldundien, udalen eta zerbitzuak eskaintzen dituzten eragile pribatuen arteko koordinazioa ona izanagatik, zenbait beharizan eta hobetu daitezkeen alderdiak ere detektatzen ditugu (batik bat udaletako gizarte-ongizateko profesionalak).

Udalak eta Aldundiak modu eraginkorren koordinatzeko borondatea handia da; gainera, beharra ere handia da, eta orain arteko koordinazioa ona izan da. Hala ere, udaletako oinarrizko gizarte-zerbitzuetara jo eta kasuak Foru Aldundietako zerbitzuetara bideratu ondoren, batzuetan zerbitzua eten egiten da, eta ezin izaten da bermatu familientzako arretak jarraipena izango duenik. Eten hori barne-antolakuntzako desberdintasunen, langile faltaren, eta aurrekontu nahikorik ezaren ondorioz gertatzen da, hain zuzen.

Zentzu horretan, araututako koordinazioak oro har funtzionatzen du, baina hala ere, paperean eragile bakoitzaren eskumenak behar bezala zehaztuta egonagatik, praktikan koordinazio-zailtasunak eta gorabeherak gertatzen dira. Administrazio bat baino gehiago egoteak onuragarria izan beharko luke, erabiltzaileari arreta integratu eta osagarria ematea ahalbidetu beharko lukeelako, baina administrazio batzuek eta besteek barne-egitura desberdinak dituztenez, batzuetan zaila izaten da koordinazioa mamitzea.

Batzuetan informazioa falta izaten da, udaletako oinarrizko gizarte-zerbitzuetan abiatu diren eta ondoren beste erakunde batzuen esku gelditu diren espedientei edo eskariei buruz (mendekotasunaren balorazioak, edo udaletako gizarte-zerbitzuek tramitatu ondoren Aldundien esku gelditu diren gazteen kasuak, adibidez). Erabiltzaile gehienak, batik bat herrietakoak, udaletako gizarte-zerbitzuetara joan ohi dira espedienteak zer egoeratan dauden jakiteko edo zer urrats egin behar dituzten jakiteko, eta ondorioz, erakundeen artean informazioa trukatzeko sistemak oso beharrezkoak dira.

4. ildo estrategikoa: Familiei Laguntzeko Zerbitzuak

Beraz, udalek garrantzitsutzat jotzen dute Foru Aldundietara bideratu diren kasuei buruzko informazio zabala izatea.

Gainera, batzuetan udaletako oinarrizko gizarte-zerbitzuek ezin izaten dute kasuen jarraipen zehatzik egin, hasieratik amaierara arte, eta kasu horietan, familiek ez dute jakiten norengana jo eta udaletako profesionalak ez dute behar beste informazio izaten familiei laguntzeko. Horrela bada, administrazioak batera jarduteko prozedurak eta protokoloak ezarri beharko lirateke, eta gizarte-zerbitzuen sarea sortu beharko litzateke, prozesuetan parte hartzen duten profesionalen lana eta eginkizunak bikoiztu eta gainjar daitezten saihesteko.

Azkenik, honako hau adierazi behar dugu: udalek eta Aldundiek ez dute hautematen euren lanari esker Planeko helburuak betetzen ari direnik. Eskaintzen dituzten zerbitzuek familiei laguntzen diete, baina ez esplizituki, eta ondorioz, ez dira konturatzen Plan baten baitan dauden zerbitzuak direla.

Udalak ez dira konturatzen Planaren baitan daudela, eta Eusko Jaurlaritzaren Plana dela uste dute; beste erakunde batzuetan eragin txikiagoa duen Plana dela uste dute. Planaren baitan udalek eta Aldundiek familiei laguntzeko baliabide gisa sartu diren programa eta baliabide gehienak lehenik ere existitzen ziren. Beraz, Jaurlaritzak berak finantzatzen eta bultzatzen zituen, baina Planari esker esparru batean kokatu dira. Beraz, Plana “aterki” bat dela esan daiteke, eta ondorioz, programa eta baliabide horiek biltzen dituela eta beste zentzu bat ematen diela. Era berean, udal batzuk familiei laguntzeko eta familiako bizitza errazteko baliabide berriak erabiltzen hasi dira. Neurri batean, Planaren bidez gauzatu den orientazioari eta sentiberatzeari esker hasi dira baliabideok erabiltzen, baina batik bat errealitate, eskari eta familia-eredu berriak kontuan hartuta.

5. ildo estrategikoa: Zerga-politika eta errenta berriz banatzeko politika

Ildo honetan bildu diren zerga-neurrien helburua honako hau da: errenta berriz herritarren artean bana dadin bultzatzea, euren kargura seme-alabak edo norbaiten laguntza behar duten pertsonak dituzten familia-unitateen alde egitearren; izan ere, familia horiek gainerako familiek baino gastu eta ekarpen sozial handiagoa egiten dute.

Jarraian ageri diren datuak 2007ko aitortpenetakoak dira (2006ko datuak). Foru Aldundiek oraindik ez daukate 2008ko aitortpenetako datu bateraturik (2007ko datuak).

- Betetze-maila

2007ko aitortpenetan, seme-alabak dituzten familiei babes eta laguntza ematen jarraitzeko asmoarekin, zenbait zerga-neurri hartu ziren Pertsona Fisikoen Errentaren Gainerako Zergan (PFEZa). Batetik, inflazioaren eraginez presio fiskala handitu zedin saihesteko, PFEZaren eskala %2an eguneratu zen, oro har. Gainera, seme-alabak dituzten familiei begira, aitortpena batera egiteagatik egiten den murrizketa handitu zen eta baita familiako dedukzioak eta dedukzio pertsonalak ere.

Aipaturiko aldaketak honako xedapen hauen bidez egin ziren:

- 57/2005 Foru Araua, abenduaren 19koa, 2006ko Zerga-Neurriei buruzkoa (148. ALHAO, 2005eko abenduaren 30a. Gehigarria)
- 12/2005 Foru Araua, abenduaren 29koa, 2006ko Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa (248. BAO, 2005eko abenduaren 30a)
- 12/2005 Foru Araua, abenduaren 26koa, 2006ko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa (247. GAO, 2005eko abenduaren 30a)

5.1. Dedukzioak, ondorengo ahaideengatik

Dedukzioak egin ahal izateko, ondorengo ahaideek baldintza hauek bete behar dituzte: 30 urtetik behera izatea (ezinduak direnean izan ezik), lanbide arteko gutxieneko soldata (7.572,60 €, 2006an) baino gehiagoko urteko errentarik ez izatea (zerga-gabeak barne), beste familia-unitate bateko kide izanez gero bertako kide bakar batek ere ez izatea lanbide arteko gutxieneko soldata

5. ildo estrategikoa: Zerga-politika eta errenta berriz banatzeko politika

baino gehiagoko urteko errentarik (zerga-gabeak barne), eta PFEZaren aitortpenik ez egitea.

Dedukzio hau egiteko, honako hauek jotzen dira ondorengo ahaidetzat: adingabeak babesteko eskumena duen erakunde publikoaren aurrean formalizatuta dauden tutoretza- edo harrera-harremanen bidez zergadunarekin lotuta dauden eta ordainsaririk ez duten adingabeak.

2007ko aitortpenetan, dedukzioak %2 bat handitu ziren (aurreko urtearekin alderatuta). Zenbatekoak honako hauek izan ziren:

Ondorengo ahaideengatik egindako dedukzioak (2006)

Dedukzioak, ondorengo ahaideengatik	Zenbateko a €	Hazkunde a 2005areki n alderatut a %	Hazkundera 2005arekin alderatuta €
• lehenengoarengatik	479	2,1	10
• bigarrenarengatik	588	2,1	12
• hirugarrenarengatik	885	2,1	18
• laugarrenarengatik	1.145	2,0	23
• bosgarrenarengatik eta hurrengoengatik	1.561	2,0	31
• 6 urtetik beherako ondorengoengatik	261	2,4	6

2006an, ia 390.000 aitortpenetan egin ziren dedukzioak, honela banatuta: %15,1, Araban; %51,4, Bizkaian; eta %33,5, Gipuzkoan. Dedukzioak ia 272.000 familiei¹² egin zitzaizkien, eta lurralde historikoen arteko banaketa nahiko orekatua izan zen.

Dedukzioak 413.719 ondorengoengatik egin zituzten (1,5 ondorengo/familia, familia gisa PFEZan definitzen den familia-unitatea hartuta¹³).

Eta azkenik, 2007ko aitortpenetan (2006ko datuak) 234,5 milioi eurotik gorako dedukzioak egin ziren. Lurralde historikoaren arabera, honela banatu ziren:

¹² Familia-kopurua kalkulatzeko ondorengo ahaideak dituzten banakako aitortpenen erdiak eta batera egindako aitortpen guztiak hartu ditugu kontuan.

¹³ Familia-unitatea legez bananduta ez dauden ezkontideek edo izatezko bikoteko kideek osatzen dute, eta baita honako hauek ere:

a) Seme-alaba adingabeek, gurasoen onespenearekin eurengandik aparte bizi direnak salbu.

b) Judizialki ezgaituta dauden seme-alaba adindunak (guraso-ahal luzatuaren edo berrituaren eraginpean daudenak).

Halaber, senar-emazteak legez banandu direnean edo ezkontza-loturarik edo izatezko bikoterik ez dagoenean, eta epaileak dagokion ebazpena egin duenean, familia-unitatea gurasoetako batek eta aurreko atalean aipaturiko baldintzak betetzen dituzten seme-alabek osatuko dute, norekin bizi diren alde batera utzita. Kasu horietan, beste guraso bat egonez gero, hori ez da izango familia-unitateko kide.

5. ildo estrategikoa: Zerga-politika eta errenta berriz banatzeko politika

Ondorengo ahaideengatik egindako dedukzioa, lurralde historikoaren arabera (2006)

Kontzeptua	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Aitorpen kopurua	58.460	199.984	130.292	388.736
Familia kopurua	41.946	139.025	90.982	271.953
Ondorengo kopurua	64.548	207.900	141.271	413.719
Zenbatekoa	35.058 €	119.158 €	80.381 €	234.596 €

Ondorengo ahaideak dituzten familiek egindako aitorpenen %53,0an ondorengo ahaide bakarrarengatik egin ziren dedukzioak; ia %41,7an, bi ondorengorengatik; %4,7an, hiru ondorengorengatik; eta azkenik, %0,4an eta %0,1ean, lau ondorengorengatik eta lau ondorengo baino gehiagorengatik, hurrenez hurren (ehunekoak hurrengo taulako datuetatik atera dira).

Aitorpen kopurua / ondorengo kopurua

Ondorengo kopurua	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
1	30.693	110.434	64.991	206.118
2	24.748	80.064	57.390	162.202
3	2.658	8.425	7.261	18.344
4	302	850	528	1.680
5 edo gehiago	59	211	122	392
Guztira	58.460	199.984	130.292	388.736

Bestalde, 6 urtetik beherako ondorengoengatik egiten den dedukzio gehigarria aitorpenen %35ean egin zen. Lurraldeka, dedukzioak honela banatu ziren: %38, Araban; %33, Bizkaian; eta %36, Gipuzkoan.

Ondorengo ahaideengatik dedukzioak izan dituzten aitorpenak

Kontzeptua	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Aitorpen kopurua	22.052	66.269	46.419	134.740
Familia kopurua	14.568	43.820	31.721	90.109
Adina: < 6 urte	16.990	51.079	36.281	104.350
Zenbatekoa (€)	4.434	13.298	9.469	27.201

5.2. Dedukzioak, aurreko ahaideengatik

Dedukzioa 211 eurokoa da, eta urte natural osoan modu iraunkorren eta etengabe zergadunarekin bizi den aurreko ahaide bakoitzarengatik egiten da. Kontuan hartzen dira, halaber, ondorengo ahaideak bere ondaretik ordainduta urte natural osoan modu iraunkorren eta etengabe egoitza batean bizi diren aurreko ahaideak ere. Dedukzioa egiteko, gainera, honako baldintza hauek bete behar dira:

- Aurreko ahaideak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gehiagoko urteko errentarik ez izatea (zerga-gabeak kenduta).
- Aurreko ahaidea beste familia-unitate bateko kide izanez gero bertako kide bakar batek ere ez izatea lanbide arteko gutxieneko soldata baino gehiagoko urteko errentarik (zerga-gabeak kenduta).
- Aurreko ahaideak PFEZaren auto-likidaziorik ez egitea edo egin behar ez izatea.

2007ko aitortenetan, aurreko ahaideengatik dedukzioa egiteko eskubidea zuten pertsonak 15.500etik gora izan ziren, eta 3,236 milioi euroko dedukzioak egin ziren. Lurrealdeka, Gipuzkoako ehunekoa oso txikia izan zen(%20), eta Arabako ehunekoa ere handiagoa izan zen (%23).

Aurreko ahaideengatik egindako dedukzioak (2006)

Kontzeptua	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Aitorpen kopurua	3.617	8.349	3.567	15.533
Pertsona kopurua	3.642	8.781	3.081	15.504
Zenbatekoa (€)	738	1.848	650	3.236

5.3. Beste dedukzio fiskal batzuk

a) Adinarengatiko dedukzioa

Dedukzioa 65 urtetik gorako zergadunengatik egiten da, eta zergadunak 75 urtetik gora baditu, dedukzioa handiagoa izaten da. Hala, 2007ko aitorenpenetan, 65 urtetik gorako zergadun bakoitzeko dedukzio orokorra 300 eurokoa izan zen, eta 75 urtetik gorako zergadun bakoitzeko dedukzioa, berriz, 550 eurokoa.

2007ko aitorenpenetan, 65 urtetik gorako 192.000 zergadunek egin zuten aitorenpea, eta guztira ia 78 milioi euroko dedukzioak egin ziren. Lurraldeka, honela banatu ziren: %55, Bizkaian; %32, Gipuzkoan; eta %13, Araban.

Gainera, aipaturiko zergadunen %43 75 urtetik gorakoak izan ziren, eta dedukzioen %60 euri egin zizkieten.

Adinarengatik dedukzioak izan dituzten aitorenpenak eta zenbatekoak

Kontzeptua	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Aitorpen kopurua	26.687	105.274	59.974	191.935
Familia kopurua	24.716	94.260	55.328	174.304
Pertsona kopurua	35.093	141.968	81.960	259.021
> 65 urte	20.278	80.932	46.460	147.670
> 75 urte	14.815	61.036	35.500	111.351
Zenbatekoa (€)	10.416	42.858	24.513	77.787
> 65 urte	4.238	17.114	9.710	31.063
> 75 urte	6.178	25.744	14.803	46.724

b) Seme-alaben mantenuarengatiko dedukzioa

Epailearen erabakiz seme-alabak mantentzeko kuota ordaindu behar izaten duten zergadunei aplika dakiekeen dedukzioa da. Dedukzioak gehieneko mugak ditu, baina oro har, seme-alaben mantenuarengatiko ordaindutako zenbatekoaren %15ekoa izaten da.

2006an, 10.591 aitorenpenetan egin zuten dedukzioa, eta guztizko zenbatekoa 2,2 milioi eurokoa izan zen, honela banatuta: %17, Araban; %49, Bizkaian; eta %34, Gipuzkoan.

Seme-alaben mantenuarengatik dedukzioak izan dituzten aitorenpenak eta zenbatekoak

Kontzeptua	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Aitorpen kopurua	1.880	5.251	3.460	10.591
Familia kopurua	1.873	3.510	2.968	8.351
Zenbatekoa (€)	375	1.063	727	2.165

c) Ezintasunarengatiko dedukzioa

Dedukzioa ezintasunen bat duten zergadunei egiten zaie, minusbaliotasun-mailaren eta beste norbaiten laguntzaren beharraren (mendekotasuna) arabera, eta baita honako hauengatik ere: ondorengo edo aurreko ahaide bakoitzarengatik, ezkontidearengatik, izatezko bikotekidearengatik, edo laugarren mailarainoko zeharkako ahaide bakoitzarengatik, euren adina edozein dela ere, baldin eta ezinduak badira, zergadunaren ardurapean bizi badira, eta euren urteko errentak (zerga-gabeak kenduta) lanbide arteko gutxieneko soldata bi halako baino handiagoak ez badira.

Era berean, adingabeak babesteko eskumena duen erakunde publikoaren aurrean formalizatuta dauden tutoretza- edo harrera-harremanen bidez zergadunarekin lotuta dauden ezinduengatik ere dedukzio bera egiten da, errentari dagokionez gorago aipatu diren baldintzak betetzen badira.

Azkenik, lehenago aipatu diren ahaideetako edo parekatuetako bat ez izanagatik zergadunarekin batera bizi den pertsona bakoitzarengatik ere dedukzio bera egiten da, baldin eta 65 urte edo gehiago badituzte eta haien urteko sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata bi halakoa baino txikiagoak badira (zerga-gabeak kenduta).

2007ko aitorenpenetan, %33ko edo gehiagoko eta %65etik beherako minusbaliotasun-mailarengatik 625 euroko dedukzioa egin zuten, eta gehieneko dedukzioa, berriz, 1.457 eurokoa izan zen (%75eko edo gehiagoko minusbaliotasuna duten eta beste norbaiten laguntzarengatik 40 puntu edo gehiago lortu dituzten pertsonengatik).

Ezintasunarengatik egindako dedukzioei buruzko datuak honako hauek dira:

Ezintasunarengatik dedukzioak izan dituzten aitorenpenak eta zenbatekoak

Kontzeptua	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Aitorpen kopurua	12.223	45.112	32.757	90.092
Familia kopurua	11.685	40.717	30.239	82.641
Ezindu kopurua	12.626	46.711	33.727	93.064
Zenbatekoa (€)	9.481	36.893	26.348	72.722

d) Ohiko etxebizitza erosteagatiko dedukzioa

2007ko aitorenpenetan, ohiko etxebizitza erosteagatik %15eko dedukzioa egin zuten, oro har, eta 35 urtetik beherako zergadunei edo familia ugarietako titular diren zergadunei, berriz, %25eko dedukzioa egin zitzaien.

5. ildo estrategikoa: Zerga-politika eta errenta berriz banatzeko politika

Era berean, ohiko etxebizitzan inbertitzeko besteren kapitala erabiltzeagatik ordaindutako interesengatik %20ko dedukzioa egin zen (edo %30ekoa, zergadunak 35 urtetik behera bazituen edo familia ugariaren titular bazen).

2007ko aitortpenetan ia 390 milioi euroko dedukzioak egin ziren, eta lurraldeka, zenbatekoa honela banatu zen: %15, Araban; %51, Bizkaian; eta %33, Gipuzkoan.

Ohiko etxebizitza erosteagatik dedukzioak izan dituzten aitortpenak eta zenbatekoak

Kontzeptua	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Aitortpen kopurua	60.503	190.351	121.470	372.324
Familia kopurua	48.382	145.341	95.862	289.585
Zenbatekoa (€)	64.864	200.403	124.422	389.689

Ohiko etxebizitza erosteagatik dedukzioak izan zituzten familien %42,5 ondorengo ahaideak dituzten familiak izan ziren, eta dedukzioen %39 eurei egin zitzaizkien, hurrengo taulan adierazita dagoen moduan.

Ohiko etxebizitza erosteagatik dedukzioak izan dituzten aitortpenak eta zenbatekoak (ondorengo ahaideak dituzten familiak)

Kontzeptua	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Aitortpen kopurua	28.493	92.858	56.004	177.355
Familia kopurua	20.370	65.001	37.808	123.179
Zenbatekoa (€)	25.339	79.315	46.566	151.220

Ohiko etxebizitza erosteagatik dedukzioak izan zituzten familien %1,2 bakarrik izan ziren familia ugariak, eta dedukzioen %2 eurei egin zizkieten.

Ohiko etxebizitza erosteagatik dedukzioak izan dituzten aitortpenak eta zenbatekoak (familia ugariak)

Kontzeptua	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Aitortpen kopurua	785	3.064	1.407	5.256
Familia kopurua	560	2.145	902	3.607
Zenbatekoa (€)	1.117	4.573	1.921	7.611

e) Ohiko etxebizitza alokatzeagatik dedukzioa

Ohiko etxebizitza alokatzeko ordaindutako zenbatekoarengatik egiten den dedukzioa da. Dedukzioa %20koa izaten da, 1.600 euroko mugarekin. Dena den, zergaduna 35 urtetik beherakoa edo familia ugari bateko titularra denean, dedukzioa %25ekoa izaten da, 2.000 euroko mugarekin.

5. ildo estrategikoa: Zerga-politika eta errenta berriz banatzeko politika

2007ko errenta-aitorpeneko dedukzioen onuradunak 34.000 familiatik gora izan ziren, eta lurraldeka honela banatu ziren:

Kontzeptua	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Aitorpen kopurua	8.286	14.858	14.699	37.843
Familia kopurua	7.784	13.271	13.172	34.227
Zenbatekoa (€)	8.010	13.040	12.796	33.846

Ohiko etxebizitza alokatzeagatik dedukzioak izan zituzten familien %31 ondorengo ahaideak dituzten familiak izan ziren, eta dedukzioen %36 eurei egin zizkieten.

Kontzeptua	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Aitorpen kopurua	2.760	4.944	4.983	12.687
Familia kopurua	2.502	4.005	4.060	10.567
Zenbatekoa (€)	3.041	4.585	4.539	12.164

Ohiko etxebizitza alokatzeagatik dedukzioak izan zituzten familien %1 bakarrik izan ziren familia ugariak, eta dedukzioen %1,6 eurei egin zizkieten. Lurraldeka, familia ugarien ehunekoak honako hauek izan ziren: Araban, %1,1; Bizkaian, %1,3; eta Gipuzkoan, %0,7.

Kontzeptua	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Aitorpen kopurua	99	213	113	425
Familia kopurua	88	170	89	347
Zenbatekoa (€)	143	257	130	530

- Aurrekontua gauzatzea:

Zerga-politikaren eta errenta berriz banatzeko politikaren ildo estrategikoan 704.835.645 €-ko gastua egin da Planaren lehenengo zatian, eta bigarren zatirako aurreikusten den aurrekontua 492.496.036 €-koa da.

6. ildo estrategikoa: Gizartea sentiberatzea

Ildo estrategiko honetako oinarrizko helburuak bi dira: batetik, familiei laguntzeko neurrien eta laguntzen berri ematea, ahal bezainbeste onuradunek erabil ditzaten bermatzeko eta euren berri ez izateagatik erabili gabe gelditu daitezkeen saihesteko; eta bestetik, gizartea, oro har, eta eragile sozialak (elkartek, enpresaburuen elkarteak, enpresak, sindikatuak) familiaren garrantziaren gainean kontzientziatzea, familia baita belaunaldien arteko eta belaunaldi bakoitzeko elkartasun-eragile nagusia, eta euskal administrazioetako familia-politikaren oinarri diren balioen berri ematea.

Ildo honetan 4 esku-hartze mota daude, programen berri emateko eta gizartea sentiberatzeko. Honako hauek:

- *Informazio-kanpainak*
- *Publizitate-kanpainak*
- *Argitalpenak*
- *Biltzarrak eta jardunaldiak*

- **Betetze-maila**

- Saileko web orriko Familiaren arloa berriro diseinatzea eta eguneratzea, eta www.euskadi.net/familia web orrian familiaren arloko eduki espezifikoetarako lasterbideak ezartzea (legedia, laguntzak, programak, zuzeneko laguntzak, bateratzea).

- Hedabideetan Planeko laguntza guztien berri ematea:
 - 2006ko ekainaren 4an, seme-alaben jaiotzarengatik ematen diren laguntzen iragarki bat jarri zen El Correo, Diario Vasco, Berria, Gara eta Deia egunkarietan (orri osoa, koloretan).
 - 2007ko azaroaren 5ean, Familiei Laguntzeko Planari buruzko iragarki bat argitaratu zen El Correo, Diario Vasco, Berria, Gara eta Deia egunkarietan.
 - 2008ko apirilaren 4an, iragarki bakar eta espezifiko bat jarri zen Hirukide elkarteko aldizkarian (koloretako faldoia).
 - 2008ko urriaren 5ean, adinekoak zaintzeko laguntzei buruzko iragarki bat jarri zen El Correo, Diario Vasco, Berria, Gara, Deia, El Mundo, El País, Diario de Gipuzkoa eta Diario Noticias de Alava egunkarietan (orri erdia, koloretan).

6. ildo estrategikoa: Gizartea sentiberatzea

- Liburuxkak / triptikoak bidaltzea osasun-etxeetara, bake-epaitegietara, eta erregistro zibiletara, laguntzen eta neurrien onuradun izan daitezkeen pertsonen artean banatzeko:
 - 2006. 21x10 formatuko liburuxkak, 12 orrialde
Guztira= 5.000 unitate
 - 2007. A-5 formatuko liburuxkak , 40 orrialde
Guztira= 3.000 unitate
 - 2008. A-5 formatuko liburuxkak , 40 orrialde
Guztira= 46.000 unitate: 3.000 unitate (2008-1-11) + 3.000 unitate (2008-2-12) + 40.000 unitate (2008-3-4)
 - Guztira= 54.000 unitate: 5.000 unitate (2006-6-21) + 3.000 unitate (2007-7-8) + 46.000 unitate (2008-3-4)
- “*Población y Familias en Áreas Rurales. Políticas y Estrategias Socio territoriales*” ikastaroan txostengile gisa parte hartzea (2007, Kantabriako Unibertsitatea).
- Aitatasun-baimena sustatzeko III. eta IV. Sentiberatze-Jardunaldietan txostengile gisa parte hartzea (familia eta lana bateratzea, 2006 eta 2007, Leizaola Fundazioa, Bilbo).
- “*Políticas públicas para las familias en perspectiva estatal (Cataluña, Navarra, Galicia, Comunidad Autónomas del País Vasco)*” mahai-inguruan txostengile gisa parte hartzea, “*Cambio demográfico; un desafío para las políticas públicas*” foroaren baitan (Galiziako Xuntako Berdintasunaren Idazkaritza Nagusia).
- Hainbat elkarrizketa eta mintzaldi, familiari laguntzeko programak eta Familiei Laguntzeko Legearen oinarriak azaltzeko.
- Artikuluak, familientzako aldizkarietan.

- Aurrekontua gauzatzea

Illo estrategiko honetan 1.348.541 €-ko aurrekontua gauzatu da Planaren indarraldiko lehenengo zatian (2006-2008), eta 2009an eta 2010ean 962.663 € erabiliko dira.

- Estaldura eta eragina

Familiei Laguntzeko II. Planeko neurrien eta prestazioen berri emateko kanpainak ahal bezain argiak eta zehatzak izan dira, eta hainbat

hedabidetan (prentsan argitaratutako iragarkiak) eta “a priori” erabiltzaileak egon daitezkeen lekuetan (osasun-etxeak eta erregistro zibilak) egin dira. Kanpainen bidez honako hauek azaldu dira: neurriak zein diren, neurri bakoitza nori zuzenduta dagoen, eta neurri bakoitza baliatzeko bete beharreko baldintzak, egin beharreko urratsak, eta bete beharreko epeak zein diren.

Planeko laguntzak eta neurriak onuradun oso zehatzentzat dira (gurasoak edo mendeko adinekoak zaintzen dituzten pertsonak), eta estaldura-indizeetan ikus dezakegunez, laguntzen eta neurrien onuradun izan daitezkeen pertsonak badute neurrien berri, batik bat gune espezializatueta jaso dituzten liburuxken bidez. Gainera, prentsan egindako kanpainen ere laguntzen eta neurrien berri irakurri edo entzun dute.

2008ko Familiei Buruzko Inkestako emaitzek bi ideia hauek berresten dituzte: batetik, zaintzaileak kontratatzekeo diru laguntzek eta adinekoak zaintzeko eszedentziek edo lanaldi-murrizketek oso entzute mugatua dutela herritarren artean; eta bestetik, seme-alabak zaintzeko laguntza ekonomikoen gaineko nahasmendua nabarmena dela, neurri on entzutea eta estaldura-indizeak ez baitatoz bat.

Inkestari erantzun dioten 10 pertsonatik 4k adierazi dutenez, badute eszedentzia hartzeko edo lanaldia murriztekeo laguntza ekonomikoen berri. Dena den, balizko onuradunekin egindako eztabaida-taldeetan ikusi ahal izan dugunez, parte-hartzaileek badakite eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eska daitekeela, baina ez dakite, ordea, Eusko Jaurlaritzak horretarako laguntza ekonomikoak ematen dituela.

Familiei laguntzeko neurrien gaineko ezaguera

Familiei Laguntzeko II. Planeko laguntzak	Bai	Ez
Seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoak	%39,1	%60,9
Adingabeak zaintzeko eszedentzia	%40,7	%59,3
Adingabeak zaintzeko lanaldi-murrizketa	%41,4	%58,6
Zaintzaileentzako diru-laguntzak	%19,4	%80,6
Mendeko pertsonak zaintzeko eszedentzia	%31,1	%68,9
Mendeko pertsonak zaintzeko lanaldi-murrizketa	%30,7	%69,3

Oinarria: 4.880 inkestatu.

Iturria: Familiei Buruzko Inkesta, 2008.

Familia-unitate motak kontuan hartuz gero (ahaidetasun-harremanak dituzten eta etxe berean bizi diren pertsonak osatutako unitate motak), batzuen eta besteen artean ez dago alde handiegirik, baina kontuan hartzen bada familia mota batzuek pisu txikia dutela (adibidez, mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso bakarrekeo familiak),

6. ildo estrategikoa: Gizartea sentiberatzea

seme-alabak dituzten familiei zuzendutako neurri zehatz batzuek entzute handixeagoa dute mendeko seme-alabak dituzten familia-egituretan (batik bat heldu-bikote batek eta mendeko seme-alabek osatutako familietan). Kasu horretan, familien %60k baino gehiagok ezagutzen dituzte seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzeko edo lanaldia murrizteko laguntzak.

Familiei laguntzeko neurrien gaineko ezaguera, familia motaren arabera

Familia-unitate nagusiak	Seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoak	Adingabeak zaintzeko eszedentzia	Adingabeak zaintzeko lanaldi-murrizketa	Zaintzaileentzako diru-laguntzak	Mendeko pertsonak zaintzeko eszedentzia	Mendeko pertsonak zaintzeko lanaldi-murrizketa	Oinarria
Pertsona bakarra	%29,5	%28,8	%29,6	%14,2	%24,3	%23,5	865
Familiaz kanpoko bizikidetzak-unitatea	%24,6	%24,6	%29,5	%9,8	%19,7	%16,4	61
Familia-gunerik gabeko ahaideak	%16,9	%16,9	%16,9	%12,0	%14,5	%15,7	83
Gurasotasun aurreko familiak	%47,9	%52,1	%54,4	%21,7	%36,6	%35,6	309
Mendeko seme-alabak dituzten guraso-familiak	%57,1	%62,0	%62,6	%26,8	%42,3	%42,3	1.486
Mendekoak ez diren seme-alabak dituzten guraso-familiak	%31,9	%33,5	%34,4	%18,0	%29,0	%28,0	511
Gurasotasun ondoko familiak	%25,8	%26,7	%27,0	%13,7	%23,7	%22,9	1.006
Mendeko seme-alabak dituzten ezkontza ondoko familiak	%40,9	%34,4	%35,5	%23,7	%31,2	%30,6	186
Mendekoak ez diren seme-alabak dituzten ezkontza ondoko familiak	%31,7	%33,2	%31,7	%19,0	%26,5	%27,6	268
Mendeko seme-alabak dituzten ezkontzaz kanpoko ama- edo aita-familiak	%40,0	%50,0	%50,0	%30,0	%20,0	%30,0	10
Mendekoak ez diren seme-alabak dituzten ezkontzaz kanpoko ama- edo aita-familiak	%50,0	%25,0	%25,0	%25,0	%25,0	%25,0	4
Familia polinuklearrak	%42,9	%29,7	%30,8	%16,5	%27,5	%27,5	91
Guztira	%39,1	%40,7	%41,4	%19,4	%31,1	%30,7	4.880

- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa

Idatzizko prentsan laguntzen berri eman bezain laster dei ugari jasotzen dira arreta-telefonoetan, eta beraz, eraginkortasun handiko laguntzak direla eta onuradun izan daitezkeenek laguntzei buruzko informazio zehatzagoa nahi izaten dutela esan dezakegu.

Hala, gune espezifikotan (ama-haurrentzako unitateak, erregistro zibilak, etab.) banatutako liburuxken arrakasta erlatiboa dela baieztatu dezakegu: batetik, liburuxkek interesa sortzen dute, baina bestetik, onuradun izan daitezkeenek zenbait zalantza izaten dituzte, eta batzuetan, liburuxkak banatzen dituzten langileek ezin izaten dituzte zalantzok guztiz argitu. Halakoetan, langileon borondate ona guztiz beharrezkoa izaten da zalantzak argitzeko.

Bestalde, Planeko neurrien onuradunekin egindako elkarrizketetatik eta eztabaida-taldeetatik ondorioztatu dugunez, *ahoz ahokoak*, eskarmentuak

6. ildo estrategikoa: *Gizartea sentiberatzea*

eta gomendioek (lagunak, ahaideak, etab.) garrantzi handia dute, eta horrek guztiak, batzuetan, ondorio kaltegarriak izaten ditu; izan ere, mezua alda daiteke, mezua ulertzeko zailtasunak sor daitezke, herritarrak nahas daitezke, eta laguntzen gaineko uste okerrak sor daitezke.

Dudarik gabe, Planeko neurri berritzaileak dira herritarrek gutxien ezagutzen dituztenak (mendeko adinekoak zaintzeko eszedentzia hartzeko edo lanaldia murrizteko laguntzak edo zaintzaileentzako diru-laguntzak).

Gainera, zaila da mezu hau seme-alabak dituzten gurasoei zuzendutako gainerako neurriei buruzko komunikazio-kanpainetan sartzea eta programa nahiko berria da. Horrek ere mugatu egiten du neurriei buruzko ezaguera.

Bestalde, Estatuan edo tokiko mailan ere antzeko neurriak hartzen dira (laguntzak seme-alaben jaiotzarengatik), eta ondorioz, batzuetan ez da argi gelditzen laguntza bakoitza nork ematen duen.

7. ildo estrategikoa: Elkartze-mugimendua eta herritarren parte-hartzea sustatzea

Illo estrategiko honek elkartze-mugimendua indartzea du xede, familiari arreta eta babesa emateko jarduerak eta proiektuak egiten dituzten erakundeetarako laguntzen bidez, eta baita herritarren parte-hartzea bultzatzea ere, elkarteen eta erakundeen arteko parte-hartze bideen bitartez.

7.1. Familiaren eremuan aritzen diren erakundeak indartzea

Familiari Laguntzeko II. Plana jarraipena ematen ari da aurreko etapan abiatutako ahaleginei, eta horretarako, diru-laguntzetan oinarritutako harremana ezarri da Euskal Autonomia Erkidegoan familiaren arloko programak eta jarduerak egiten dituzten erakundeekin.

- Betetze-maila / Aurrekontua gauzatzea

Familiaren arloko erakundeei diru-laguntzak emateko aurrekontua %3,5 handitu da, batez beste, Familiari Laguntzeko II. Planaren indarraldiko urte bakoitzean, eta beraz, familiaren arloan lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko 30 entitate ari dira bultzatzen, batez beste. Dena den, kontuan hartu behar da batzuetan erakunde berak diru-laguntza bat baino gehiago jasotzen dituela hainbat programa edo ekintza gauzatzeko, eta beraz, sustatzen ari diren gaiak askoz gehiago direla esan daiteke.

Familiaren arloko elkarteei diru-laguntzak emateko aurrekontua eta programak

	2006	2007	2008	Aldea 08-07
Aurrekontua	579.259 €	602.428 €	620.501 €	18.073€
Programak	31	34	44	10

Familiaren arloan lan egiten duten elkarteei diru-laguntzak emateko programaren zuzkidura ekonomikoa eta finantzatutako programa kopurua handitu egin dira urtez urte, eta gainera, elkarteen parte-hartzea bikaina da. Beraz, programa sendotzen ari dela esan daiteke.


7. ildo estrategikoa: Elkartze-mugimendua eta herritarren parte-hartzea sustatzea

- Estaldura eta eragina

Familiaren arloan lan egiten duten entitateak bultzatzeko diru-laguntzen programaren onuradun diren elkarten eta fundazioen iritzia ezagutze aldera, eta Planeko programei eta Familia Zuzendaritzaren gainerako esku-hartzeei buruzko feed-backa bultzatze aldera, azterketa kualitatibo zein kuantitatibo bat egin dugu, elkarrizketen eta on-line inkestaren bidez. Guztira 18 elkarten erantzun dute (diru-laguntzen onuradunak 24 elkarte dira).


Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, web orria, eta Eusko Jaurlaritzaren komunikazio ofiziala dira irabazi-asmorik gabeko entitateek familiaren arloko Diru-laguntzen Programaren berri jakiteko hedabiderik eraginkorrenak, eta familiaren arloko programak edo jarduerak egin nahi dituzten elkarte, kooperatiba eta gobernuz kanpoko erakunde gehienek (%77,7) web orria hautatzen dute diru-laguntzen eskariak egiteko bide gisa.

Elkarteen Diru-laguntzen Programaren berri jakiteko erabiltzen dituzten hedabideak



Oinarria: 18 elkarte

Elkarteen diru-laguntzak eskatzeko erabiltzen dituzten bideak



Oinarria: 18 elkarte.

7. ildo estrategikoa: Elkartze-mugimendua eta herritarren parte-hartzea sustatzea

2007an emandako diru-laguntzei dagokienez, Familiaren Batzordeko aurrekontuaren gehiengoa euren kargura seme-alabak dituzten familien bizi-kalitatea hobetzeko izan zen, eta batez ere, egoera bereziki ahulean dauden familien bizi-kalitatea hobetzeko.


Gainera, ekintza asko onartu dira familia-egoera berriei eta programa- eta jarduera-eskari berriei aurre egiteko, familiako indarkeria eta gatazkak murrizteko, familia-egitura berriei laguntzeko, eta familien askotarikotasuna errespetatu eta ezagutu dadin sustatzeko.

Emakumearen arloko aurrerapausoak eta etxean eta familian berdintasuna eta armonia lortzeko ahaleginak kontuan hartuta, etxeko bizimoduaren arloan egiteko asko dagoela esan daiteke, eta beraz, elkarteek bizimodu pertsonala, familia eta lana bateratzeko jarduerak gauzatzen jarraitu beharko dute. Seme-alaben hezkuntzari eta zaintzari begira bi bikotekideek erantzukizun bera izan dezaten sustatzeko diru-laguntzak ematen diren bezalaxe, edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak dituen abantaila pertsonalak eta sozialak ezagutzera emateko jarduerak egiten diren bezalaxe, lanean jarraitu beharko da familia-giro optimoa eta osasuntsua sortzeko.

Familiari Laguntzeko Planaren eginkizun nagusietako bat komunikazio-lana egitea dela kontuan hartuta, irabazi-asmorik gabeko elkarteei eta entitateei emandako diru-laguntzen artean dauden programa edo jarduera batzuek lanaren arloko eragile sozialak bi arlo hauei buruz kontzientziaztea dute helburu: batetik, bizimodu pertsonala, familia eta lana bateratzeko neurriak abiatzeko beharra, eta bestetik, orientazioaren, familiako aholkularitzaren eta komunikazio sozialaren arloetan lan egiteko beharra.

Familiaren arloan lan egiteko Diru-laguntzen Programaren baitan Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzen gaineko iritziari dagokionez, inkestetako batez besteko gogobetetze-maila 6,12 puntukoa da (10 puntu guztira). Baloraziorik onena lortu duten alderdiak alde aurreko prozesuarekin lotuta daudenak dira (aurkeztu beharreko dokumentuak, eskaerak egiteko informazioa, edo aurkezpen-epea). Aldiz, irabazi-asmorik gabeko elkarte, fundazio eta entitateek gutxien baloratzen dituzten alderdiak diru-laguntza eman ondorengoak dira (ordaintzeko modua, diru kopurua, eta bereziki, ebazteko epea).

Kontsultatutako elkarten balorazioa



Oinarria: 18 elkarte
(Eskala:0-10 puntu)

Batzuetan, elkarteak ez dira oso gustura egoten programarekin. Izan ere, diru-laguntzaren %100 espero dute, eta Familiaren Batzordeak, berriz, sustatzen laguntzea eta hasierako laguntza edo bultzada ematea du helburu. Horregatik, potentziala ahal bezainbeste aprobetxatzeko moduan eta ahal bezainbeste proposameni laguntzeko moduan kudeatzen ditu bere baliabideak, proposamen bakoitza oso-osorik finantzatu ezin badu ere.

Hala, Eusko Jaurlaritzako Familiaren Batzordeak eskatutako laguntzaren %9tik %100era bitarteko diru-laguntzak banatzen ditu. Programa edo jarduera guztiak desberdinak dira, eta beraz, ez dago ehuneko estandarrik; dena den, elkarteei egindako inkesten arabera, eskatutako diru-laguntzen %61,5ean proposatutako programa edo jarduera gauzatzeko beharrezkoa den aurrekontuaren %40 gutxienez finantzatu da.

- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa

Elkarteek egindako balorazio kualitatiboetatik ondoriozta daitekeenez, familiari laguntzeko ekintzak egiteko diru-laguntzak lortu dituzten elkarteak gustura daude, oro har, lortutako laguntzarekin. Gainera, saileko teknikarien arreta, tratua eta laguntza bikainak eta oso profesionalak izan direla uste dute. Dena den, hobetu daitezkeen alderdiak ere badaude, programako epeei dagokionez (aurkezpena eta ebazpena/ordainketa).

Zentzu horretan, diru-laguntzen deialdiari dagokionez, aurkezpen-epea (hilabete 1) nahikotzat jotzen dute, baina ez, ordea, aurkezpen-epea noiz hasten den, eta ezta ebazpen-epea ere. Bi alderdiok nabarmen mugatzen dute diru-laguntzak jaso ditzaketen proiektuen bideragarritasun ekonomikoa, eta baita aurkeztutako ekimenen egokitasuna ere.

7. ildo estrategikoa: Elkartze-mugimendua eta herritarren parte-hartzea sustatzea

Ebazpena urteko azken hiruhilekoan egiten da, eta horrek elkarteen lana oztopatzen du. Hala, diru-laguntza jasoko dutela baieztatu arte, elkarreek ez dakite kasuan kasuko proiektua finantzatu ahal izango duten, eta horregatik, sarritan proiektuak nabarmen atzeratzen dira, diru-laguntzaren mende daudelako.

Zailtasunok arintze aldera, bi proposamen hauek egin dituzte. Batetik, deialdiak lehenago egitea (baita ekitaldia hasi aurretik ere), entitateek programen plangintza egin ahal izateko, eta ebazpena egin arte itxoitea, egiazko aurrekontua zein izango den ikusteko. Eta bestetik, ebazpena bizkor eta arin egitea; horixe bera da elkarteen eskakizun nagusia, eta euren eustez, ebazpen-epe egokia aurkezpen-epearen antzekoa izango litzateke (1-2 hilabete).

Era berean, sustatu beharreko beste ildo bat ere azpimarratu dute elkarreek: herritarrengan eragina duten, berritzaileak diren edo proiektu esperimentalak abiatzea ahalbidetzen duten ekimenak, hain zuzen.

7.2. Herritarren parte-hartzea sustatzea

Planarekin zerikusia duten eragile sozialen parte-hartzea bermatze aldera, bi ekintza nagusi ezarri dira:

- Familiaren Euskal Kontseilua sortzea, Familiei Laguntzeko Legea indarrean sartu eta urtebeteren buruan.
- Familiaren Batzorde Iraunkorren bilerak egitea, eragile sozialek parte hartzeko foro gisa.

Betetze-maila

Familiei Laguntzeko Legea berriki onartu da, eta haren arabera, urtebeteko epean Familiaren Euskal Kontseilua sortu beharko da (2009aren amaierarako, hain zuzen). Kontseiluaren araudia, funtzionamendua eta egitura dagozkion dekretuen bidez arautu beharko dira.

Kontseilua sortu bitarte, Familia Sektoreko Batzorde Iraunkorra izango da familiari arreta, laguntza eta babesa eskaintzea helburu duten irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuen topaleku (Elkarteen edo Fundazioen erregistroan izena emanda dauden entitateen topaleku). Batzordearen bilerak eta lan-saioak aldi berean behin egin dira, batik bat Planaren indarraldiko lehenengo etapen (2006an eta 2007an), eta gonbidatutako eragileen parte-hartzea zabala izan da.

Aurrekontua gauzatzea

Ez dago berariazko aurrekonturik Familiaren Euskal Kontseilua sortzeko eta Familiaren Batzorde Iraunkorreko bilerak egiteko, eta beraz, ez da zuzkidura ekonomikorik gauzatu.

Estaldura eta eragina

Gaur egun indarrean dauden batzordeak (Familia Sektoreko Batzorde Iraunkorra eta Erakundeen Batzordea) Familiaren Euskal Kontseiluari atxikita egongo dira etorkizunean, eta ondorioz, Kontseiluak Herri Administrazioen (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta udalak) eta enpresa-erakundeen, sindikatuen, irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuen eta fundazioen ordezkari izango du.

Familiaren Euskal Kontseilua Familiei Laguntzeko Legean ezarritako epearen baitan sortu eta abian jarri ondoren, haren esku-hartzeen eta eraginaren gaineko balorazioa egingo dira.

- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa

Elkartek nabarmen ari dira parte hartzen, diru-laguntzen programaren bidez, Familia Zuzendaritzak, Planak berak, eta berrikiago Familiei Laguntzeko Legeak ezarritako parte-hartze bideen bidez, eta Familiaren Batzorde Iraunkorren bidez. Familiaren Batzorde Iraunkorra eragile sozialek parte hartzeko foroa da, eta beraz, elkarteek eskertu eta goraipatu egiten dute ekarpenak eta eskariak egiteko aukera izatea eta talde gisa dituzten beharrianak zein diren adierazteko aukera izatea, bide honen zein beste batzuen bidez.

Eragile sozialek etengabe eta modu iraunkorren parte har dezaten sustatze aldera, beharrezkotzat jotzen da Familiaren Euskal Kontseiluaren funtzioei eta jarduteko moduei buruzko araudia sortzea, bileren egutegia ezartzea (gutxi gorabeherakoa), egin beharreko ekintzak zehaztea, eta kontseilua dinamizatuko duten arduradunak izendatzea.

Gainera, eragile sozialen parte-hartzea etengabe indartze aldera, informazioa etengabe trukatzeko formula berriak sor daitezzen eskatzen dute eragileek. Esate baterako, Familia Zuzendaritzaren web orrian eztabaida-foroak sor daitezzen eskatzen dute.

8. ildo estrategikoa: EAEn familia-errealitateari buruzko jakintza aztertzea eta zabaltzea

Gizarteari, oro har, eta familiaren arloan jarduten diren gizarte-eragileei, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko familia-errealitateari buruzko informazioa ematea da ildo estrategiko honen funtsezko helburua, eta baita familiei babesa eskaintzeko politiken eragina aztertzea ere.

Xede horrekin, hiru esku-hartze nagusi aurreikusten dira:

- *Familiaren Behatokia sortzea*
- *Familiari laguntzeko sistemai buruzko informazioa biltzea*
- *Familia-errealitateari buruzko azterlanak egitea*

- Betetze-maila

Lehenengo ildo estrategikoan (1. ildo estrategikoa: Araudia garatzea) aurreikusita dagoen moduan, Familiaren Behatokia Familiei Laguntzeko Legearen bidez sortu beharko da. Hala, legea indarrean sartu ondoren, 6 hilabeteko epea ezarri zen behatokia sortzeko eta abian jartzeko, eta beraz, behatokiak abian egon beharko luke 2008ko ekainerako. Familiaren Behatokiaren egitekoa honako hau izango da: familiei laguntzeko sistemak biltzea eta sistematizatzea.

- Aurrekontua gauzatzea

Behatokia oraindik ez da lanean hasi, eta beraz, orain arte gauzatu den aurrekontua 194.781 €-koa izan da. Zenbateko horren bidez 2008ko Familiei Buruzko Inkesta egin da, eta bertan, zenbait galdera egin dira Planeko neurrien eta programen entzuteari, erabilerari eta balorazioari buruz, herritarren iritzia kuantitatiboki ezagutze aldera. Era berean, Planaren indarraldiko gainerako urteetako aurrekontua 407.268 €-koa izango da, aurreikuspenen arabera.

- Estaldura eta eragina

Familiaren Behatokia abian jartzeko dagoen honetan, 2008ko Familiei Buruzko Inkestaren bidez ezagutu daiteke euskal familien errealitatea. Inkestaren bidez, era berean, honako informazio hau ere bil daiteke:

1. Etxe eta familia-unitate moten sailkapena, tamainaren eta osaeraren arabera
2. Etxe eta familia-unitate moten banaketaren bilakaera, eta biztanleriaren banaketaren bilakaera, etxe eta familia-unitate motaren arabera
3. Azkeneko 12 hilabeteetan familia-unitateen osaeran gertatu diren aldaketak
4. Arazoen eta beharraren eragina, familia-unitate motaren arabera
5. Familia-unitateen eta unitateotako helduen autonomia ekonomikoa (nahikoa baliabide ekonomiko)
6. Bizigaiekin eta ostatuarekin zerikusia duten beharrizanen asetze-maila
7. Erakundeen laguntzaren beharra, honako arlo hauetan:
 - haurrak,
 - familia,
 - adinekoak, eta
 - ezintasuna
8. Gizarteratze Planeko eta Familiei Laguntzeko Planeko neurri, programa eta prestazio ekonomiko nagusien gaineko ezaguera, erabilera, balorazioa, jarrera eta iritzia

- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa

Zortzigarren ildoak garatzeko Familiaren Behatokia sortu eta abiatu beharko da, eta ondorioz, Planaren indarraldiko lehenengo fasean ez da nabarmentzeko moduko aurrerapausorik egin EAEko familia-errealitatea aztertzeko eta haren berri emateko. Batik bat, gauzatu diren politiken eragina aztertu da, eta gainera, Familia Zuzendaritzak harreman zuzena izan du familiaren arloan lan egiten duten elkarteekin eta eragileekin.

Beraz, Planaren indarraldiko bigarren fasean, behatokia abian jarri ondoren, arlo horretan sakondu beharko da eta unean uneko familia-errealitateak neurtzeko eta aztertzeko sistemak sortu beharko dira.

9. ildo estrategikoa: Planaren jarraipena eta ebaluazioa

Planeko konpromisoak eta helburuak bete daitezen bermatzea da ildo estrategiko honen funtsezko helburua. Horretarako, Planeko neurrien eta programen betetze-maila aztertu dugu eta hobekuntza-proposamenak egin ditugu, etorkizunean beste programa batzuk diseinatzeko eta gauzatzeko.

- Betetze-maila

Bederatzigarren ildoan garatze aldera, funtsezko neurriak eta programak abian jartzeko egitaraua ezarri zen, eta ia osorik gauzatu da, langile autonomoei laguntzeko neurrien kasuan izan ezik. Era berean, hainbat txosten egiteko konpromisoa ere hartu zen: urteroko txostenak, amaierako txostena (Planaren indarraldia amaitu ondoren), eta txosten osagarriak, beharrezkoa izanez gero. Hain zuzen ere, txosten osagarriak egitea beharrezkotzat jo da lana eta familia-bizitza bateragarri egiteko laguntzei buruzko Dekretua indargabetu ondoren, edo Familiei Laguntzeko Legea onartu aurretik; orduan, memoria ekonomiko bat egin zen, Planaren baitan gauzatutako aurrekontua eta gainerako urteetarako aurreikusitako aurrekontua zehazteko.

- Aurrekontua gauzatzea

2007an eta 2008an 67.182 €-ko aurrekontua gauzatu da Familiei Laguntzeko II. Plana ebaluatzen. 2006a ez zen aurrekonturik egon; izan ere, ohiz kanpoko urtea izan zen, eta Plana abiatu besterik ez zen egin. Planaren bigarren fasarako aurreikusten den gastua, berriz, 33.000 €/urte da (2009-2010).

- Estaldura eta eragina

Familia Zuzendaritzako teknikariak hainbat aldiz bildu ziren Planeko eskuhartze nagusien kronograma egiteko. Gainera, EJIEko (Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea) langileekin koordinazio-saioak egin ziren, aplikazio informatikoak egokitzeko, eta beste sail batzuekin eta Ebaluazio Zuzendaritzarekin hainbat bilera egin ziren, egutegia betetzeko aukerak aztertzen.

Bestalde, Planeko laguntza eta programa nagusiak abian jarri eta gauzatu aurretik koordinazio-bilera asko egin dira, Ebaluazio Zuzendaritzarekin, Saileko zerbitzu juridikoekin, araudiaren garapenaren (lehenengo ildo estrategikoa) arduradunekin, EJIEko zerbitzu informatikoekin (Planaren betetze-maila aztertzeko eta Familia Zuzendaritzaren eskumeneko neurri berriak -lana eta familia-bizitza bateragarri egiteko laguntzak- kudeatzeko beharrezkoak diren estatistikak eta sailkapenak egiteko), web orriaz

arduratzen diren zerbitzu informatikoekin (laguntzen eskariak eguneratzeko eta ezartzeko), eta Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzarekin (lana eta familia-bizitza bateragarri egiteko programa behar bezala gauzatzeko).

- Diseinuaren eta kudeaketaren balorazioa

Planeko ildo batzuetako helburuak kuantitatiboki neur daitezke, argi eta garbi, betetzeko eta gauzatzeko konpromisoa ezarri delako (araudiaren garapena) edo neur daitezkeen estaldura-adierazleak ezarri direlako (haur- eskolen estaldura). Beste neurri edo programa batzuek, ordea, oraindik ez dute estaldura- edo helmen-helbururik, eta beraz, ez dago ebaluazio- eta neurketa-adierazlerik.

Era berean, seme-alabak zaintzeko laguntza ekonomikoen zenbatekoa handitzeko eta adin-tartea zabaltzeko kronograma zehatza ezarri beharko da, Familiei Laguntzeko Legean 2020ra begira ezarri den helburua betetzeko; hots, arlo horretan Europako maila berean egoteko. Kronograma dagozkion dekretuen bidez arautu beharko da.

Ondorioak.

Familiei Laguntzeko Erakundeen Arteko II. Planaren ebaluazioa amaitzeko, Gauzapenaren Diagnostika aurkeztuko dugu segidan.

Beraz, Planaren lorpen nagusiak aztertuko ditugu, eta Familiei Laguntzeko Lehenengo Plana ebaluatu ondoren, II. Planaren bidez garatu beharreko zatitza jo ziren elementuei arreta berezia eskainiko diegu.

Era berean, Planaren bigarren fasean garatu edo hobetu beharko diren alderdiak ere aurkeztuko ditugu. Alderdiok Plan osoa hobetzea ahalbidetuko dute, hain zuzen.

- Familiei Laguntzeko II. Planaren hasieran ezarri zen lehentasunetako bat familiaren arloko arau-esparru zabala ezartzea izan zen, Euskal Autonomia Erkidegoko politika sozialen oinarriak ezartzeko eta Planeko programak eta neurriak arautzeko, 2020an Europako mailan egote aldera. Horretarako, 2008aren amaieran Familiei Laguntzeko Legea onartu zen, eta bertan, Planean orain arte indarrean egon diren neurriak eta laguntzak biltzeaz gain, seme-alaben jaiotzarengatik ematen diren laguntza ekonomikoak adin-nagusitasunera bitarte luzatzeko konpromiso irmoa ere hartu da. Legeak, gainera, familiaren arloko eskumenak dituzten organoak ere antolatu ditu (Familiaren Behatokia eta Familiaren Euskal Kontseilua), eta organo horiek dagozkien dekretuen bidez arautu beharko dira, eta legean ezarritako epeen baitan abiatu beharko dira. Legean, bestalde, laguntzak eskubide subjektibo gisa sailkatu dira, eta beraz, legez eska daitezkeen eskubideak direla esan daiteke.
- Aurrerantzean ere Planeko neurriak unibertsalak izango dira, Europako joerari jarraiki, eta diskriminaziorik ezaren printzipioa aplikatuko da, errealitate sozial guztiak eta familia-eredu guztien beharrezko kontuan har daitezkeen bermatzeko.
- Plana erakundeen artekoa da, eta hainbat eragileren esku-hartzeetan eta jardunean oinarritzen da (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, udalak, eta irabazi-asmoa duten zein irabazi asmorik ez duten entitate pribatuak). Ondorioz, beharrezkoa da eragileok elkarlanean jardutea eta Planean parte hartzea, Familia Zuzendaritzaren dinamizazioarekin.
- Familiei Laguntzeko I. Plana amaitu zenean, zenbait gabezia hauteman ziren, laguntzen onuradun izan zitezkeen taldeei dagokienez, eta horrek Planaren unibertsaltasuna mugatu zuen. II. Planean, berriz, programetan parte hartzeko aukerak zabaldu egin dira, eta adibidez,

adopzio-aurreko harreran dauden hurrek edo adoptatutako hurrek eta berezko seme-alabek balio bera dute. Gainera, laguntza bereziak ezarri dira erditze anitzetarako edo ezintasunen bat duten adingabeentzat.

- Programa batzuk indartu eta zabaldu egin dira (laguntzak seme-alaben jaiotzarengatik, baita lehenengo seme-alabarengatik ere, edo adingabeak zaindu behar direnean lana eta familia-bizitza bateragarri egiteko programa). Gainera, Familiei Laguntzeko I. Planaren ondoren jaso diren eskaerak eta hauteman diren sentsibilitate berriak kontuan hartuta, II. Planean programa osagarriak eta berritzaileak sortu dira, hala nola zaintzaileak kontratatzekeko programa edo beste norbaiten laguntza behar duten adinekoak (mendeko adinekoak) zaindu behar direnean lana eta familia-bizitza bateragarri egiteko laguntzak.
- Familiaren arloan lan egiten duten elkarteak nabarmen ari dira parte hartzen Planean, eta Familia Zuzendaritzarekin lankidetzan jarduteko borondate argia dute. Aurrerantzean alderdi hori sustatu eta aprobetxatu beharko da, diru-laguntzen bidez eta hainbat motako lankidetzaprogramen bidez.

Dena den, Planaren indarraldiko bigarren fasean zenbait alderdi sustatu beharko dira. Honako hauek, hain justu:

- 2020an Europako maila berean egoteko konpromisoa aurrerapauso sozial argia izanagatik, egutegi zehatz bat ezarri eta tarteko urratsak markatu beharko lirateke, azken helburua erdieste aldera.
- Bestalde, Planeko helburuen estaldura-maila eta betetze-maila kalkulatu ahal izateko, adierazle zenbakarriak eta zehatzak ezarri beharko lirateke, halakorik ez duten programetan.
- Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak autonomoei ere emateari dagokionez (I. Planeko eskakizun nagusietako bat horixe bera izan zen), oraingoz ezin izan da halakorik egin, langile autonomoen estatutuan aurkitu diren zailtasunak direla-eta. Beraz, aurrerantzean landu beharreko arloa da.
- Haur-eskolen estaldurari buruzko helburuak oso argiak dira, eta ondorioz, helburuok neurtu egin daitezke. Oro har helburuak betetzen ari dira, baina arlo eta udalerrri batzuetako gabeziek eta eskariak bere horretan diraute, eta beraz, Hezkuntza Sailaren konpromisoa ez ezik, udalen borondatea eta bi erakundeen arteko koordinazio estua ere beharrezkoak izango dira.

- Bestalde, 0-3 urteko haurrak eskolatzeko diru-laguntzak jasotzeko errenta-baremoak zabaltzeko aukera ere aztertu beharko da, laguntzak talde gehiagori eskaini ahal izateko.
- Era beran, haur-eskolen sarearen osagarri gisa, eragileek eta erakundeek lanean jarraitu beharko dute, lana eta familia bateratzeko aukerak bultzatzeko tresnak antolatze aldera. Hala, aisialdiko hezkuntzaren arloko baliabideak eta programak antolatu beharko dira.
- Beste norbaiten laguntza behar duten adinekoak zaindu behar direnean lana eta familia bateragarri egiteko laguntzei dagokienez, programa ez da oso ezaguna onuradun izan daitezkeen artean, neurri batean programa sortu berria delako eta Planaren berri emateko mezu komunean integratzeko zaila delako. Beraz, sentiberatze-kanpaina zehatzak egiteko aukera aztertu beharko da, eta baita neurri, baliabide eta laguntza ekonomiko berriak emateko aukera ere.
- Azkenik, oraindik ere gutxi dira lana eta familia bateratzeko laguntzak eskatzen dituzten gizonezkoak, programa bultzatzeko eta sustatzeko ahaleginak gorabehera. Beraz, beste irtenbide batzuk aztertu beharko dira, hala nola familiaren arloko sentiberatze-kanpainak.

Ondorioak

